



**GEROABAI**

LA NAVARRA DE TODOS/AS  
GUZTION NAFARROA

2023ko Hauteskunde-programa



# AURKIBIDEA

<b>SARRERA</b> .....	4
<b>1. TRANTSIZIO EKOLOGIKOA</b> .....	10
<b>2. KALITATEZKO ENPLEGUA ETA GARAPEN EKONOMIKOA</b> .....	20
<b>3. TOKIKOTASUNA, LURRALDE-OREKA ETA LEHENENGO SEKTOREA</b> .....	32
<b>4. PROPOSAMEN POLITIKO-INSTITUZIONALA ETA AUTOGOBERNUA</b> .....	42
<b>5. POLITIKA FISKALA ETA FINANTZARIOA</b> .....	50
<b>6. POLITIKA SOZIALAK</b> .....	56
<b>7. OSASUNA</b> .....	72
<b>8. HEZKUNTZA</b> .....	86
<b>9. ETXEBIZITZA ETA HIRIGINTZA</b> .....	100
<b>10. EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNA</b> .....	110
<b>11. HIZKUNTZA-POLITIKA</b> .....	118
<b>12. BAKEA ETA BIZIKIDETZA</b> .....	128
<b>13. GAZTERIA</b> .....	136
<b>14. KULTURA</b> .....	142
<b>15. KIROLA</b> .....	148
<b>16. FUNTZIO PUBLIKOA, BARNE DEPARTAMENTUA ETA JUSTIZIA</b> .....	154
<b>17. NAFARROAK AHOTS PROPIOA IZAN BEHAR DU EUROPAN ETA MUNDUAN</b> .....	160

Nahiak eta promesak gorabehera, **arnasa luzeko proposamenak** eta **politika-jardun koherentea** bateratu behar ditu sinesgarri izan nahi duen hauteskunde-programa orok. Errealitate-printzipioak izan behar du hauteskundetako eskaintzen oinarria, baldin eta ez badugu luzatu nahi herritarrei agindu bai baina bete ez diren promesen zerrenda eta, beraz, ez badugu areagotu nahi herritarrek alderdi politikoekiko duten urruntasuna eta interes falta.



## GEROABAI

GEROA BAIk sortu zenetik defendatu du bultzatzen ditugun **aldaketa sakonen** oinarrian dauden proposamenen **zorrotasuna**. Politika publikoko edozein arlotako “berehalako mirariak” populismoari utzita (ibilbide laburra du, epe laburrekoa) eta **ikuspegi estrategikoa**, **eguneroko lana** eta **giza gaitasuna** eta **antolaketa-gaitasuna** bermatuz, babesa eskatzen diegun herritarren bizi-kalitatea hobetzeko.

Horregatik, foru-hauteskudetara aurkeztu garen bi alditan (2015ean eta 2019an), GEROA BAIk **indar progresisten arteko akordio zabalak** proposatu ditu -eta praktikan jarri-, Nafarroari egonkortasuna emanaz eta aurrez izan ez duen aniztasuna aitortuz, bai eta nafarren ongizatea bermatzeko ezinbesteko erreformei helduz ere. Horri esker, gure koalizioak behar adinako indarra lortu duen erakundeetan, indar oso desberdinen arteko **adostasunak** lortu ditugu, eta **aldaketa esanguratsu** eta **iraunkorren aldeko ekintza politiko irmoa**. Nafarroako **autogobernua** nafarren bizimodua hobetzeko erabat baliagarria delako uste osoarekin. Erabaki-esparrua Nafarroan kokatzen duen eguneroko jardunetik abiatuta, Nafarroa berezko subjektu politikotzat jotzen baitu. Gure komunitateari gehien interesatzen zaizkion erabakiak hartzeko beste erakunde edo hiriburu batzuei baimenik eskatu gabe: Nafarroan eta Nafarroarako erabakitzen dugu. Eta, jakina, jomugan ahalik eta eskumen-boterekerik handiena lortzea dugularik. Txalotu egiten dugu legealdi honetan hiru transferentzia lortu izana (horietako bi Uxue Barkos presidente zela abiarazi ziren modu erabakigarrian) eta, horrekin batea, Alderdi Sozialistaren anbizio eskasa kritikatzeko dugu, ez baitu abian jarri etorkizun hurbilean beste transferentziarik lortzeko prozesurik.

Berriro egingo dugu, iraganean egin genuen bezala. Izan ere, **Uxue Barkosen** lidergoarekin, **Aldaketaren Legealdiak (2015-2019) Nafarroa oparago, berritzaileago, pluralago eta solidarioago** bat lortzeko oinarriak jarri zituen. Enplegua eta aberastasuna sortzea eta aberastasun hori birbanatzea eta desberdinkerien aurkako borroka bateragarri egitea ahalbideratzen duen politika fiskal progresista eta progresibo batetik abiatuta, finantza- eta aurrekontu-egonkortasuna eman diogu gure komunitateari, eta era nabarmen eta jarraituan murriztu dugu Nafarroaren zor publikoa. Hori guztia ezinbesteko oinarria da **ongizate-estatu**

izena merezi duen horretan sakontzen jarraitzeko; ongizate-estatu bat, bermatuko dituen eraikitzen jarraitu nahi dugun gizarte moderno bati dagozkion Osasunaren, Hezkuntzaren, Etxebizitzaren, Gizarte Politiken, Kulturaren eta beste zenbait arlotako **zerbitzu publikoak**.

Izan ere, azkeneko urteetan askotan esan dugun bezala, GEROA BAI koalizioarentzat garapen ekonomikoa ez da berariazko helburu bat, agintari ororen helburu izan beharko lukeena lortzeko funtsezko baldintza baizik: **gizarte kohesionatua, ahalik eta desberdinkeria sozial gutxien** izango duena, eta kide guztiei aukera emango diena bizitzea merezi duen **proiektu pertsonal, familiar, sozial eta laboral bat** askatasunez garatzeko.

2015etik 2019ra bitartean hasi ginen hori martxan jartzen (adibidez, **Errenta Bermatuarekin**, Estatuko aurreratuena, eta ahalbidetzen duena Nafarroa desberdinkeria sozioekonomiko eta pobrezia-tasa txikienak dituen erkidegoa izatea beti), eta hori aplika dadin saiatu gara azken lau urteetan, bai Nafarroako Gobernuan eta Parlamentuan, bai udaletan. Gure ardurapean izan ditugu herritarren ongizaterako funtsezkoak diren arloak (hala nola Etxebizitza, Garapen Ekonomikoa, Ingurumena, Bakea eta Bizikidetzak, Lehen Sektorea, Hizkuntza Politika), eta hobekuntza nabarmenak txertatu ditugu arlo horietan; horren erakusgarri dira, adibidez, gazteak emantzipatzeko **EmanZipa** programa eta **Trantsizio Ekologikorako Green Nafarroa Estrategia**, zeinak hasiak baitira emaitza positibo eta itxaropentsuak ematen.

Azkeneko puntu horretan, Geroa Bai koalizioak bultzatutako politika ausartei esker, Nafarroa **erreferente** bihurtzen ari da funtsezko hainbat arlotan; besteak beste, hauetan: energia berriztagarriak, familiako eta enpresa mailako autokontsumo energetikoa, ekonomia zirkularra, fiskalitate berdea, energia-eraginkortasuna, etxebizitzak energia-jasangarritasuneko irizpideen arabera birgaitzea, mugikortasun jasangarria eta tokian tokiko kontsumoa (“zero kilometrokoa”).

Klima-aldaketari eta Trantsizio Energetikoari buruzko Foru Legea eta beste zenbait arau aitzindari bultzatuz; Lege horrek aurreikusten duen Energia-trantsiziorako Nafarroako Agentzia sustatuz; martxan jarritz

energia fotovoltaikoa sortzeko asmoz Nafarroako Kanala eguzki-plakez estaltzea aurreikusten duen bezalako proiektu aitzindariak (Nafarroaren burujabetza energetikoa areagotzea, garraiatutako uraren lurruntzea murriztea eta erabiltzaileentzako azken prezio finko bat ziurtatzea lortzeko); arlo publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzak sustatuz berrikuntza digitaleko eta hidrogeno berdea garatzeko proiektuetarako eta etorkizuneko beste gai batzuetarako; arreta berezia eskainiz uraren kontsumo neurritsu eta jasangarriari eta biodibertsitatearekiko errespetuari (esate baterako, Aralarko eta Urbasa-Andiako Kontserbazio Bereziko Eremuak batuko dituen ekoduktoa).

Anbizioz, azterketa zorrotzak eginez, eta lana eta irudimena uztartuz, egia bihurtzeko gertuago egongo da ingurumen-, ekonomia- eta gizarte-jasangarritasunean oinarritutako trantsizioa. Handia da aurrean dugun erronka, eta are handiagoa izan behar du hura lortzeko ahaleginak.

Hala ere, ekarpen positibo horiek guztiak eta beste batzuk lortu izanagatik, ez dugu bertan goxo egin behar eta ez gaitu itsutu behar autokonplazentziak. Erabat kontrara, ihes egin behar dugu hortik. Ondotxo dakigu zein diren Nafarroako hurrengo Gobernuaren **erronkak** herritarren ongizaterako funtsezkoak diren arloetan. Lehenik eta behin, **Osasuna**. Gaur egungo **Lehen Mailako Arretako** eredu akitua eta **itxaron-zerrenda** onartezinak ikusita, beharrezkoa da lehenbailehen jardutea. Inoiz ez dugu ulertu -eta halaxe adierazi dugu maila pribatuan zein publikoan- zergatik ez duen aktibatu Nafarroako Gobernuak azkeneko lau urte hauetan aurreko legealdian egin genuen Lehen Mailako Arretaren Plan Estrategikoa; baina, horretaz gain, osasunaren arloan bizi dugun egoera kritikoa arinduko duten neurri bereziak behar ditugu; aurrekontuei eta antolaketari dagozkion neurriak, hain zuzen. Legealdi honetan gure Gobernukideek erakutsi duten geldotasunak eta konformismoak -gehiago arduratu dira titularrez politika eraginkorrak ezartzeaz baino- ez dute benetako soluziorik bultzatzen, eta ez zaigu onargarria iruditzen jarrera hori.

Horretaz gain, ekintza publikoko beste arlo batzuetan lehenbailehen behar dira hobekuntzak. **Zaintzen jasangarritasuna** benetan jarri nahi








bada bizitzaren erdigunean, ez da nahikoa hitz handiz aldarrikatzea; ezinbestekoa da gobernuko sail inplikatu guztiei eragingo dien hobekuntza orokorra ezartzea. Mendekotasuna duten pertsonak lehendabizi, bai eta haien familiek eta sektore horretako langileek ere, behar adinako aurrekontua duen esparru apropos bat behar dute.

**Hezkuntzaren** arloan ere, asko hobetu daiteke azken lau urteotako kudeaketa. Hezkuntza Departamentuan, elkarrizketa falta salatu dute inplikaturako alderdiek, eta anbizio falta kezkarria erakutsi du departamentuak, hezkuntzaren kalitatearen (ratioak jaitsita edo beste konpromiso batzuk utzita), hezkidetzaren, landa-inguruneko eskolen edo euskara bultzatzearen aldeko politika irmoak garatzeko, adibide batzuk baino ez aipatzearen.

Hauteskunde-programa honek politika publikoko arlo horien eta beste batzuen inguruko proposamen serio, zorrotz eta egingarriak jasotzen ditu. Dagoeneko aipatu ditugun hiru ardatz nagusitan banatuta dago (Autogobernua, Trantsizio Ekologikoa eta ongizate-estatua), eta horiek uneoro elikatzen dituzten zeharkako arlo hauek jorrotzen ditu: Nafarroaren ahotsa Europan eta munduan; emakume eta gizonen arteko parekotasuna; eskubide- eta aukera-berdintasuna pertsona guztientzat; hizkuntza-, ideologia- eta nortasun-aniztasunarekiko errespetua; belaunaldi arteko ituna; bizikidetzeta eta lurralde-oreka. Geroa Bai koalizioko gizon eta emakumeek programa hau prestatzeko prozesuan egindako lan guztia inondik ere ez dagoen arren, hurrengo orrialdeetan jaso ditugu jardun politikoaren arlo hauetan eta beste batzuetan Nafarroako gizartearekin hartzen ditugun konpromiso nagusiak.







1.

# **TRANTSIZIO EKOLOGIKOA**

Geroa Bai koalizioak funtsezkotzat jotzen du legealdi hasieran **Nafarroa Green Trantsizio Ekologikorako Estrategian** markatutako ibilbide-orriari jarraitzea. Ongo planifikatutako estrategia bat, egungo eredu produktiboaren ordezeko alternatiba jasangarriak sortzeko –Europako Itun Berdearekin (*Green Deal*) bat egingo dutenak– eta klima-larrialdiari erantzungo dioten aldaketa sozialak bultzatzeko. Eraldaketa-plan bat da, hainbat jarduketa-ardatz dituen (eraikuntza eta energia-eraginkortasuna, ekonomia zirkularra sustatzea, landa-eremua sustatzea eta haren berrikuntza bultzatzea, biodibertsitatea kontserbatzea eta kudeatzea, energia berriztagarriak eta mugikortasun jasangarri eta berritzailea) eta **ingurumen-, ekonomia- eta gizarte-jasangarritasunaren** ikuspegitik hainbat politika eta proiektu abian jartzeko ibilbide-orri modura balio duena.

## 1. KLIMA-ALDAKETA ETA TRANTSIZIO ENERGETIKOA

- Klima-aldaketari eta Trantsizio Energetikoari buruzko Foru Legea (KATEFL) garatzea, arreta berezia eskainiz Nafarroako Trantsizio Energetikoaren Agentziari (ATENA), fiskalitate berdeari eta eguzki-mapei eta mapa eolikoei. Karbono-aztarna neurtzeko derrigortasuna.
- Klima-aldaketaren inguruko Nafarroako Ibilbide-orria (KLINA) eta Nafarroako 2030erako Energia Plana. Jarraipenerako eta kontrolerako tresnak, eta erreferentzia-tresnak.
- Klima-aldaketa ezagutzeko espazioa: ibiltaria, interaktiboa eta klima-aldaketari buruzko dibulgazioa egiteko prestatua, Nafarroa osoan bidaiatuko duena.
- Etxebizitzen eta eraikin publikoen birgaikuntza eraginkorra bultzatzen jarraitzea.

## 2. GARAPEN JASANGARRIAN OINARRITUTAKO EREDU SOZIOEKONOMIKO, FISKAL ETA KONTSUMOKOA

- **FISKALITATE BERDEKO** formula berriak azkarrago ezar daitezzen bultzatzea, Europar Batasunak ezarritako premisari jarraikiz: “kutsatzen ez duenak onurak izango ditu, eta kutsatzen duenak ordaindu egingo du”. Ekonomia zirkularrean oinarritutako sistema bat eta iturri berriztagarrietan oinarritutako energia sortzeko sistemak ezar daitezzen bultzatuko duten neurri fiskalak hartzen jarraitzera eraman behar gaitu trantsizio ekologikoak. Lehenbailehen

jarriko dugu martxan fiskalitate berdearen inguruko lan-taldea, zeinak, KATEFL Legean jasotzen denari jarraikiz, honako neurri hauek aztertu eta, hala badagokio, bultzatuko baititu:

- » Meatzaritzako erauzketa-jardueren gaineko zerga.
  - » Lurzoruaren erabilera-aldaketaren gaineko zerga.
  - » Abeltzaintza intentsiboak ingurumenean duen inpaktuaren gaineko zerga (ustiategi handien kasurako).
- Ingurumenarekin lotutako zergen inguruan arautzeko gaitasuna handitzea ere aldarrikatzen dugu; esate baterako:
    - » Berotegi-efektuko fluordun gasen gaineko zerga.
    - » Hidrokarburoen gaineko zerga berezia.
    - » Energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zerga.
    - » Argindarraren gaineko zerga berezia.
    - » Garraiobide jakin batzuen gaineko zerga berezia..
    - » Garapen Sozial Jasangarriko eredu ekonomikoarekin lotutako europar legeria egokitzea. Europar Batasuneko direktibak arau bidez garatzea eta betearaztea, Estatuaren bitartekaritzaren zain egon gabe Nafarroak eskumen arauemaileak dituen zergetan.
    - » Nafarroaren ordenamendu juridikoa etengabe eguneratzen jarraitzea, Nafarroako Foru Ogasunari eta arlo ekonomiko eta finantzarioei dagozkien gaietan.
    - » **MUGIKORTASUN JASANGARRIAREN aldeko apustu garbia, Mugikortasun Jasangarrirako Nafarroako 2018-2030 aldirako Plan Zuzentzailean sakonduta.**
    - » Intermodalitatea sustatzea, bidaiarien eta salgaien garraio-moduen arteko trukeak optimizatuta.
    - » Lurralde-garraioko ardatzak eta fluxuak sakon analizatuta, garraio-zerbitzu publikoak birdefinitzea eta hobetzea. Nafarroa osoko herritarrek izan behar dute zerbitzu publikoa (trena, autobusa), hurbilekoa, kalitatezkoa eta ordaintzeko modukoa, eta zerbitzu publiko nagusiekin eta lantoki eta ikastetxeekin konektatzeko modukoa. Nafarroako eskualde askotan, hiriarteko garraioko eskualdeetako emakidek ez diete behar bezala erantzun beharrei; beraz, arnasa luzeagoko asmoz birdefinitu beharko ditugu.
    - » Bidaiarientzako eta salgaietarako tren-eskaintza handitzea, maila guztietan.
    - » Oinezkoentzako eta bizikletentzako konexioak Iruñerriko udalerrri guztien artean, bai eta gainerako eskualdeetako hiri nagusien eta biztanlegune nagusien artean.
    - » Bizikleta elektrikoak eta ohikoak alokatzeko zerbitzua ezartzea lurralde osoan.

### 3. EKONOMIA ZIRKULARRA

#### EKONOMIA ZIRKULARRAREN HUBA

Nafarroako ekonomia zirkularrari buruzko diagnostikoaren emaitzak kontuan hartuta, trebakuntza aurreraturako, zaintza teknologikorako eta ekonomia zirkularreko azterketak garatzeko proiektu estrategikoetarako zentro bat sortzea proposatzen da. Zentroaren helburua izango litzateke enpresa-munduaren eta hezkuntza-arloaren arteko zubi-lanak egitea, enpresen eskariak ekonomia zirkularraren arloko talentua sortuta bete daitezen hainbat mailatan (unibertsitateko prestakuntza, lanbide-heziketa eta enpresei zuzendutako prestakuntza), zaintzako jarduerekin eta proiektu estrategikoekin osatuta, merkatu-azterketak analizatu ahal izateko, legeriari, industriari, teknologiari, ekonomiari eta gizarteari dagozkien joerak ebaluatuz; edo metodologia, gida eta tresna sektorialak garatzea. Jarduera-ildo horiek, gainera, beste ekimen batzuetan garatutako jardueren osagarriak dira; Nafarroa Zirkularra ekimean garatutakoena, esaterako. Ekimen horren helburua da enpresei zuzeneko aholkularitza-zerbitzua ematea.

- Ekonomia Zirkularreko 2030erako Agenda garatzea: enplegu berde eta zirkularrean trebatzea eta hura sustatzea eta, tokiko esparrutik, Ekonomia Zirkularra bultzatzea, zeharkako hainbat alderditan: mugikortasuna, eraikuntza jasangarria eta energia-eraginkortasuna, hondakinen kudeaketa...
- Kontsumo arduratsua bultzatzea.
- Nafarroa Zirkularra ekimena garatzen jarraitzea, berrerabilera, konponketa, birdiseinu eta birziklapeneko politika zehatzak bultzatzeko Gobernuaren estrategia koordinatu gisa, Gobernuaren politika guztietan ekonomia zirkularraren zeharkakotasuna bultzatuz— kontratazio publikoa barne— eta asmo handiko aurrekontu bat ziurtatuz.
- Berrerabiltzea, Konpontzea eta Birpentsatzea (gaztelaniaz, Reutilizar, Reparar eta Repensar) hirukotearen erabilera sustatzea, Berreskuratzearekin eta Birziklatzearekin (gaztelaniaz, Recuperar eta reciclar) parekatu arte.
- Ekonomia zirkularraren monitorizazio publiko edo ekonomia zirkularraren edo itun berdearen zaintza teknologikoa, ingurumenekoa eta sozioekonomikoa (enpresa arlokoa, sektoriala eta klusterrena), etorkizuneko hedapen-ildoak eta tresnak identifikatzeko.
- Jakintza zientifikoa eta teknikoa eta diagnostikoko tresnak indartzea



administrazioan, trantsizioa bideratzeko eta aholkularitza espezializatuko eskaintza handitzeko (gaitasun zientifiko eta teknikoak dituzten aholkularitza-zerbitzu/organismo espezializatuak).

- Nafarroako organismoen arteko sareko lan-harremanak areagotzea, eta kontrasterako foro egonkorak sortzea, administrazioaren, unibertsitateen eta enpresen artekoak, hainbat arlotan kolaborazio berriak sustatzeko: digitalizazioa, big data, birmanufaktura eta diseinua, besteak beste.
- Lanbide-heziketan eta unibertsitatean ekonomia zirkularraren inguruko berriazko trebakuntza indartzea, enpresen eta merkataritzaren beharrekin bat etorritik.
- Kalamua Ikertzeko Nafarroako Elkartearen bitartez, eta balio-kate osoan aukera-leiho modura, kalamuaren/marihuanaren ikerketa- eta hazkuntza-proiektua bultzatzen jarraitzea.
- Egunero erabili ohi diren objektuak maileguz emateko zerbitzua martxan jartzea, berrerabileraren eta erabilera partekatuaren kultura bultzatuz. "Gauzen liburutegia".

## **ELIKADURA OSASUNGARRI ETA JASANGARRIA**

- Nekazaritzako elikagaiak merkaturatzeko zirkuitu laburren Foru Legea garatzea.
- Tokiko produktuak eraldatzen eta merkaturatzen laguntzeko zentro logistikoa OPPOSA erakundean.
- Produkzio Ekologikorako 2030erako Plana. 2030erako produkzio ekologikoa % 25ekoa izateko helbururantz aurrera egitea, "Baserritik mahaira" europar estrategiak jasotzen duen bezala.
- Kontratazio Publiko Ekologikorako 2022-2030erako Plana, elikadura-sistemari dagokionez agroekologiako irizpideak erabilita (jantoki kolektiboak hornitzea, AGPetan eta bestelako kalitate-zigiluetan pixkanaka estandar agroekologikoak txertatzea, komunalen esleipenetan proposamen agroekologikoak lehenestea...).
- Ziurtatutako eta kalitateko figurak bultzatzea, eta autonomiaz gaindiko kalitate-markak sortzea. Euskal Txerri eta Euskal Sagardoa.

#### 4. ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

- Nafarroaren energia-burujabetzaren alde aurrera egiten jarraitzea, energia-iturri berriztagarrien eskutik.
- Presazkoa da Energia-trantsiziorako Nafarroako Agentzia martxan jartzea, Energy Berri eredu sendotuz. Sozietate publiko gisa eratuko da, eta, izango dituen eginkizunen artean, hauek hartu behar dira aintzat: zuzeneko inbertsioak egitea edo, maileguen, abalen edo bestelako tresnen bitartez, erakunde publikoek egiten dituzten inbertsioetan laguntzea; energia elektrikoa merkaturatzea lehia libreko erregimenean; autokontsumoko instalazioetako energia-soberakinen salmenta kudeatzea; eta kontsumoko datuak analizatzea, Nafarroako administrazio publikoei eta haren sektore publiko instituzionalari zuzenduta.
- Nafarroako gizarte osorako eta erakunde publiko eta pribatuetarako energia-eraginkortasuneko estrategia bat garatzea. Enpresen arloan, 2027rako gure enpresa txiki eta ertainen eta saltokien energia-kontsumoa % 25 murrizteko helburua betetzea, zuzeneko pizgarrien eta pizgarri fiskalen bitartez.
- Nafarroako Kanalaren azpiegitura berrerabiltzea, energia fotovoltaiko berriztagarri publikoa sortzeko, ingurumenean inpakturik eragin gabe.
- Estatuari eskatzea iraul ditzala erabat Energia Komunitateen garapenarekin lotutako EB 2018/2001 eta 2019/944 direktibak.
- Energia-komunitateak irmoki bultzatzea, tokiko erakundeekin eta inplikaturako gainerako eragileekin lankidetzan.
- Industria-izaerako energia-komunitateak sor daitezkeen bultzatzea, tokiko erakundeekin batera lan eginez –batez ere industrialdeak dituzten guztiekin–, lurralde-antolamenduko tresnen bitartez..
- Arlo publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzaren bultzatzea, klusterrak eta erakunde publikoen eta enpresen, unibertsitateen eta gizarte zibileko gainerako kolektibo inplikaturako arteko harremanerako espazioak sortuz eta bermatuz.
- Hidrogeno Berdearen Nafarroako Agenda ezartzea.
- Nafarroan biomasa, biogasa eta bioerregaiak garatzeko berriazko estrategiak garatzea.
- Estatuari Gobernuari eskatzea beharrezkoak diren lege-aldaketak egin

ditzan Nafarroako erakundeen esku uzteko parke eolikoko eta fotovoltaiakoko instalazioetarako ekimen guztien inguruko erabakitzeko gaitasuna, gaur egun 50 Mw-tik beherako potentzia dutenekin dagoen muga hautsiz.

- Aurrez aurreko arretako zerbitzu bat sortzea, herritarrei energia-merkatuan dauden errealitateei buruzko informazioa emateko, gai horiei buruzko aholkularitza emateko, eta kontratuak aldatzeko beharrezko tramiteak egiten laguntzeko.
- Nafarroako Kultura Ondareari buruzko 14/2005 Foru Legea aldatzea, eta erregelamendu bidezko behar bezalako garapena ezartzea, bateragarri egiteko Nafarroako ondare arkitektonikoa kontserbatzeko behar adinako bermeak eta, bestalde, ondare horren energia-eraginkortasun ahalik eta handiena lortzea eta autokontsumo energetiko berriztagarriko instalazioak jartzea lege horren eraginpean dauden eraikuntzetan.
- Naveac plataforma –ibilgailu elektriko, autonomo eta konektatuaren industria bultzatzeko Nafarroako plataforma- garatzen jarraitzea, Nafarroa arlo horretan erreferente bihurtzeko, Europar Batasunak iradokitzen baitu hurrengo hamarkadaren erdialdean utziko zaiola errekontzako motordun ibilgailuak saltzeari. 2024rako, helburu zehatzetan sakontzea; hala nola ibilgailuen % 10 elektrikoak izatea eta ibilgailuak kargatzeko guneak egotea 50 kilometroan behin.

## 5. BIODIBERTSITATEA

- LIFE Kantauribai proiektua: proiektu horretan lanean jarraitzea, ibai-ekosistemarekin lotutako espezieen eta habitaten kontserbazio-egoera hobetzeko.
- EKODUKTOA: Urbasa-Andia eta Aralarreko kontserbazio bereziko bi eremu handiak batuko dituen konektibitate ekologikoko azpiegitura berdea amaitzea (Natura 2000 Sarea)
- Ebro Resilience estrategia. Ebroren erdialdeko tartean uholde-arriskuaren aurreko afekzioak murrizteko estrategiarekin bat datozen politiketan aurrera egitea.
- Biodibertsitatearen Foru Legea 2030. Natura ondareari eta biodibertsitateari buruzko foru-lege berria, arlo horretan zaharkituta gelditu den legeria ordeztuko duena.
- Natura 2000 Sarea bultzatzen jarraitzea, produkzio-jarduera tradizionalak,

aisialdiko jarduerak eta turismo jasangarria garatuz naturaren kontserbazioa sustatzen duen Europako sare ekologikoa baita.

- Ingurumenarekin lotutako prestakuntza- eta boluntariotza-jarduerak bultzatzen jarraitzea.

## 6. URAREN KUDEAKETA

- Uraren 2030erako Nafarroako Esparru Estrategia Integratua onestea, klima-aldaketaren ondorioei aurre egingo dieten ur-kontsumo neurritsu eta jasangarrien alde.
- Nafarroako Hiri Erabilerako Uraren Ziklo Integralaren 2019-2030 aldirako Plan Zuzentzailearekin aurrera jarraitzea; plan horren helburua da ur-kontsumo neurritsu eta jasangarrien alde egitea, ingurumenean ahalik eta inpakturik txikiena izateko moduan.
- Gainera, kontuan hartuz udaberri eta uda lehorrek ur-hornikuntzako arazoak ekar ditzaketela Nafarroako udalerrientzat, hornikuntza hori bermatuko duten neurriak garatzen jarraitu behar da.
- Klima-larrialdiaren aurrean, eta lehorreak gero eta sarriago gertatuko direla aurreikusten denez, ura biltegitartzeko gaitasuna handitzea Nafarroako gune estrategikoetan, azpiegitura jasangarrien bitartez. Bardeetako Valderreyko urtegiak adibide gisa balio dezake ureztatzea modernizatuko duten jarduketetarako.
- Uraren inguruko estrategiak uraren erabilera eraginkorra bultzatu behar du Nafarroan, ureztatze tradizionalak lehenbailehen modernizatuz eta, aldi berean, Nafarroako Kanalaren bigarren fasea garatuz. Martxan dauden proiektuekin jarraitzea; Vianakoarekin eta Ribaforadakoarekin, esaterako.











2.

**KALITATEZKO  
ENPLEGUA  
ETA GARAPEN  
EKONOMIKOA**

## **EKONOMIA PRODUKTIBO JASANGARRI, ZIRKULAR ETA DIGITAL BAT GARATZEKO INGURUNE APROPOSA BULTZATZEA**

Nafarroako gizarteak eta sare ekonomikoak eraldaketa ekologikoaren eta digitalaren erronka bikoitza dute aurrean, eta, horretarako, beharrezkoa da inoiz ez bezalako inbertsioa egitea eraldaketa energetikoko, ekonomia zirkularreko eta eraldaketa digitaleko politketan.

- **Eraldaketa Ekologiko eta Digitalerako Plan** bat bultzatzea, **gure industriari, enpresa txiki eta ertainei, merkataritzari eta turismoari zuzenduta**, legealdi osoan zehar **1000 milioi euroko inbertsio-maila izango duena**. Plan hori plan askotarikoen garapen-esparruan landu behar da; besteak beste, hauen esparruan: Industria Plana, Berrikuntza Digitalerako Gunea, Energia Plana, Enplegu Autonomoaren Plana, Turismo Plana, Txikizkako Merkataritza Bultzatzeko Plana, Ekintzailtza Plana eta Zientzia eta Teknologia Plana
- PFEZren zein Sozietateen gaineko Zergaren bitartez, garapen jasangarria, berrikuntza, ekintzailtza eta kalitatezko enplegua bultzatuko dituen produkzio-eredu bat sustatzea.
- Finantza-erakundeekin lankidetzan, arlo publikoaren eta pribatuaren arteko elkarlana indartzea Nafarroako enpresen finantza-gaitasuna handitzeko, kreditu-lerroak indartuz eta proiektu estrategikoei laguntzeko eta abal publikoak emateko programak definituz.
- Erosketa publikoetan, tokiko enpresa-sareko eta ekonomia zirkularreko produktu berritzaileak lehenestea, baita energiari dagokionez eraginkorrak diren ekipamenduak ere.
- Nafarroako ekonomiaren lehiakortasunerako beharrezko inbertsio estrategikoak handitzea, batez ere nazioartekotzearen, ikerketaren eta garapenaren arloetan.

## **JARDUERA EKONOMIKO ESTRATEGIKOAK SUSTATZEA**

- Nafarroako Enpresa Behatokiaren barruan, **Europar Batasuneko Politiken eta Joeren Behatoki** bat sor dadin bultzatzea, oinarri gisa balio dezan Nafarroan abian jarriko diren politiken jarraipena egiteko aurretiazko analisi estrategiko baterako.

- Ondorengo sektore hauek gara daitezen sustatzen jarraitzea: **S-4 Espezializazio Adimentsuaren Estrategia**: Automobilgintza eta Mekatronika; Elikagaien katea; Energia berriztagarriak; Osasuna; Turismoa; Sormen-industriak eta industria digitalak.
- **Enpresak finkatzeko** neurriak bultzatzea eta garatzea, hala nola Sodena sozietatearen Finkatze Funtsa
- Nafarroak beharrezkoa du **enpresen I+G+B** bultzatzea, batez ere gure enpresa txiki eta ertainena. Horregatik, I+G+Bren sustapena indartu behar da, laguntza eta diru-laguntzak pizgarri fiskalekin behar bezala konbinatuz. Horretarako, beharrezkoa da I+Gko Programa Estrategikoen eta enpresen I+Gko aurrekontua indartzea eta handitzea, gure enpresei teknologia transferitzeko.
- I+G+B sustatzeari indarra ematea, laguntzak eta diru-laguntzak pizgarri fiskalekin behar bezala konbinatuz.
- Nafarroako **medikuntza pertsonalizatuaren** eta doitasunezkoaren estrategia bultzatzen jarraitzea, gure osasun-sistema hobetzeko I+G+Bko inbertsioaren bitartez. Osasunarekin lotutako gure enpresa-sarea haz dadin sustatzea.
- SINAI sistemako eta enpresa- eta gizarte-sareko eragileen arteko lankidetzak bultzatzea.
- **SODENA sozietatean Plan Estrategiko** bat ezartzea, enpresa-ekimen berriei laguntzeko eta lehendik daudenak indartzeko, batez ere sektore estrategikoekin lotutakoak. Inbertsioen Nafarroako Institutuaren (INI) eginkizunetik koordinazio argi eta osagarria ezartzea, eta sortu berria den **INI** ekosistema publikoko izaera baterantz **berbideratzea**, lurraldea garatzeko azpiegiturak finantzatzeko (trena eta plataforma multimodalak, elektrizitatea garraiatzeko lineak, gasbideak, industria-lurzorua...)
- Halaber, **krisi-egoeran dauden enpresei** laguntzeko Sodena sozietatearen berriazko programa bat bermatzea eta **berregitura daitezen laguntzea**, batez ere energiaren eta lehengaien prezioen inoiz ez bezalako igoera izugarriaren ondorioz sortutako egoerak bizi dituztenei.
- **Foru Interes Estrategikoko Proiektuaren** figura bultzatzea, eraldaketa digital eta ekologiko bikoitzarekin lotutako proiektuak arin kudeatzeko, lehiakorak izan gaitzen bai kanpoko inbertsioa erakartzeko, bai gure enpresen garapen-proiektuei soluzioak eskaintzen.

- Ekintzaitzari, Enplegu Autonomoari eta Industriako Enpleguari dagozkion plan sektorialak garatzea.
- Konpromiso estrategikoari eta aurrekontu-konpromisoari eustea, eta unibertsitateekin, enpresa-organismoekin eta zentro teknologikoekin lankidetzan jarduteko mekanismoak ezartzea, beren tamainagatik eta baliabideengatik kanpora irteteko beharrezko inbertsioak eta ekintzak egiteko zailtasun bereziak dituzten **enpresen nazioartekotzea** ahalbidetzeko.
- Gure industriaren lehiakortasuna bultzatzea, produktuei **zerbitzu aurreratuen** balio erantsia gehituz, hala nola ingeniari-talenteak, digitalizazioa, zerbitzu teknologikoak eta proiektu estrategikoei laguntzeko finantza-funtsak.
- Akitania-Euskadi-Nafarroa **Euroeskualdean** barne-merkataritza eta enpresen inbertsioa bultzatzea, bai eta Europako beste eskualde batzuekiko lankidetzaren ere.
- Euroeskualdeko lan-ildo estrategikoak indartzea: herritarrak erdigunean jarrita, eta arreta berezia eskainiz enpleguari, mugikortasun jasangarriari eta jakintzaren ekonomiarri.
- **Inbertsioak erakartzeko** saila handitzea, lantaldea indartuta eta estrategia koordinatu eta sendo batekin.
- Nafarroako produkzio-sektorea **nazioartekotzea**, kanpoan ezar dadin lagunduz. Eskari handiko jomugetan zuzeneko laguntzak sustatzea, jomugetako administrazioek dagoeneko ez baitute inbertsiorako laguntzarik eskaintzen. Aldi berean, kanpoan ezartzeko Nafarroatik jasotako laguntzak enpresa beste herrialde batean hazteko SODENA sozietatearen finantziarioarekin osa litezke.
- **Talentuaren Plan Estrategikoa** martxan jartzea, bi eremu hauek koordinatuz: Ekonomia eta Enpresa Garapenerako eremua, zeina arduratzen baita talentua atxikitzeaz, joandakoa itzultzeaz eta nazioartekoa erakartzeaz, eta talentua sortzeko eremua, zeinaren ardura baitira birkualifikazioa eta bizitzan zeharreko trebakuntza, langabeen trebakuntza, Hezkuntza, Lanbide Heziketa eta Unibertsitateak.
- Arlo publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzaren bultzatzea, **klusterrak** eta erakunde publikoen eta enpresen, unibertsitateen eta gizarte zibileko inplikaturako gainerako kolektiboaren arteko interakziorako espazioak sortuta eta bermatuta.

- Nafarroako Gobernuak gauregundituen **Enpresen Gizarte Erantzukizunerako (EGE)** tresnak erabakitasunez bultzatzea, hala nola InnovaRSE sistema, Tamirse metodologia (enplegu autonomia, enpresa txiki eta ertainak eta Gizarte Erantzukizuna) eta GovernRSE (Gizarte Erantzukizun publikoa). Halaber, **enpresa-eredu inklusibo/partizipatibo bat sustatzeko jarduketan plan** bat egitea.

## EKONOMIA SOZIALA

- Nafarroan Ekonomia Sozialaren sektoreak dituen beharrei heltzeko behar adinako egitura publikoa garatzea. Horretarako, beharrezkoa izango da, gutxienez, Zuzendaritza Nagusi bat, aurrean dituen aukerei eta erronkei aurre egiteko gai izango dena.
- Ekonomia Sozialaren II. Plan Integrala garatzea, 2030erako Agendako (GJH), Europako politiketako eta Suspertze Planetako erronkak eta helmugak txertatuz.
- Nafarroako Gobernuan Ekonomia Sozialaren inguruko departamentu bat sortzea.
- **Ekonomia Kooperatiboaren Institutu Publikoa** sortzea, eredu hori sustatzeko tresna gisa.
- **Kooperatibei buruzko Foru Legea** eguneratzea, duen benetako dimentsioa islatzeko eta sektorearen beharrei erantzuteko.
- Ekonomia Sozialeko Katedra bultzatzea Europan eta euroeskualdean.

## ERALDAKETA DIGITALA

- Nafarroako enpresa-sarearen eraldaketa digitalerako prozesua sendotzea, Nafarroako 2021-2025 aldirako Industria Plana garatuta.
- Digitalizazio-prozesuen onurak bultzatzea, enpresa digitalizatuen kopurua handitzearen eraldaketa digitalak eskain ditzakeen hobekuntza-marjinak ezagutzera emanez, arreta berezia eskainiz enpresa txiki eta ertainei.
- **IRIS Nafarroa Berrikuntza Digitalerako Gunea**ri behin betiko egoitza fisiko bat ematea, gaur egun modu digitalean egiten dituen zereginak egiten jarraitzeko aukera izan dezan: Nafarroa digitalizatzeko leihatila bakar modura, orientazioa, aholkularitza eta laguntza publikoen berri ematen du, enpresek

prozesu horri ekin ahal izan diezaioten; gainera, balio erantsi handiko zerbitzuak eskaintzen ditu, esperimentaziorako, prestakuntza eskuratzeko, azpiegitura teknologikoetarako eta estatuko zein Europako Berrikuntza Digitaleko Guneen europar sareko kide diren beste erakunde batzuekin lankidetzan aritzeko eta parte hartzeko.

- Europako Batzordeak European Digital Innovation Hubs (EDIHs) lehenengo sareko kide izateko hautatu izanak aukera eman behar dio guneari eraldaketa digitalaren katalizatzaile modura jarduteko, zerbitzu espezializatuak eskainiz eskualdeko, estatuko eta Europako enpresei eta erakundeei adimen artifizialeko, superkonputazioko eta doitasunezko medikuntza pertsonalizatuko arloetan.
- IRIS Nafarroa Berrikuntza Digitalerako Guneak ahalegin osagarriak bideratzen ditu Nafarroaren lehiakortasun orokorra bultzatzea ahalbidetuko duten eta, zehazki, Nafarroa S4 Espezializazio Adimentsuko Estrategian finkatzen diren sektore estrategikoak garatzen lagunduko duten espezializazio teknologikoko arloak bultzatzera.
- Berrikuntza Digitalerako Gunearen kudeaketako garapen-faserako erakunde bat sortzea.
- Nafarroako Adimen Artifizialaren aldeko apustuan urrats sendoak ematea, hazkuntzarako oinarri gisa espezializazio zientifikoa indartuz. **CNAIR** erakundera behar adina aurrekontu bideratzea.
- IRIS Nafarroa Berrikuntza Digitalerako Gunea hainbat arlotan espezializa dadin bultzatzea, hala nola datuen zientzian eta adimen artifizialean, elementu konektatu eta adimentsuetan, zibersegurtasunean eta bioteknologian eta biologia sintetikoan.
- Estrategia Digitala, Banda Zabalaren II. Plan Zuzentzailea eta Inklusioko eta Gaikuntza Digitaleko Plana garatzen jarraitzea, eta adimen artifizialaren eskola-astearen aldeko apustua egitea.
- Banda zabala industriaguneetara hedatzeko plana amaitzea.
- Arlo publikoaren eta pribatuaren arteko akordioak bultzatzea "azken milia" deritzon arazoa konpontzeko; arazo horrek kalitatezko komunikazio digitalak jasotzea zailtzen du, batez ere toki-erakunde txikienetan eta lurraldean sakabanatuen daudenetan.
- Herritarrak trebatu daitezzen ahalegintzea, batez ere "arrakala digitala"k gehien kaltetutako sektoreetan.



## INDUSTRIA-LURZORUAREN PLAN ZUZENTZAILEA

Industriari buruzko Foru Lege bat egitea, besteak beste ondorengo gaiak jorratuko dituena:

- **Industria-lurzoria eta -espazioak planifikatzea, sortzea eta sustatzea**, sozietate publikoekin eta tokiko erakundeekin batera, prezio lehiakorrekin, azpiegitura komunekin eta, eskualdearen beharren arabera, sektore estrategikoetako enpresak hazten eta inbertsioa erakartzen lagunduko duten kudeaketa-ereduekin..
- Azken belaunaldiko enpresa-azpiegitura behar da zientzia-, teknologia- eta enpresa-eragileen arteko lankidetzak bultzatu ahal izango duten industria- eta teknologia-proiektu handiak erakartzea lortzeko. Beharrezkoa da, aldi berean, **Inbertsioak Erakartzeko Plan** bat egitea, behar adinako zuzkidura eta baliabideak izango dituena.
- Sektorea estatistikoki birdimentsionatzea. Jarduera intelektualak, ingeniariak eta industriarekin lotutako komunikazio-jarduerak ere gehitzea.
- Nafarroako Espezializazio Adimentsurako Estrategiaren arabera, azpiegiturretan, lurzoruaren erabileretan eta haren garapenean inbertsioak egiteko **plangintza-dokumentu** bat onartzea. Dokumentu horrek industriaguneetako S4 agendako espezializazioak identifikatuko ditu, industria-ekosistemak jotzen direnak. Industria-jardueraren arlo horietan enpresak haz daitezten eta inbertsioak erakartzen lagunduko duten azpiegitura komunak proposatuko dira. Industria-eremuetan eta parke teknologikoetan oinarrituta, berrindustrializazio-prozesu bat egitea, eta Industria-lurzoruaren Bistaratzailea eguneratzea.
- **Konektibitateko** eta **eskema logistikoko** jarduketak lehenestea, industria-eremuak tren bidez lotuz eta plataforma multimodalak garatuz; horretarako, konektibitateko eta eskema logistikoko jarduketan lehenespina jasoko da plangintzan, eta dagokion koordinazioa ezarriko da ADIFekin. **Salgaietarako trenbideak eta plataforma intermodalak** garatzeko eta kudeatzeko eskumenaren **transferentzia eskatzea** proposatzen da.
- **Industria-kalitatea** sustatzea Bikaintasunerako Nafarroako Fundazioaren bitartez, bereziki azpimarratuz, besteak beste, industria-segurtasuna zaintzeko beharra..
- Foru Intereseko Deklarazioaren figura garatzea eta hobeto arautzea. Administrazio-tramiteak arintzea baino harago joan behar da, eta tratamendu

bereizia izan behar du laguntzetan. Eragina izan lezake beste administrazio batzuen epeetan.

- Martxan dagoen jarduera bat amaitzera doanean, industria-jarduerak jarrai dezan beharrezkoak diren prozesu administratiboak formalki antolatzea (bitartekaritza, inbertitzaileak bilatzea, etab.)

## LURRALDE-KOHESIOA AKTIBATZEA

- **Eskualdeak Aktibatzeako Planak** indartzea. 2016an abiarazi zen aurrekaririk gabeko programa hori, eta positiboa izaten ari da lurralde osoan industriaren presentzia indartzeko. Helburuak izan behar du eskualdeen garapen ekonomikoa industriaren ikuspegitik lantzea, hala landa-garapeneko politika publiko historikoak osatzeko, funtsezkoa baita industriaren presentzia sustatzea udalerrietan, bertako biztanleak udalerriotan finka daitezen eta gainerako sektoreen jarduera ekonomikoa indartu dadin.

## TXIKIZKAKO MERKATARITZA

- Merkataritza arautzen duen uztailaren 12ko 17/2001 Foru Legea eta 1/2017 Legegintzako Foru Dekretua eguneratzea Nafarroan, merkataritzako establezimenduak lurralde- eta gizarte-kohesioko eredu bati jarraikiz arautzeko, betiere kontuan harturik hiri-ingurumeneko zuzenbidea eta herritarrek eta kontsumitzaileek hiri trinko eta bizigarri baterako duten eskubidea.
- **Hurbileko Txikizkako Merkataritza Bultzatzeko 2022-2025 aldirako Plana** ezartzea, hurbileko produktuak eskaintzen dituzten komertzio txikiei lagunduz, eta biztanleria galtzeko arrisku handieneko eremuetan iraun dezaten bultzatuz.
- Nafarroako Landa-eremuko Merkataritza Dinamizatzeko Zerbitzu Sarea finkatzea, Tokiko Ekintza Taldeekin lankidetzan.
- Txikizkako merkataritzaren lehiakortasuna, eraldaketa digitala eta ekintzailatza bultzatzea, Merkataritzaren eta Artisautzaren Eraldaketa Digitala Bultzatzeko Zentroaren eskutik.
- **Business Improvement District** direlakoei buruzko **foru legea onartzea**.
- Auzo eta herrietan, hiri trinkoa lortzen laguntzen duten merkataritza-ardatz batzuk sortzea, hala mugikortasuna murrizteko eta orekatuagoa izateko

bizilagunen, merkataritza-jardueraren eta zerbitzuen erabilera..

## TURISMOA

- **Nafarroako Turismoko Plan Estrategikoa** ezartzea, Trantsizio berde eta jasangarrian, energia-eraginkortasunean, trantsizio digitalean eta lehiakortasunean oinarritutakoa. Turismoko Prestakuntza Plana garatzea.
- Lurralde-sarea indartzea, etengabe gara dezan lurraldearekin koordinatzeko eta antolatzeko lan kritikoa, eta berrikuntzako mahaiak, produktuak edo segmentuak dinamiza ditzan, partzuergoen, elkarteen eta gainerako eragileen parte-hartzearekin.
- Helmuga-, gastronomia-, natura- eta kultura-sareetan eta batzar eta ekitaldietan Estatuko zein nazioarteko Aliantzak indartzea.
- **Helmugako Turismo Jasangarritasuneko Planak eta Helmugen arteko Kohesio Jarduketak egitea.**
- Turismoak Komunitateko eskualdeetan duen pisua indartzea, Lurralde Kudeaketako Unitateak indartuta, arlo horretan ere lurralde osoaren gizarte-kohesioa bilatuz, natura-espazioetan bisitarien erabilera eta fluxuen kudeaketa hobetuz, eskaintza handituz eta dibertsifikatuz.
- Nafarroako **bizikleta-ibilbideen sarea** osatzea.
- Nafarroan Espezializazio Adimentsuaren Estrategian aipatzen diren sektore estrategikoekin zerikusia duten ekitaldiak bultzatzen jarraitzea.
- Tokiko administrazioei aurrekontu-laguntzak ematea, erdigune historikoak berreskura eta manten ditzaten, turismoari laguntzeko eta zonako ekonomiari eusteko .

## KALITATEZKO ENPLEGUA

### PROPOSAMENAK:

- Lan-harremanen inguruko kultura berri bat eta desberdintasun sozioekonomikoak murrizteko itun sozial eta ekonomiko bat sustatzea, langileek enpresaren erabakietan parte har dezaten sustatzea, bai eta zenbait neurri hartzea ere, hala nola lan-ordutegi egokiak ezartzea (telelaneko eta aparteko orduak mugatzeko eta kontrolatzeko politika irmoak, etab.), lana, bizitza pertsonala eta zainketak uztartzen lagunduko dutenak.

## KALITATEZKO ENPLEGUA ETA GARAPEN EKONOMIKOA

- Enplegua sortzeko, lanaren banaketa sustatzea, 27/2011 eta 39/2014 Foru Dekretuak hobetuz.
- Aldi baterako lan-jardunaldiaren murriztapenak zein lau eguneko lan-asteak esperimentatu nahi dituzten Nafarroako enpresen eta langileen ekimenei laguntzeko aukerak aztertzea.
- Esperientzia pilotu modura, jardunean dauden pertsonak langabezian dauden pertsonekin ordezteko partzialki ordaindutako baimenak ezartzea Nafarroako sareko enpresa batzuekin, hainbat neurri hartuta; besteak beste, baimen-aldian gizarte-kotizazioei eustea.
- Etorkizunean enplegua sortzeko planetarako oinarri tekniko eta zientifiko gisa balioko duen ikerketa bat egitea Unibertsitateak.
- Trantsizio digital eta jasangarrirako gaitasunetan trebatzera eta eguneratzera bideratutako prestakuntza sustatzea, langabezian dauden pertsonak lan-munduan sartzen laguntzeko eta beren birziklapen profesionala bultzatzeko.
- Prestakuntza-eskaintza lan-eskariarekin lerrokatzea, STEM arloetako eta, oro har, S4 Estrategian definitzen diren lehentasunezko gaietako lanbide-heziketa eta heziketa teknologikoa indartuz.
- Lan-ingurune seguru eta osasungarriak bultzatuko dituzten neurriak ezartzea, eta ezbeharrak, gaixotasun profesionalak eta lan-lekuetako arriskuak prebenitzeko kulturaren inbertitzea. Halaber, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuaren bitartez, eta gizarte-eragileekin lankidetzan, laneko ezbehar-kopuruaren aurkako borroka bultzatzea.

- Enplegua sortzeko Politika Aktiboak garatzea, zeinak, aukera-berdintasunera bideraturik, lan-arloan zailtasun handienak dituzten kolektiboak lehenetsiko baititu: emakumeak, gazteak, 45 urtetik gorakoak, luzaroan langabezian daudenak, migratzaileak, desgaitasunen bat duten pertsonak edo bazterkeria-arriskuan daudenak.
- Haien prestazioa bermatze aldera, orientazioko, prestakuntzako, bitartekaritzako, auto-enpleguko aholkularitzako eta ekintzailetzako programak eta zerbitzuak finkatzea, guztiak ere enplegua sortzera eta pertsonen enplegarritasuna eta enplegu duin bat eskuratzeko dituzten aukerak hobetzera bideratuta.
- Nafarroako Sozietate Publikoen Elkartearen (CPEN) eta enpresa publikoetako ordezkariak sindikalaren arteko beharrezko negoziazioak abiaraztea, sektore horretako lan-hitzarmena adosteko.
- Epe ertainera, erabateko eskumena izatea, ez enplegurako politika aktiboetan bakarrik, baizik eta baita lan-arloko ikuskapenaren eta enplegurako politika pasiboaren kudeaketaren arloetan ere. Azken batean, Gizarte Segurantzaren kudeaketan.
- Aumentar el compromiso presupuestario con el Plan de Desamiantado.
- Introducir la exención en IRPF de las personas afectadas por el amianto que se benefician del fondo estatal de compensación.







3.

# **TOKIKOTASUNA, LURRALDE-OREKA ETA LEHENENGO SEKTOREA**

Udalgintza eta hurbileko politika Administrazioetan egiten dugun lanaren ardatz nagusiak dira. Argi geratu zen hori Nafarroako Tokiko Administrazioen Erreformatarako 4/2019 Foru Legearen onespenezkin; tokiko erakundeek, udalek eta udalbatzek herritarrekiko arretan eta tokiko eta gainerako administrazioen arteko bitartekari gisa duten eginkizuna aitortzen du lege horrek. Tokiko administrazioak historikoki izan dituen arazoetako batzuk konpontzea zen legearen asmoetako bat.

Lau urte beranduago, aurrerapenak egin dira arau hartan jasotzen ziren alderdi batzuetan, baina oraindik asko dago egiteko. Legealdi honetan, alderdi politiko batzuen konpromiso faltaren ondorioz, erabat gelditu da **tokiko mapa berria**. Beraz, foru-hauteskundearen emaitza funtsezkoa izango da aurrera egiteko udalerriaz gaindiko erakundeak sortzeko bidean, eta horrek behin betiko hobekuntza ekarriko die tokiko erakundeei. Hori garatzeko, funtsezkoa da behar adinako adostasuna lortzea eta, eskumenak argitzeko etorkizuneko prozesuan, ezinbestekoa izango da zerbitzuak erabiltzaileengandik ahalik eta hurbilen egon daitezen lortzea.

Tokiko finantziario-eredu **berri bat** garatu da, finantza-nahikotasunaren, aurrekontuaren jasagarritasunaren, elkartasunaren, tokiko autonomiaren eta lurralde-orekaren printzipioetan oinarrituta dagoena, eta 2015ean hasitako bidea finkatu duena, hazi egin baita Nafarroak tokiko erakundeei zergen bidez egiten dien ekarpena. Eredu horri esker, funts gehiago iritsi dira udalerrira eta kontzejuetara, eta Lurraldeko Kohesio Funtsa sortu da; 30 udalerrira funts horren onuradun, eta herritarrentzako zerbitzuen bolumen handia hartzen dute.

Hala ere, oraindik beharrezkoa da laguntza horien eta beste batzuen banaketa arintzea (esate baterako, **Tokiko Inbertsioen Programan** jasota dauden obren eta proiektuena), atzerapen handia izan baitute legealdi honetan.

Finantziarioa, tokiko mapa berria... funtsezkoak dira orobat **despopulazioaren** arazo estrukturalen eta, horretarako, politika integralak eta arnasa luzeko proiektuak behar dira. Nafarroako landa-ingurunean gertatzen ari den biztanle-galeraren aurrean, beharrezkoa da berehala eta modu koordinatuan jardutea. Despopulazioa azkar baitoa aurrera. Horren erakusgarri da hainbat eskualdetan gertatzen ari den biztanle-galera, hala nola Pirinioetan, Zangozan eta Lizarraldean; hor daude, gainera, beste gai batzuk ere; besteak beste, jaiotza-tasa txikia, biztanleen zahartzea eta biztanle-dentsitate txikia. Horren

guztiaren ondorioz, lurralde batzuek kilometro koadro bakoitzeko 12,5 biztanle baino gutxiago dute, eta biztanle-kopuru horretan jartzen du, hain zuzen ere, despoblazio-arriskuaren muga Europar Batasunak.

**PROPOSAMENAK:**

- Tokiko Administrazioen Erreformatarako 4/2019 Foru Legea garatzea udal mapa berriari eta udalerriaz gaindiko egiturari dagokionez, eskualdeak sortuz eta eskumenak zehaztuz, oraindik egiteke baitago hori.
- Tokiko erakundeen proiektuak finantzatzeko programak eta erakundeoi zuzendutako laguntza-ildoak arintzea, udal-kudeaketa errazagoa izan dadin.
- Despoblazioaren Aurka Borrokatzeko Foru Lege bat egitea, Nafarroako Gobernuko departamentu guztiak inplikaturako dituzten zeharkako neurriekin, eta behar adinako finantziarioekin. Besteak beste, egoerarik zailenetan dauden udalerrien diskriminazio positiboa bultzatuz, hainbat neurriekin, hala nola fiskalitate berezia aplikatuta despoblazio-arrisku handieneko lurraldeetan. Horretaz gain, beharrezkoa da despoblazio-indize argi bat garatzea, biztanleria galtzeko arrisku-mailak zein diren ezarriko duen Nafarroako mapa bat eduki ahal izateko.
- Eskualdeak Aktibatze Planak indartzea.
- Enplegua sortzeko, etxebizitza eskuratzen laguntzeko eta gazteek landa-ingurunean geratuko direla bermatzeko proiektu berritzaileak sustatzen jarraitzea.
- Landa-eremurako Mezenasgoari buruzko Foru Lege bat egitea, despoblazio-arazoak dituzten eremuetan garatzen diren proiektuetarako abantaila fiskalak eskainiko dituen.
- 2017an sortutako Pirinioei buruzko batzorde txostengilearekin jarraitzea. Despoblazio-egoeran dauden beste eskualde batzuetarako antzeko gobernantza-ereduak aztertzea; esaterako, Lizarralderako eta Nafarroa Erdialderako.
- Parte hartzeko eta gardentasuneko sistemak garatzea, Administrazioa Nafarroako herritarrei hurbiltzeko.
- Azkeneko urteotan aurrerapen eskasak eggin direla ikusita, tokiko erakundeetan administrazio elektronikoa ezartzeari berriro ekitea, eta prozesuak erraztea tamaina txikieneko udaletan eta kontzejuetan. Konektibitatea hobetzen

jarraitzea, 5G teknologia Nafarroako udalerrri gehiagotan ezarrita.

- Garapen Agentziak bultzatzen jarraitzea, sektore publikoaren eta pribatuaren arteko harreman-espazio diren aldetik.

## **2. LEHEN SEKTOREA**

Gure Gobernuaren jardunetik, Parlamentutik eta tokiko erakunde askotatik, lehen sektorea babes dadin bultzatu dugu, horretarako berariazko legeak onetsita, adibidez. Hor dugu, esaterako, Animalien Osasunari buruzko Foru Legea, zeinak, besteak beste, abeltzaintzako ustiategietarako gehieneko mugak ezartzen baititu; baita Nekazaritzako Elikagaiak Merkaturatzeko Bide Laburrei buruzko Foru Legea ere, zeinak familia-ustiategiak bultzatu eta hurbileko eta ekoizpen ekologikoko produktuen kontsumoa indartuko baititu.

Halaber, nabarmentzekoa da bat-batean sortutako egoerei aurre egiteko laguntza-sorta handia onetsi dela –azkeneko urtean, guztira, 20 milioi eurokoa–, hala nola pandemiari eta energia-kostuen igoerari aurre egiteko. Horri gehitu behar zaio hobetu egin direla laguntza-ildo konbentzionalak; 2015-2019 legealdian hasi zen Gobernua zeregin horrekin, aurreko gobernuek laguntzok erabat murriztu ondoren.

### **PROPOSAMENAK:**

- Nekazaritzako Elikagaiak Merkaturatzeko Bide Laburrei buruzko Foru Legea garatzeko bidean aurrera egitea. Nekazaritzako elikagaiak banatzeko eredu horren logotipo berria eta erregistro berria martxan jartzea, baita promozio-kanpainak ere (Nafarroako Gobernuaren kontura joango dira horien gastuak). Ildo berean, ekoizpen ekologikoa gara dadin sustatzea, ekoizleei lagunduz hurbileko merkatuetara irits daitezen.
- Nekazariak balio-katean duten posizioa hobetzea: "Katearen Legea" kontrolatzeko elementuak indartzea; prezioen behatokia.
- Nafarroak bestelako Nekazaritza Politika Erkide (NPE) bat behar du, jarduera mantenduko dela eta nekazaritzako ustiaketa familiar profesionalaren ereduak biziraungo duela bermatuko duena.
- Nekazaritza-sektorea digitalizatzea, bat etorritik Nekazaritza Politika Erkidearen erreforman jasotzen denarekin.
- Kalitatezko produktuak sustatzea berariazko adierazpen eta deituren

bitartez, autonomiaz gaindiko kalitate-markak sortzea barne.

- Familia-ustiategiko eredu jasangarria bultzatzen jarraitzea, landa-eremuetan nekazaritzako jarduera ekonomikoari eusten jarraitzeko bide gisa.
- Animalien Osasunari buruzko Foru Legea ezartzen jarraitzea, Nafarroako familia-ustiategien etorkizuna bermatuz. Tamaina ertaineko ustiategietan oinarritutako abeltzaintza-eredu baten aldeko apustua egitea –hori da gure komunitateko berezko eredu– eta, aldi berean, ustiategiokin aurrera jarraitzeko osasun-baldintza eta baldintza ekonomiko egokiak bermatzea.
- Abeltzaintza Estentsiboaren Plan Estrategikoa bultzatzea.
- Landa-garapeneko eredu bat defendatzen jarraitzea, Foru Administrazioaren eta lurralde-dinamizazioarekin eta tokiko administrazio berriaren ondoriozko eskualdekako banaketarekin lotutako eragileen arteko lankidetzaren lehenetsiko duena.
- Basoko Baliabideen Zentro bat eraikitzea, basoen kudeaketaren eragile nagusiak bilduko dituen eta Nafarroako sektore estrategiko hori koordinatuko duena. Izango dituen eginkizunetako batzuk: zurezko eraikuntza ezagutzera ematea; Administrazioari zein herritarrei eguneroko kudeaketa sinplifikatzea, optimizatzea eta erraztea; langileak sektorerara erakartzen eta belaunaldi arteko erreleboa bultzatzen saiatzea.
- Baso Agenda garatzea.

### **3. AZPIEGITURAK**

#### **NAFARROAKO KANALA**

Nafarroako Gobernuak 2015-2019 legealdian egindako lanari esker proiektua desblokeatu zenetik, dagoeneko amaitu dira Nafarroako Kanala handitzeko 1. faseko lanak; Kanaletik iristen den ura jasotzen duten lursailak hornitzeko lanetan ere aurrerapenak egin dira. Legealdiaren azken txanpan, hasi dira Ega ibaiaren adarrean egin beharreko obrak.

Hala ere, eta ahalegin haiek egin ziren arren, oraindik ez dira hasi Nafarroako Kanaleko ura Erriberara irits dadin egin beharreko obrak. Proiektu horrek kalitatezko uraren hornikuntza bermatuko die Erriberako herritarrei, eta nekazaritzako elikagaien industria garatzen lagunduko du. Obren zati hori egia bihurtzea lortu behar da, eta aurrerapenak egin behar dira lan horiek finant-

zatzeko ereduan, bai eta etorkizuneko eremu ureztagarriko jarduketan diseinuan ere.

### **ESAKO OBRAK**

Obren segurtasun-baldintzei buruzko azterketen inguruko gardentasun faltak eta desinformazioak eragindako nahastearen ondoren, beharrezkoa da inguru horretako biztanleei lasaitasuna eta behin betiko erantzuna ematea. Argitara eman diren txosten batzuen zehaztasun eza nabarmenak, txostenok berandu argitaratu izanak eta txostenen arteko kontraesan agerikoek ez dute horretan batere laguntzen. Horregatik, uste dugu azterketa independenteak egiteko aukera planteatu behar dela, benetako egoera zein den argitzen saiatzeko.

### **TRENBIDE-AZPIEGITURAK**

Geroa Bai koalizioak Nafarroan prestazio handiko trena eraikitzea defendatu du, bidaiarien eta salgaien garraioa bermatuko duena, europar estandarrak betez. Onartezina da Nafarroa berriro Europatik baztertuta geratzea tren bidezko garraioari dagokionez. Baina, Geroa Bai koalizioan uste dugu Foru Administrazioak pisu handiagoa izan behar duela proiektu horren garapenarekin zerikusia duten gaietan, hala nola Iruñeko tren-begiztarako soluzioa aurkitzeko auziarekin edo euskal Yaren konexioarekin loturikoetan. Erabaki horiek ezin dira hartu Nafarroak defendatzen duen jarrera kontuan hartu gabe.

Bestalde, prestazio handiko trena garatzeak ezin du ekarri linea konbentzionala bertan behera uztea, funtsezko elementua baita Nafarroako lurraldea egituratzeko. Azkeneko urteotan ikusi dugu geltoki ugari itxi direla eta zerbitzuak okerrera egin duela, eta hori onartezina da.

Beharrezkoa da linea bietan inbertsioak egitea irmotasunez defendatuko duen Nafarroako Gobernu bat. Helburuak izan behar du, batetik, Nafarroa ez gelditzea Atlantiko-Mediterraneo korridoretik kanpo eta korridore horrek herritarrei eta komunitateko ekonomiari ekarriko lizkiekeen aukerarik gabe, eta, bestetik, nafarrentzako barne-zerbitzu hobea bermatzea.

## **BIDE-SAREA**

Parlamentuko alderdi guztien arteko epe luzerako adostasun zabala lortzeko lan egitea; adostasun horrek ziurtatu beharko luke gure errepide-sareak behar dituen handitzeko eta hobetzeko lanak egingo direla, Nafarroaren garapen ekonomikoa eta gizarte- eta lurralde-kohesioa sustatzeko.

Behar ugari dago errepideak hobetzeari eta mantentzeari dagokionez; beraz, lanean jarraitu behar da Errepide Planak egiteko eta, batez ere, haiek betearazteko. Badaude, gainera, lehentasunezko proiektu batzuk; nabarmentze-koak dira honako hauek:

- Iruñeko ingurabidea bitan banatzea Ezkabako tunelaren eta Itaroaren artean.
- N121A, 2+1 ereduaren arabera, eta Belateko tuneletarako soluzioa.
- Madrilerako autobia.
- Ingurabideko biribilguneak hobetzea, Sarrigurenen, Zizur Nagusian eta Berriozarren.
- Iruñeko San Jorge auzoa banantzen duen biribilgunerako soluzioa.
- Aragoi ibaiaren gaineko zubia zabalagotzea, Martzilla eta Alesbes arteko errepidean.
- Lizarra eta Zangoza batzen dituen NA-132 errepidearen hegoaldeko saihebidetza amaitzea, Tafallan.
- Sesma eta Allo arteko NA-666 errepidea hobetzeko lanetan aurrera egitea.

Beharrezkoa da, gainera, errepideak kontserbatzeko eta haien mantentze-lanetarako inbertsio-ahalegin handiagoa egitea. UPNren Gobernuak gai horretan erakutsi duten utzikeriaren ondoren, helburu horietara bideratutako partida handitzen joan da azkeneko bi legealdietan, eta jarraipena izan behar du lan-ildo horrek.

Orobat, aurrera egin behar da gaitasun handiko errepideak erabiltzeagatiko kanonaren kobrantza kudeatuko duen enpresa publiko bat sortzeko bidean. Halaber, kanon hori martxan jartzeak eragingo dion garraio-sektoreari laguntzeko neurriak ere landu beharko dira.



Inbertsio handiak eskatzen dituzte era horretako obrek eta, Geroa Bairen us-  
tez, hori ezin da egin UPNren gobernuek ezarri zuten 'itzaleko ordainsarien'  
sistemara jota, frogatuta gelditu baita finantziazio-eredu hori ez dela era-  
ginkorra eta egoista eta oso garestia dela gainera; izan ere, azkeneko urtee-  
tan finantzatu ziren obren benetako gastuaren hirukoitza ere kobratu da ka-  
nonen bitartez.

### **LOGISTIKA**

Nafarroako Estrategia Logistikoa ezar dadin bultzatzea, arreta berezia eskai-  
nita Iruñeko (Noain-Imarkoain) eta Tuterako (Castejon-Nekazaritzako Elika-  
gaien Hiria) eremu intermodalak garatzeari, dagokion elkarlana faboratuz  
ADIFekin eta Sustapen Ministerioarekin.

Garraio-sektorearekin ere lan egin beharko da, haren jardueraren garapena  
bermatzeko beharrezko laguntasun-neurriak adosteko.

### **BIDAIARIEN HIRIARTEKO GARRAIOA**

Legealdi honetan, hiriarteko garraioko zonakako emakida berrien mapa osatu  
da, baina egin diren aldaketek ia zona guztien kexak eragin dituzte. Herrita-  
rren beharrak aseko dituzten eta Nafarroako zerbitzu publiko nagusiekin, lan-  
tokiekin eta ikastetxeekin konektatzeko aukera emango duten aldaketak eta  
hobekuntzak egiteko aukera aztertu behar da..

Bidaiarien eskualde-garraioa bultzatzen jarraitzea, era horretako garraiobi-  
derik ez duten udalerrietako biztanleen mugikortasuna erraztuko duten sis-  
temak ezarrita. Udalerri batzuetan dagoeneko egiten den bezala, orokortu  
egin behar dira konexioak errazteko taxi bidezko joan-etorriak, zeinak diruz  
lagunduko baititu Administrazioak.

Era berean, aztertu behar da ea egokitzapenik behar duen Nafarroako Ga-  
rraioko Plan Integralak, izaera komunitarioko garraia ahalik eta baldintzarik  
onenetan erabiltzen dela bermatzeko.









4.

**PROPOSAMEN  
POLITIKO-INSTITUZIONALA  
ETA AUTOGOBERNUA**



## **GEROA BAI KOALIZIOAREN EKINTZA POLITIKO-INSTITUZIONALAREN OINARRIAK**


- GEROA BAIren ustez, herritarren borondate demokratikoan oinarritzen dena da ordena politiko legitimo bakarra. Zorrotz bazterten ditugu inposizioa, hertsapena, bazterkeria edo bestelako edozein indarkeria-modu.
- GEROA BAIk Nafarroako herritarrak jotzen ditu subjektu politikotzat. Gauza huts bihurtuko ez den Nafarroa bat nahi dugu, eta ez dadila inoiz izan herritarrei inposatutako objektu politiko esentzialista, baizik eta haiek askatasunez adierazitako nahiaren emaitza. Horregatik, modu demokratikoan adierazitako proposamen oro ezin da aldendu gizartearen eztabaidatik eta herritarren nahiaren erabaki asketik, eta ezin du muga gaindiezinik izan iraganeko edo gaurko egitura politiko-instituzionalean.
- GEROA BAIk baldintzarik gabeko gaitasun eratzaileria eta erregimen politiko propioa askatasunez ezartzeko eskubidea aitortzen dizkie Nafarroako herritarrei. Halaber, Espainiako estatuarekin maila berean jarriz, bien arteko harremana nolakoa izango den negoziatzeko eskubidea ere aitortzen die herritarrei, hala Estatuaren eta Nafarroaren arteko aldebikotasun politikoa eratzeko.
- Herritarrak jardun politiko guztian inplika daitezten defendatzen du GEROA BAIk, eta bizitza publikoan herritarren parte-hartzea zaintzeko eta sustatzeko konpromisoa hartzen du.
- GEROA BAIk Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoa osorik betetzea galdegiten du, eskumenen transferentziari dagokionez. Berrogei urte hauetan ikusi dugu Estatuko Oinarritzko Legeriak eta epai konstituzional oso zalantzarriek gure ordenamendu juridikoko alderdi garrantzitsuak husten joan direla; oraindik, gainera, ordenamendu horretan, eskumen garrantzitsuak daude transferitzeko, adibidez, I+G+Brena, bekei dagokiona eta Gizarte Segurantzako Araubide Ekonomikoarena.
- GEROA BAIk proposatzen du gure ordenamendu juridikoa eguneratuko duen nafarren arteko itun politiko berri bat eraikitzea, inortxo ere baztertu gabe, adostasunetik abiatuta eta herritarren berrespenarekin. Nafarroako herritar guztien ondare immateriala da autogobernua, eta horrek izan behar du GEROA BAIk planteatzen duen eta gure ongizate-estatu bermatzea helburutzat duen itun politiko berri hori elkarrekin landuko den ardatza.
- GEROA BAIk Nafarroako gizartearen kohesio-elementurik garrantzitsuenetakotzat jotzen du gure foraltasuna. Foraltasunean oinarritu

behar dute gaur egungo Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoa erreformatuko duen Itun Politiko berria eraikitzeko zimenduek. Nafarroako eragile sozio-politiko desberdinen arteko itun bat, inor baztertuko ez duena, eta nafarren arteko bizikidetzarako esparru berria ekarriko diguna.

- GEROA BAI bat egiten du Ez inposatu – Ez galarazi printzipioarekin; printzipio horri jarraikiz, uko egin beharko zaio batzuk besteen gainetik inposatzeari, bai eta beste alde deseroso sentiarazten duen status quo bat gainditzea galarazteari ere.
- GEROA BAI Nafarroako gizarte osoari proposatu eta helarazi nahi zaion kultura politiko berri baten adierazpidea da. Kultura politiko berri hori Nafarroako gizartearen aniztasunaren aitortzan, desberdinarekiko eta/edo iritzi desberdina duenarekiko errespetuan eta zeharkakotasunean oinarritzen da, eta zeharkakotasuna guretzat bakoitzak defendatzen duen nafartasuna errespetatzea eta ulertzea dakarren ardatz politikoa da. Hau da, nafartasuna sentitzeko eta bizi izateko modu desberdinak existitu daitezela aldi berean, modu naturalean eta ez antagonikoan.
- GEROA BAI funtsezkotzat aitortzen du gizakiaren duintasuna. Horregatik, "Inor atzean utzi gabe" da gure leloa, zeina berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioetan oinarrituta baitago, pertsona guztien inklusioa bermatzeko –batez ere egoera zaurgarrienetan daudenena– eta gizarte-arrakalak murrizteko. Forua pertsonen zerbitzura jartzea. Hori da helburua.
- Nafarroarako politikan diseinatu eta proposatzean, iraultza digitaletik eratorritako aldaketa sakonak kontuan hartzeko konpromisoa hartzen du GEROA BAI; aldaketa horien artean, nabarmentzekoak dira aldaketa demografikoak eta sozialak, eraldaketa ekonomiko eta teknologikoak, eta beste energia-eredu bateranzko ezinbesteko trantsizioa. 1960-1970eko hamarkadan Nafarroak bizi izan zuen industria-eraldaketaaren parekoa den hau bideratzeko aukera dugu, eta, gainera, eginkizun hori modu adimentsuan eta integratzailean egiteko aukera eta erantzukizuna.
- Gainerako Foru Lurraldeekin historikoki izan duen kolaborazioarekin jarraitzearen alde egiten du GEROA BAI, Nafarroaren berezitasuna eta bi erkidegoetan dauden lau Foru Lurraldeen Aldebikotasunerako gaitasuna babesteko. Halaber, erkidego bientzat interesekoak diren gaietan koordinatzeko eta jarduteko tresna gisa balioko duten harreman-esparru egonkorak sortzea proposatzen du; hor ditugu, besteak beste,

autogobernua, Foru Sistema Fiskala (Hitzarmena/Kontzertua), hizkuntza eta kultura, eskubide sozialak eta garapen ekonomikoa.

- GEROA BAIk uste du kulturek administrazio-mugak gainditzen dituztela eta, horretan oinarrituta, aitortzen du Nafarroa, duen identitate historiko, kultural eta linguistikoagatik, berezko euskal komunitateko lurraldea dela, bai eta beste komunitate batzuetakoa ere.
- Nafarroak Europar Batasuneko erakundeetan parte har dezan defendatzen du GEROA BAIk; parte-hartze horren helburua izango da Europa demokratiko eta sozial bat eraikitzea, kontinenteko herri guztien parte-hartzean oinarrituta eta herritar guztien ongizatearen zerbitzura jarriko diren politika ekonomikoekin. Esparru berriak aprobetxatuta – Euroeskualdea kasu–, Nafarroa Beherearekin ditugun loturak indartzea eta Europar Batasunean gure interesak defendatzen utziko digun Europa bat, kulturaren eta historiaren aldetik hurbileneakoak ditugun bizilagunekin kolaboratzeko aukera emango diguna.







CHAT  
BIRCH

20:40



5.

# **POLITIKA FISKALA ETA FINANTZARIOA**

## ARDATZAK

Indartu egin behar da Hitzarmen Ekonomikoa, Nafarroako autogobernuaren funtsezko elementua baita. Are gehiago UPNk eta PSNk Foru Parlamentuak egozpen-indizea aplikatzeko zuen gaitasuna kendu duten legealdi batean; gure autogobernuaren eta Nafarroako herritarren interesen aurkako eraso ulergaitza izan da. Hitzarmen Ekonomikoak guztiontzat dakarren arriskuaren aurrean, beharrezkoa da Nafarroaren eta Estatuaren arteko koordinazioa eta, horretarako, ezinbestekoa dira lankidetzak eta elkarrekiko leialtasuna; eta Nafarroako Parlamentuari erabaki-esparru hori kentzea konpondu beharreko atzerapausoa da.

Autogobernua sakonki jardunez bakarrik lortuko baitugu aurrera egitea Foru Komunitatearen finantza-nahikotasuna bermatuko duen politika fiskal bidezko, zuzen, progresibo eta eraginkor bat lortzeko bidean. Kudeaketa arduratsu eta zorrotz batean oinarriturik, gizarteari eta enpresa-sareari konfiantza eta egonkortasuna emango dizkiena. Eta, azkenik, Gobernu on ororen nahi nagusia beteko duena: pertsonen zerbitzura egotea, zerbitzu publiko duinak eskaintzen eta aberastasuna sortzen zein birbanatzen dakien ongizate-estatu baten bitartez, bizitza-maila altua bermatuz herritar guztiontzat.

## AUTOGOBERNU EKONOMIKO-FINANTZARIOA INDARTZEA

- Nafarroaren eta Estatuaren arteko Hitzarmen Ekonomikoa eguneratzea, hitzartutako zergetan autonomia-maila handiagoak lortzeko. Behin betikoz onartu behar da Nafarroak eskumena duela Estatuarekin aurrez hitzartu ez dituen gaietan zuzeneko eta zeharkako zerga propioak arautzeko.
- "Foru Komunitateak bereganatu gabeko Estatuaren kargeri" buruzko 54. artikulua aldatu beharra dagoela nabarmentzea; artikuluko horren c) puntuan ezartzen da era horretako kargatzat jotzen direla "Estatuaren zor guztien interesak eta amortizazio-kuotak". Onartezina da Nafarroak zor batzuen itzulketa bere gain hartu behar izatea, zor horiek sortzeko erabakietan parte hartu ez duenean.
- Nafarroako Foru Ogasuna Europar Batasuneko Ekonomia eta Finantza Gaietarako Kontseilura (ECOFIN) modu independentean sar dadin eskatzea.
- Arlo ekonomiko-finantzarioan Nafarroari dagozkion eta egiteke dauden transferentziak erreklamatzeko.

## **PERTSONEN, GIZARTE-KOHESIOAREN ETA EKONOMIA BERDEAREN ZERBITZURA EGONGO DEN FISKALITATEA**

Jarduera ekonomikoa, berrikuntza eta kalitatezko enplegua sustatuko dituen araudi fiskala bultzatzea:

- Nafarroako Foru Komunitatearen zerga-sistema etengabe garatzea eta eguneratzea, ongizate-estatura zaintzeko –sektore produktiboaren beharrei erantzunez, kalitatezko enpleguari eusteko edo sortzeko– eta, babes sozial modura, administrazio publikoaren finantza-nahikotasuna bermatzeko.
- Dagozkion zerga- eta sustapen-tresnen bitartez, inbertsioen erakarpenera sustatzea, gaur egungo jarduerari eusteko zein beste eginkizun batzuk bultzatzeko.
- Ekonomia zirkularrean oinarritutako sistema bat eta iturri berriztagarrietan oinarritutako energia sortzeko sistemak bultzatzeko neurri fiskalak ezartzen jarraitzea eraman behar gaitu trantsizio ekologikoak.
- Berriki ezarri den fiskalitate digitala garatzea, haren helburuak bete daitezen bermatzeko, arreta berezia eta aurrez aurrekoa eskainiz laguntza publikoaren behar handiena duten biztanle-sektoreei.

## **GASTUAREN KONTROLA, KUDEAKETA ARDURATSUA ETA GARDENTASUNA ONGIZATE-ESTATUA MANTENTZEKO**

Baliabide publikoen politika orekatu, garden eta arduratsua garatzea, gastu arrunta etengabe kontrolatuz:

- Zerbitzu eta politika publikoak planifikatzea, dinamika eraginkorrak sortuko dituzten Aurrekontu Estrategiko batzuen bitartez. Ezin da onartu kudeaketa-unitate estankorik, ezta gastu gehiago ekarriko dituen egituren eta eginkizunen bikoizketarik ere. Ikuspegi orokorra kontuan harturik ulertu behar dira Nafarroako Aurrekontuak.
- Kudeaketa ekonomiko-finantzarioko mekanismoak eta sistemak berrikustea. Gastu publikoa kontrolatzea, eraginkortasunaren mesedetan, ikuspegi finantzariotik sektore publikoaren jasangarritasuna lortzeko.
- Kalitatezko enplegua sortzea eta maila guztietan gizarte-politika jasangarriak



## **POLITIKA FISKALA ETA FINANTZARIOA**

bultzatzea bilatuko duen aurrekontu-politika bat garatzea, herritarrak erdigunean jarriko dituen.

- Gardentasun ekonomiko-finantzarioaren politika indartzea, kontu irekien bitartez, eta sektore publikoa osatzen duten erakunde guztien kontu publikoak ematea.
- Kudeaketa eraginkorreko eredu bat ezartzeko eginkizunean aurrera egitea, Nafarroako Foru Erkidegoko administrazio publikoaren jardura ekonomikoak legezko xedapenak bete ditzan bermatuz.
- Nafarroako Foru Erkidegoko sektore publikoan aplika daitezkeen konbergentzia teknologikorako proiektuetan sakontzea, lehiakortasuna eta herritarrei zuzendutako zerbitzu publikoa hobetzen lagunduko duten barne-prozesuak hobetuta.
- Gastu arrunta aztertzeke eta baloratzeko neurriak bultzatzea, ematen diren ondasun eta zerbitzuak eraginkorragoak eta kalitatezkoak izan daitezen. Agertoki aldakorretara egokitzeko malgutasuna.
- Berrikuntzaren erosketa publikoa sustatzea, gizartearen beharrei erantzun malguak eta berritzaileak emateko gai den tresna gisa.

## **IRUZUR FISKALAREN ETA EZKUTUKO EKONOMIAREN AURKAKO BORROKA BULTZATZEA**

- Iruzur Fiskalaren Aurka Borrokatzeke Plan berria bultzatzea, Estatuko eta Europako gainerako ogasunekin lankidetzan eta haiekin koordinatuta.

- Kutxa erregistratzaileak kontrolatzeko sistema bat ezartzea (Euskal Autonomia Erkidegoko Ticket Bai sistemaren antzekoa).
- Erakunde artean informazioa trukatzeko sistemak optimizatzea, iruzur fiskala kontrolatzeko, haren jarraipena egiteko eta zigortzeko jarduketan eraginkortasuna areagotzeko.
- Dauden zerga-legeak etengabe berrikustea eta eguneratzea, errazagoa izan dadin Iruzur Fiskalaren aurka Borrokatzeko Planean aurreikusten diren helburuak lortzea.
- Norbanakoaren etika bultzatzea, etika kolektiboa eraikitzeko, haien zerga-obligazioak betetzen ez dituzten pertsonen eta enpresen aurkako jarduketak areagotuz.
- Aldaketaren Legealdian abian jarritako zerga-hezkuntza eta herritarren kontzientziazio fiskala bultzatzen jarraitzea, belaunaldi gazteenekin hasita, zergak ongizate-estatua mantentzeko funtsezko elementu gisa ikus ditzaten.







6.

# **POLITIKA SOZIALAK**

GEROA BAIk bat egiten du Garapen Jasangarrirako 2030erako Agendarekin, eta agenda horrek bost ardatzen inguruan proposatzen dituen helburuekin; planeta, pertsonak, oparotasuna, bakea eta aliantzak dira ardatzok. Agenda hori betetzeak gizarte- eta ingurumen-eredua eta garapen ekonomikoko eredu eraldatzeko eta eredu jasangarri, bidezko eta inklusiboa lortzeko balioko duela sinetsirik egiten du bat koalizioak Agendarekin.

Abiapuntu horretatik, eta horrekin batera, gure erkidegoan ongizate-estatua mantentzearen eta hobetzearen aldeko apustua egiten du GEROA BAIk, gurekin bat datozen zuzentasunaren, elkartasunaren eta justizia birbanatzailearen printzipioetan oinarrituta.

Arnasa luzeko helburu hori lortzeko, beharrezkoa da Gobernu osoak parte hartzea, gizarte-kohesioa eta pertsona guztien aukera-berdintasuna lehenets daitezen era guztietako politiketan, beste edozein interesen gainetik.

## 1. PRINTZPIOAK ETA EZAUGARRIAK

Geroa Bai koalizioarentzat, honako hauek dira gizarte-politiken oinarri diren printzipioak: **UNIBERTSALTASUNA**, pertsona guztiek sistemaren prestazioak jasotzeko duten eskubide gisa ulertuta, edozein dela ere haien jatorria, kultura, etnia, hizkuntza, adina, sexua, etab., bai eta haien egoera legal eta administratiboa ere; sistema gero eta **GARANTISTAGOA** egitea; **DESZENTRALIZAZIOA**; **ZERBITZUEN LEHENTASUNA** laguntza ekonomikoen gainetik; eta etengabeko **EBALUAZIOA**. Gainera, **GENERO-IKUSPEGIAK** sistema zeharkatu eta ezaugarrituko duen ardatza izan behar du.

Gizarte Zerbitzuak ongizate-estatuaren laugarren oinarria izanik –Osasunarekin, Hezkuntzarekin eta Pentsioekin batera–, guztiz eskuragarriak izan behar dute prestazio guztiek. Beraz, beharrezkoa da **ORDAINKETA PARTEKATUA** arautzea, haren aplikazioa ondo mugatuz eta kontuan hartuz bi muga gaindiezin daudela:

- Inor ezin da zerbitzurik gabe gelditu baliabiderik ez izateagatik.
- Inork ez du zerbitzu gehiago jasoko diru edo ondasun gehiago izateagatik.

Ondorioz, epe ertainera, egoitza-prestazioetarako soilik baliatuko da ordainketa partekatua, betiere salbuetsita egongo direlarik prestazio horien ar-



tean gizarte-bazterkeriaren arlokoak.

Azkenik, Geroa Baik uste du Gizarte Zerbitzuen kudeaketak publikoa izan behar duela ahal den heinean, irizpide hauei jarraituz:

- Zerbitzu publikoak defendatzea eta sustatzea, beharrezkoak diren guztien sorrera bultzatuz eta ahal diren guztiak arlo publikora itzuliz.
- Ez pribatizatzea administrazioak orain ematen duen zerbitzurik.
- Zerbitzuak ematen dituen ekimen pribatuaren parte-hartzea ondo antolatzea plangintzaren maila guztietan, erabakiak hartzeko aukeratik kanpo utziz, hitzarmenean irabazi asmoa pixkanaka kenduz eta ekimen soziala eta gizarte-ekonomiako enpresak lehenetsiz merkataritzako enpresen aurrean.

Aipatutako printzipioetan oinarrituta, eta gizarte-zerbitzuen sistema osoa kontuan harturik, neurri hauek planteatzen ditugu:

**Neurriak:**

- Abenduaren 14ko 15/2006 Foru Legea berrikustea eta eguneratzea.
- Gizarte Zerbitzuen Zorro orokorra eguneratzea, prestazioak eta zerbitzuak behar sozial berrietara egokitzeko eta bermatutakoak gehitzeko.
- Gizarte-zerbitzuetan plangintza estrategikoa berritzea, Gizarte Zerbitzuen 2019-2023 aldirako Plan Estrategikoaren garapenaren ebaluazioa egin ondoren.
- Hirugarren Sektoreari buruzko Lege bat egitea.
- Ikuskapenak areagotzea, pribatizatutako Zerbitzu guztien gaineko kontrola indartuz.
- Familia-errenta estandarizatzeko sistema baten egokitasuna aztertzea eta, hala badagokio, onartzea.

**2. GIZARTE ERREALITATEAREN BEHATOKIA**

Behatokiari eustea proposatzen dugu, tresna egokia izaten jarraitzen baitu barne-informazioa biltzeko eta gizarte-politikak planifikatzen eta diseinatzen lagunduko duten azterketak eta analisiak egiteko, politika horiek ahalik eta egokienak eta eraginkorrenak izan daitezen.

### 3. OINARRIZKO LAGUNTZA

Gizarte Zerbitzuen sistemaren funtsezko maila horri bultzada handia ematea proposatzen dugu, hurbileko gizarte-zerbitzuak indartzeko, gaur egun Nafarroako herritarrek behar duten oinarrizko laguntzarako eredia garatuz.

#### Neurriak:

- Oinarrizko Laguntza estrategikoki eta operatiboki birdefinitzeko hasitako prozesua garatzea, zeina "Nafarroako Gizarte Zerbitzuen Oinarrizko Laguntzari buruzko Esparru-agiria. 2019ko uztaila" agirian jasota baitago.
- Gizarte Zerbitzuetako zentro guztien ezarpena Iruñekoarekin osatzea.
- Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek migratzaileen arloan duten parte-hartzea indartzea haiei berariaz dagozkien gaitan: harrera, migrazio-dolua, familiak elkartzea... Eta, aldi berean, desgaitasunak dituzten pertsonen arloan duten parte-hartzea ere indartzea.
- Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek maila komunitarioan gehiago esku har dezaten eta proiektu komunitarioak sortzen gehiago parte har dezaten bultzatzea, betiere biztanle-sektore askotarikoak kontuan hartuz (gehienbat haurrak eta adinekoak).
- Historia Sozial Bakarra martxan jartzea.

### 4. GIZARTE-INKLUSIOA

Pobreziaren aurkako eta gizarte-inklusioaren aldeko estrategiek jardun politikoaren erdigunean egon behar dute. Ez dago gizarte-zerbitzuetako sistemaren esku hori benetan horrela izan dadin ziurtatzea; Gobernu osoaren erantzukizuna da.

Gizarte-zerbitzuetako sistemarekin batera, badaude desberdinkeriak murrizteko eta aukera-berdintasuna sustatzeko –guztiak ere inklusioko estrategien helburu nagusiak– funtsezkoak diren beste sistema batzuk ere, hala nola hezkuntza-sistema, enplegu-sistema eta etxebizitza-sistema, bai eta zeharkako beste gai batzuk ere; adibidez, kultura-aniztasuna, genero-ikuspegia eta fiskalitatea.

## JARDUKETA OROKORRAK

Lehenik eta behin, Geroa Baik bat egiten du beste behin Parlamentuko talde politikoen eta Gizarte-erakundeen Plataformak onartutako "Pobreziaren eta desberdinkeraren aurkako 2021-2030 aldirako itun"arekin, eta hura betetzeko konpromisoa hartzen du.

Bestalde, gizarte-inklusioko eta errenta bermaturako eskubideak –orain Bizitzeko Gutxieneko Diru Sarreraren kudeaketarekin batera– arautzen dituen azaroaren 11ko 15/2016 Foru Legea eta inklusio-eskubidea gauzatzen duen Nafarroako 2018-2021 aldirako Inklusio Plana dira orain arte Nafarroak izan dituen oinarriak gizarte-inklusioko politikak gauzatzeko. "Nafarroako ijitoen garapenerako estrategia" (2019 – 2022) gehitu dakieke aurrez aipatutako horiei. Arlo honetan, neurri hauek proposatzen ditugu:

### Neurriak:

- Dagokion ebaluazioa egin ondoren, Gizarte-inklusioko Plan Estrategiko berria egitea. Plan horrek pertsonak, taldeak eta komunitateak gizarte-inklusioko duten eskubidea bermatuko duten jarduketak eta neurriak finkatuko ditu. Eskubide Sozialen Departamentuak izango du planaren lidergoa, eta enfasi berezia jarriko zaio Gobernuako departamentu guztiak inplikatzeari plana egiteko eta garatzeko.
- Ijitoen garapenerako estrategia berria prestatzea.

## DIRU-SARREREN BERMEA

Geroa Baik, 2019an egin zuen bezala, Errenta Bermatuaren eredia finkatzeko konpromisoa hartzen du, eta tresnak babes sozialerako duen gaitasuna baliatuko du.

### Neurriak:

- Legeak gizarte-inklusioko ezartzen duen eskubidea erabat garatzea.
- Enplegua suspertzeari dagokionez Legean aurreikusten dena betetzea: lanetik datozen diru-sarreraren zati baten zenbaketan kenkariak aplikatzea –betiere prestazioa eskatu aurreko diru-sarrerari dagokienez–, eta ozta-ozta Errenta Bermatuaren atalasearen gainetik dauden soldatiko langileen lanaren errentei kenkari fiskalak aplikatzeko neurriak.

- Prestazio horrek kudeaketa Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarrerarekin harmonizatzea, beharrezkoa balitz araua aldatuz, haren estaldura edo kantitatea handitzeko, eta kudeaketa bera eraginkorragoa egiteko, baina ez gure gutxieneko errentak eskaintzen duen babesa murrizteko.

### **GIZARTE-INKLUSIOA, ENPLEGUAREN BITARTEZ**

Nahiz gaur egun lan ordaindua ez den gizarte-inklusionarako elementu bakarra —agerikoa baita enpleguaren nagusitasuna galtzen ari dela lan-merkatuaren prekarizazio-esparruan—, enpleguak gizarte-inklusionarako funtsezko faktorea izaten jarraitzen du: diru-sarrerez gain, identitatea eta harreman sozialak ere badakartza, besteak beste.

#### **Neurriak:**

- Aktibazio-programak gizartean baztertuak dauden, bazterketa-arriskuan dauden edo zaurgarriagoak diren pertsonentzat egokitzea.
- Aktibazio-politikak –enplegua-zerbitzu sozialak– kudeatzeko eredu integratu bat bultzatzea, orain abian den AUNA proiektuaren edo beste edozein tresnaren bitartez.
- Lan-merkatuan sartzeko espazioak gehiago bultzatzea, lan-aurreko eremuan: Zentro Berezi edo Lanean eta Gizartean Txertatzeko Enpresa gehiagoren sorrera bultzatzea, behar bezala finantzatuz, inbertsioen alderdia barne.
- Kontratazio publikoan klausula sozialak bete daitezen eskatzea, Kontratuen Foru Legeari jarraikiz, eta kontratazio pribatuan, berriz, klausula horiek sustatzea.
- Tailer-eskolak bultzatzea eta indartzea.
- Prestakuntza eta Enplegurako Programa Integratuak bultzatzea eta indartzea, baita profesionaltasun-ziurtagiriak lortzeko prestakuntza-ekintzak ere.
- Enplegu Sozial Babestua bultzatzea eta indartzea.

### **GIZARTERATZEA**

Gizarte-bazterketak kausa ugari ditu, neurri handi batean sistema ekonomiko eta produktiboari egotz dakizkiokeenak, eta dimentsio ugari ere bai, bazterketa jasaten duten pertsona eta taldeetan; beraz, guztiak izan behar dira kon-

tuan inklusio-politiketan.

**Neurriak:**

- Gizarteratzeko laguntza modu integratuan egituratzea, arlo horretan esku hartzen duten zerbitzuak eta bakoitzak garatzen dituen eginkizunak antolatuz: ahal dela, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak, haien Gizarteratzeko Programan edo Enplegu Sozial Babestuko proiektuetan, Gizarte Zerbitzuetako Zentroak (lanean eta gizartean txertatzeko dituzten lantaldeen bitartez), eta hirugarren sektoreko erakundeak.
- Arlo okupazionalako zentroak edo baliabideak sortzen laguntzea.

**ETXEBIZITZA**

Jakinik etxebizitza faktore erabakigarria dela bazterketa- eta inklusio-prozesuetan, aurrera egin behar da etxebizitza-politikaren eta gizarte-zerbitzuen politikaren arteko lotura eta koordinazioa hobetzeko.

**Neurriak:**

- DaVid eta EmanZipa programetan etxebizitzarako eskubide subjektiboa aitortzen duen legea hobetzen jarraitzea.
- Gizarteratzeko "Etxebizitza Programa" indartzea, batez ere alokairuko etxebizitzari dagokionez.
- Etxebizitzaren Arloko Gizarteratze Taldearen (EGT-EISOVI) jarduna bultzatzea.
- Alokairuko etxebizitza gehiago eskuratzea etxegabeen arretarako Housing First programara bideratzeko.
- Gizartean baztertuta dauden pertsonen egoitza-arreta emateko Zerbitzuko leku-kopurua handitzea, itxarote-zerrendarik egon ez dadin.
- Jende-pilaketari aurre egiteko neurriak hartzea.

**5. KULTURA-ANIZTASUNA**

Uste dugu Nafarroak sozietate inklusibo bat eraikitzen bideratutako konpromiso arduratsua izan behar duela. Giza eskubideak ukatzen zaizkien egoeretatik, jazarpen- eta gerra-egoeretatik ihesi eta bizitza-proiektu bat garatu ahal izateko gure erkidegora datozen pertsonen eskubideak defendatuko dituen gizartea. Beraz, garrantzitsua iruditzen zaigu aintzat hartzea Nafarroako



gizartean dauden errealitate askotarikoak, eta, beraz, zerbitzu eta prestazio publiko guztiak egokitzea denek izan dezaten zerbitzuok erabiltzeko aukera, bertakoek zein atzerrikoek; garrantzitsua da orobat migrazio-prozesuaren ondorioz berariaz migratzaileei eragiten dieten zailtasunak konpontzeko zerbitzuak sortzea edo mantentzea.

**Neurriak:**

- Eskatzen duten pertsona edo talde guztiei ematea atzerritarrekin lotutako gaiei buruzko informazioa eta aholkularitza juridikoa.
- Familiaren babesik ez duten eta zaurgarritasun-egoeran dauden 18 eta 23 urte bitarteko gazte migratzaileei zuzendutako gizarte- eta hezkuntza-arretako zerbitzuak eta programak finkatzea, guztiak egituratuz, pertsona horiek beharrezko tresnak izan ditzaten bizitzari modu autonomoan aurre egiteko eta gure gizartean parte hartzeko.
- Gizarte-laguntzako eta aholkularitzako prozesuetara bideratutako proiektuak indartzea migratzaile heldu eta adingabeentzat
- Errefuxiatuei harrera egiteko programa indartzea, haien eskura jarritz zerbitzu sozialak, hezkuntza-, osasun-, prestakuntza- eta etxebizitza-zerbitzuak eta beharrezkoak diren gainerakoak.
- Kultura Arteko Bitartekaritza Komunitarioko Zerbitzua finkatzea migratu duten pertsonentzat.

**6. 6.MENDEKOTASUNAREN ARRETA**

Lehentasuna eman behar zaie mendekotasunaren arretarako politikari, baina, une honetan, pertsonen autonomia sustatu eta mendekotasuna prebenituko duten jarduerari eman behar zaie garrantzia batez ere. Politika horien guztien helburua izango da pertsonak haien etxeetan eta ingurunean ahalik eta luza-roen bizi daitezen ahalbidetzea, haiek hala nahi badute behintzat.

**Neurriak:**

- Autonomia Pertsonala eta Mendekotasunaren Arreta Sustatzeko Nafarroako Lege bat egiteak izan dezakeen interesa aztertzea eta, hala badagokio, lege hori egitea.
- Egoera ekonomiko aldakorrak gorabehera, prestazioen eta zerbitzuen maila ziurtatzea.

- Zerbitzuen ordainketa partekatua birpentsatzea eta berreratzea, batez ere egoitzena.
- Prestazioak eta arretak lurralde osoan homogeneizatzea.
- Beren etxeetan bizi diren pertsonen zuzenduta dauden zerbitzu guztiak indartzea (Etxeko Laguntza Zerbitzuak, Eguneko Zentroak eta beste batzuk) eta haien artean bateragarri izan daitezen lortzea, pertsonenganako arretaren eta zainketen jarraitutasuna bermatzeko eta, hala, beren etxeetan bizitzen jarraitzeko helburua betetzeko.
- Etxeko Laguntza Zerbitzuak indartzea, prestazioak handituz, arreta-orduak gehituz eta mendekotasunik ez duten pertsonen erabil ditzaten sustatuz, prebentzioko zerbitzuak baitira.
- Autonomia Pertsonala Sustatzeko Zerbitzuak bultzatzea.
- Prestazioak birbideratzea: Zerbitzu gero eta gehiago ematen jarraitzea, laguntza ekonomikoak murriz daitezen, eta laguntza horiek pertsonen arretarako eraginkorrak izan daitezen lortzea.
- Egoitzetako behar adina plaza hitzartzea, Zerbitzuarekin lotutako Prestazio ekonomikoa benetan ez-ohiko laguntza izan dadin.
- 2024an, egoitzetako plazak hitzartzeko esparru-hitzarmena berritzea, baldintzak hobetuta.
- Alderdiak adoretzea eta laguntzea, emaitza onak lortuz mendekotasunaren sektorearen Nafarroako lehendabiziko hitzarmenaren negoziazioak.

## 7. HAURRAK ETA NERABEAK

Arlo honetan, helburu nagusia da Nafarroako haur eta nerabe guztiei bermatzea Nazio Batuen Batzar Nagusiak 1989an onartutako Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenean aitortzen zaizkien eskubide guztiak. Haur eta nerabeei arreta eta babesa eman eta haien familiak, eskubideak eta berdintasuna sustatzeko maiatzaren 11ko 12/2022 Foru Legean jasotzen dira eskubideok Nafarroan.

### Neurriak:

- Nafarroako Erkidegoan Familiak, Haurrak eta Nerabeak Babesteko 2017-2023 aldirako II. Plan Integralaren azken zatia garatzea, planaren amaierako ebaluazioa egitea eta beste plan bat prestatzea.

## *POLITIKA SOZIALAK*

- Haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean erabat babesteko ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoak txertatu dituen aurrerapenak Nafarroara ekartzea, Foru Erkidegoak gai horretan dituen eskumenen arabera.
- Erregelamendu bidez garatzea haur eta nerabeei arreta eta babesa eman eta haien familiak, eskubideak eta berdintasuna sustatzeko maiatzaren 11ko 12/2022 Foru Legea.
- Promozioan, prebentzioan, arretan, prestakuntzan, babesean, birgizarteratzean, integrazioan eta aisialdian haurrei eta nerabeei zuzendutako jarduerak lehenesten dituzten erkidegoko tokiko erakundeekin hitzarmenak egin daitezzen bultzatzea.
- Haurren eta nerabeen Osasun Mentalaren inguruko Ekintza Plan bat garatzea, promozioa, prebentzioa, detekzio goiztiarra eta arreta jorratuko dituen, sektore askotariko ikuspegi komunitario eta psikosozial batetik.
- Kontingentzia-plan bat prestatzea, bidaiderik gabeko adingabe atzerritarrei arreta eta babesa ematea aurreikusiko duena, adingabe horiek ezustean iristen diren kasuetarako.
- Harremanetarako, Informaziorako eta Komunikaziorako Teknologiak erabiltzearen ondoriozko haurren eskubideak urratzeko modu berrien aurrean jarduteko arauak, protokoloak eta babeserako neurriak sortzea edo eguneratzea. Familiei eta nerabeei teknologia horiek behar bezala erabiltzeko tresnak eta laguntza ematea.
- Haurren eta nerabeen parte-hartzea bultzatzea, hainbat neurriren bitartez, hala nola haurren eta gazteen elkarleen sarea sustatzea, parte hartzeko organo egonkorak garatzea –Haurren eta Nerabeen Partaidetzarako Kontseiluak, kasurako– eta hezkuntza-komunitatea gai honen inguruan trebatzea.
- Inpaktua aztertu ondoren, ardurapeko seme-alaba bakoitzeko prestazio fiskal bat sortzea, itzul daitekeena eta PFEZ zergaren familientzako onura fiskalekin bateraezina izango dena, eta familien esku uztea bata edo bestea baliatzeko aukera.
- Ikasketa-arrazoiengatik etortzen diren atzerriko adingabeak urtean zehar hartzen dituzten familiei inguruabar hori ondore fiskaletarako kontuan hartzeko aukera aztertzea.
- Nafarroako aurrekontu orokorretan haurrei eta haien familiei bideratzen zaizkien zenbatekoei buruzko txosten bat egitea, arlo horretara bideratutako

aurrekontua handitzea edo mantentzea bermatzeko, Legeak agindu bezala.

- Ezartzen diren plan, lege eta beste politika guztiak haurrengan eta nerabeengan duten inpaktuari buruzko txostenak egitea.

## 8. DESGAITASUNA

Arlo honetan, gure helburua da desgaitasuna duten pertsonen bizimodu independentea izateko eta taldean integratuta egoteko duten eskubidea bermatzea, betiere haien aukeraren eta nahien arabera. Beraz, autonomia sustatzea, pixkanakako desinstituzionalizazioa eta irisgarritasun unibertsala ondasun, produktu, zerbitzu eta arlo guztietan: osasuna, hezkuntza, enplegua, etxebizitza, kultura, aisialdia, kirola, parte-hartzea... hau da, pertsonen bizitza garatzen den arlo guztietan. Horiek guztiak markatzen duten nondik-nora jo behar duten desgaitasunaren alorreko politikek Nafarroan.

### Neurriak:

- Nafarroan desgaitasuna dutenei arreta emateari eta haien eskubideak bermatzeari buruzko azaroaren 28ko 31/2022 Foru Legean aurreikusitako arauak garatzea
- Desgaitasunari buruzko 2019-2025 aldirako Nafarroako Plana garatzea eta ebaluatzea.
- Komunitate-, eskualde- zein udal-mailan, irisgarritasun unibertsalari buruzko planak eta estrategiak garatzea, tokiko erakundeei horiek egiteko eta garatzeko diru-laguntzak emanez, arreta berezia eskainiz landa-eremuei.
- Herritarrentzako arreta-telefonoen irisgarritasun unibertsala bermatzea eta, Estatu eta Europa mailan, 112 telefono-zenbakiaren irisgarritasun unibertsala lortzeko aurrerapenak egitea.
- Taxiak eta Garraiorako Ibilgailu Gidatuak egokitzeko laguntzak berreskuratzea, ibilgailu horiek eurotaxi edo egokitutako taxi bihurtzeko eta, hala, zerbitzu horiek eskaintzen dituzten ibilgailuak hobetzeko.
- Etxebizitzaren irisgarritasunerako diru-laguntzei eustea, eta etxebizitza-mota desberdinak sortzea: logela bakarrekoak, kolaboratiboak, "trantsiziokoak" (ohiko etxebizitza egokitzera behartzen duten bat-bateko desgaitasunen kasuan) eta domotikoak, desgaitasuna duten pertsonen beharretara egokituak.
- Hainbat neurri bultzatzea, hala nola laguntzarako produktuen erabilera; legez ezarritako % 2ko erreserba betetzea, zuzeneko kontratazioa lehenetsiz; eta

Laguntzadun Enplegua eta/edo Enpleguaren Arloko Laguntza sustatzea, desgaitasuna duten pertsonen enplegu arruntean jarduera-tasa hobetu dadin.

- Pixkanaka, Foru Administrazioako lanpostuen benetako eginkizunak definitzea, eta banan-bana baloratzea lanpostu horiek eskuratu nahi dituzten pertsonen desgaitasuna, aldez aurretik jakin dezaten zein den beren aukeraren bideragarritasuna.
- Autonomia Pertsonala Sustatzeko Zerbitzuak sor daitezen sustatzea.
- Hezkuntza-sistemari behar adina baliabide egoki ematea, desgaitasuna duten pertsona guztiek goza dezaten hezkuntza inklusiboa eta kalitatezkoa izateko eskubideaz hezkuntzaren etapa guztietan (derrigorrezkoak diren zein ez diren etapetan).
- Hezkuntzan, aniztasunari erantzuteko Plan Estrategiko bat egin eta martxan jartzea.
- Buruko nahasmenduak dituzten pertsonen zuzendutako egoitzako, enpleguko, errehabilitazio psikosozialeko eta bestelako zerbitzuen eredu bat bultzatzea, haien autonomia, bizimodu independentea eta taldeko integrazioa sustatuko duena eta jasaten duten estigmatorekin amaitzen lagunduko duena.
- Desgaitasuna duten pertsonen laguntza emateko Nafarroako fundazio publikoa" berrantolatzea, hura egituratuz eta askotariko bitartekoak emanez, desgaitasuna duten pertsonen laguntzako dituen eginkizunak bermez bete ahal izan ditzan bere eremu juridikoaren jardunean (8/2021 Legea, ekainaren 2koa).

## **9. ADINEKO PERTSONAK**

Adineko pertsonen esparruan, adinkerari aurre egingo dioten eta herritarrak ahalik eta gaitasun funtzional handienarekin eta bizi-kalitate onenarekin zahartu daitezten sustatuko duten jarduketak egingo ditugu, ahalik eta luzeen egon daitezen aktibo eta ahalik eta luzeen euts diezaioten autonomiari eta independentziari.

### **Neurriak:**

- Zahartze Aktibo eta Osasungarrirako Nafarroako Estrategia berria prestatzea, 2022an amaitu zena ebaluatu ondoren.
- Komunitatean txertatuta egongo diren etxebizitzetan oinarritutako egoitza-



eredu berriak sustatzea; horixe da, esaterako, etxebizitza kolaboratiboen edo belaunaldi artekoen kasua.

- Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan, norbanakoak nahi ez duen bakardadea prebenitzeko eta egoera horien aurrean jarduteko programa bat ezartzea.
- Gizarte Zerbitzuek esperientzia komunitarioetan modu aktiboan parte har dezaten bultzatzea –Iruñeko adineko pertsonen aldeko Donibaneko Ituna kasu–, hiri osora eta Erkidegoko beste eremu batzuetara ere hedatzeko.
- Gizarte Segurantzako kudeaketa ekonomikoaren transferentzia gauzatu dezala eskatzea estatuari, Legean jasota dagoen bezala.

## 10. GARAPENERAKO LANKIDETZA

Geroa Bai sinetsita dago beste esparru batzuetan egiten diren gainerako politiken adinako balioa duela Garapenerako Lankidetzak. Horregatik, lankidetzako jarduketa eta proiektuetara ahalik eta baliabide tekniko eta ekonomiko gehien bideratzeko ahalegina egitea planteatzen dugu, Garapen Jasangarri-rako Nazio Batuen 2030 Agendaren helburuen esparruan.

### Neurriak:

- Lankidetzarako Nafarroako III. Plan Zuzentzailea (2021-2024) betetzea eta garatzea, haren betetze-maila eta emaitzak ebaluatzea, eta jarduketan beste plangintza bat egitea, Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundeen eskutik.
- Haur eta nerabeei arreta eta babesa eman eta haien familiak, eskubideak eta berdintasuna sustatzeko maiatzaren 11ko 12/2022 Foru Legean aurreikusitakoaren arabera, Garapenerako Lankidetzaren esparruan dirulaguntzak ematean, laguntzen hartzaile diren herrialdeetan haurren arretara eta babesera bideratutako proiektuak lehenetsiko dira.
- Trebatutako langile tekniko egonkorak jartzea organismo arduradunean.
- Eragile espezializatuak eta sustatzaileak diren aldetik, Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundeek lankidetz-politiketan modu eraginkorrean parte har dezaten bermatzea.
- Ekintza Humanitariora behar adinako baliabideak eta mekanismo egokiak bideratzea.
- Garapen Jasangarriko Politiken Koherentziarako Estrategia bat prestatzea eta ezartzea.

- Eraldaketa Sozialerako eta Herritartasun Globalerako Hezkuntza (ESHGH) sustatzea, estrategia bat eta eragileen arteko koordinaziorako tresnak onartuz.
- III. Plan Zuzentzailean adierazten den finantziazioa betetzea.

## **SAHARA**

Saharako herriak determinazio askerako duen eskubide besterenezina defendatzen du Geroa Baik. Beraz, eta Nazioarteko Legeiarekiko eta Nazio Batuen printzipioekiko errespetuan oinarriturik, koalizioak defendatzen du erreferendum bat egitea dela irtenbide bakarra sahararrek Marokoko Erreinuaren aldetik jasaten duten lurralde-okupazioaren aurrean.

## **PALESTINA**

Gatazka Nazio Batuen Erakundeak ebazpen ugariaren bitartez adierazitako parametroetan ebatzi behar dela defendatzen dugu. Nazioarteko legeria betetzeak berekin ekarri behar du bi estatu bideragarri ezartzea –palestinarra eta israeldarra–, herritarrek hala nahi badute, Israelen legez aurkako koloniak desegitea eta bake iraunkor baterako konpromiso serio eta egiaztagarriak hartzea.







7.

**OSASUNA**

Osasuna giza eskubide bat da, eta pertsonen eta taldeen bizitzarako funtsezko baliabidea, neurri handi batean gizarte-baldintzatzaileen eta pertsonak jaiotzen diren, bizi diren eta lan egiten duten baldintzen men-de dagoena. Pertsonen osasuna eta ongizatea helburu nagusitzat jarriko dituzten politika ausartekin egin behar zaie aurre COVIDaren pandemiaren ondorio sanitario, ekonomiko eta sozialek larriagotu eta areagotu dituzten desberdinkeria soziosanitarioei.

Osasun-sistemek behar bezala funtziona dezaten, ezinbestekoa da sistemok unibertsaltasun, ekitate, elkartasun, gardentasun, parte-hartze, kontu-emate, eraginkortasun, integritate, jardunbide egoki, etika eta erantzunkidetasuneko irizpideetan oinarrituta funtzionatzea; hau da, zerbitzu erresilienteak eta malguak ematea, gai izango direnak behar berrietara egokitzeko eta erantzun koordinatua emateko; Geroa Baik balio horiek guztiak bultzatu nahi ditu, Osasunaren Mundu Erakundearen gomendioei jarraikiz.

Osasun-sistema publikoa eta osasun-zerbitzuaren kalitatea sustatzera, mantentzera eta indartzera bideratuta egon behar do osasun-politikak, baliabide publikoen kudeaketa eraginkor batekin eta aurre eginez zerbitzuen azpikontratazioan eta pribatizatizazioan oinarritutako beste eredu batzuei.

2015-2019 legealdirako Programa Akordioaren ildo estrategikoei jarraituz, Gero Bairen gobernuak, Uxue Barkos lehendakari zuelarik, akordio haren helburuak bete zituen; beraz, zentzuzkoa dirudi 2023-2027 legealdirako Geroa Bairen hauteskunde-programa akordio hartan oinarritzea —betiere hura hobetuz eta eguneratuz, 2019an aurreko legealdia amaitu zenean betetzeke gelditu ziren neurriak txertatuz— Nafarroako Osasun Sistema Publikoa ahalik eta gehien indartzeko.

## **I. GEROA BAIKOALIZIOAREN OSASUN-POLITIKEN OINARRIAN DAUDEN PRINTZIPIOAK**

- **OSASUNAREN FORU LEGEA.** Osasunaren Foru Legea prestatzea eta tramitatzea, aurreikus daitezkeen erronka demografiko, epidemiologiko eta teknologikoei aurre egiteko, komunitatean osasuna sustatzeko eta osasun-arreta unibertsal, jasangarri, zuzen, erresiliente eta kalitatezkoa izateko eskubidea bermatzen jarraitzeko, baita etorkizuneko belaunaldiei ere, edozein dela ere haien egoera administratiboa, behar adinakoa, eraginkorra eta gardena izango den aurrekontu-politika baten aldeko apustua eginez.

Osasunbidea Nafarroako Osasun Zerbitzua Funtzio Publikoaren mende ez dagoen erakunde juridiko propio gisa definitu behar dela ere jasoko du legeak.

- **Lehen Mailako Arreta lehenestearen** aldeko apustu irmoa egitea, arreta hori baita osasun-sistemaren ardatza.
- **Osasun sistema publikoa defendatzeko** konpromisoa hartzea.
- Kudeaketa publikorako berreskuratzea gaur egun pribatizatuta dauden zerbitzuak.
- Baliabide publikoak optimizatzeko eta errentagarri egiteko neurriak ezartzea, erakunde pribatuekin dauden hitzarmenak eta deribazioak berrikusiz, sistema publikoaren osagarritasunaren eta subsidiarotasunaren printzipiotik..
- Osasunbidea Nafarroako Foru Erkidegoko Osasun Sistemaren eraginkortasuna hobetzeko helburuz, Osasun Sail Bakarrean eratuko da..
- Sistema desberdinekiko jardun koordinatua bultzatzeko konpromisoa: **osasuna politika guztietan**.
  - » Politika publiko guztiek osasunean duten inpaktua analizatzea, Nafarroako Gobernuaren lege-proiektu nagusien eta udal araudien inpaktuari buruzko txostenak sustatuz..
  - » Indarrean dauden planak berrikustea eta hobetzea (Osasun Plana, Kronikoen Plana, Osasun Mentalari buruzko Plana...), profesionalen parte-hartzea eta inplikazioa eta behar adinako finantziak bermatuz..
- **Farmazia-prestazioaren eraginkortasunaren** aldeko apustua egiten dugu, botikak zentzuz erabiltzeko kontrola eta botika generikoak agindu daitezen bultzatuz. Mugatu egingo da farmazia-industriak profesionalengan eta pazienteen elkarrekin duen interferentzia.
- Osasun-politika guztietan txertatuko dira **genero-ikuspegia** eta pertsonen **kultura aniztasunarekin** zerikusia duten berezko ezaugarri bereizgarriak.
- Ikerketaren eta irakaskuntzaren aldeko apustu irmoa, arlo horietara bideratzen den aurrekontua pixkanaka handitzen joateko konpromisoa hartuta.

## 2. OSASUN-SARE OSORAKO PROPOSAMENAK

### 2.1. GIZA BALIABIDEAK

- Osasunbidea Nafarroako Osasun Sistemaren plantilla dimentsionatzea, Lehen Mailako Arretako eta ospitaleetako plantillak berrorekatuz, eta kontratazio-eredu malguagoak ezarriz.

## OSASUNA

- Osasunaren arloko kudeatzaileak profesionalizatzearen aldeko apustua egitea.
- Osasunbidea kudeatzean eta erabakiak hartzean, parte-hartze sozialaren, sindikalaren eta profesionalaren aldeko apustua egitea.
- Laguntza-taldeen Kudeaketa Eredua aktibatzea
- Profesionalek parte hartzeko eta haiek inplikatzeko berariazko estrategia bat prestatzea.
- Sistema publikoko profesionalen erabateko arduraldia bultzatuko da.
- Profil profesionalen eskumenak eta atribuzioak arautu eta handituko dira (erizainak, erizaintzako zainketa osagarrietako teknikariak, zeladoreak...).
- Erizaintzan, Eskola Erizaintza garatuko da, eta handitu egingo da Kasuen Erizain Koordinatzailearen presentzia patologia jakin batzuetan: onkologian, bularreko minbizian, ginekologian, pediatrian, etxeko arretan eta batzordeetan.
- Psikologoaren presentzia Lehen Mailako Arretako zentro guztietan.
- Lehen Mailako Arretarako osasun-administrazioko langilearen figura sortuko da.
- Indartu egingo dira Gizarte Laneko plantillak eta lanbide soziosanitarioak.
- Enplegu publiko egonkorraren aldeko apustua, Enplegu Eskaintza Publikorako deialdien bitartez.
- Profesionalen irakaskuntzarako aurrekontu-zuzkidura.

## 2.2 BALIABIDE MATERIALAK

- Inbertsioetarako Plan Zuzentzaile bat prestatzea eta martxan jartzea, hauek jasoko dituenak: banakako logeletan ospitaleratzea, bi egun baino gehiagoko egonaldiak egin behar dituzten pazienteen % 50entzat;; Nafarroako Ospitale Unibertsitarioko Pediatriako Zainketa Intentsiboen Unitatearen kokapena eta instalazioak hobetzea; Nafarroako Ospitale Unibertsitarioko Ospitale Zaintzako Unitatea; eta Osasun Zentroak eta Unitate bereziak berrikustea, dauden hutsuneak zuzentzeko helburuz.
- Martxan dauden ospitaletako oheak optimizatzea.



### 2.3 OSASUN-GARRAIOA

- Osasun-garraioko zerbitzua berrantolatzea, arreta hobetzeko eta herritar guztiek zerbitzua erabiltzeko aukera izan dezaten bermatzeko.
- Osasun-garraioari buruzko Foru Dekretua garatzea
- Larrialdietako osasun-garraioa (Zainketa Intentsiboetako Unitate mugikorrak) internalizatzeko legezko aukerei berriro heltzea, eta osasun-garraioko enpresa publiko bat martxan jarri eta garatzea.

### 2.4 ARRETA SOZIOSANITARIOA ETA ESKU-HARTZE KOMUNITARIOA

- Osasun Kontseiluen ordean Osasuneko Tokiko Batzordeak ezartzea, haien osaera eta eginkizunak aldatuz eta eskumenak areagotuz.
- Oinarrizko eremu guztietan Arreta Soziosanitarioko Tokiko Batzordeak sortzea, udalekin eta tokiko erakundeekin esku-hartze komunitarioko politikak sustatu eta koordinatzeko.
- Sektore arteko esperientziak sustatuko dira, udalekin aliantzak ezarriz, osasuna prebenitzeko eta sustatzeko, parte-hartze sozialerako eta aisialdirako jarduerak eta programak ezartzeko, batez ere zahartze aktiborako eta gazteentzat bideratuak.
- Farmazia-bulegoekin lankidetzaren hitzarmenak ezarriko dira.
- Handitu eta eguneratu egingo da prestazio ortoprotesikoen katalogoa.
- Osasun-barrutiak ezartzea.
- Osasun- eta gizarte-politikak eta interbentzioak koordinatzea, gaitz kronikoen eta mendekotasunaren arretarako programa soziosanitarioen bitartez.
- Baliabide soziosanitarioak deszentralizatzea.
- Sistema desmedikalizatu dadin sustatzea, osasun-arazoei aurre egiteko erantzun ez-farmakologikoak dibertsifikatuz.

### 2.5 IRUDI KORPORATIBOA

- Foru Erkidegoko Ospitaleen izen berriak; aurrerantzean, honela deituko dira: Nafarroako Ospitale Unibertsitarioa, Tuterako Ospitalea eta Lizarrako Ospitalea.

- Nafarroako Ospitale Unibertsitarioko pabilioiei izena jartzea, erabiltzaileek errazago aurki ditzaten.
- Osasun-zentroetako barruko zein kanpoko seinaleak gaztelaniaz eta euskaraz jartzea, biak baitira Foru Erkidegoko berezko hizkuntzak.

## **2.6. HERRITARREN PARTE-HARTZEA**

- Nafarroako Osasun Kontseiluaren eginkizunak berrikustea, eta Osasuneko Tokiko Batzordeen eta Arreta Soziosanitarioko Batzordeen presentzia eta jarduna suspertzea oinarrizko osasun-eremuetan.
- Pazienteen elkarrekin etengabeko harremana izatea.
- Osasun-karpeta pertsonalaren erabilera bultzatzea, eta dituen funtzioak gehitzea.
- Herritarren parte-hartzea hobetzeko, teknologia berriak txertatzea.

## **2.7. HUMANIZAZIOA**

- Jarraitutasuna ematea arlo guztietan 2015-2019 legealdian egindako Osasun Sistema Humanizatzeko Estrategiari
- Osasun-instalazioen barruko "laguntzaile" figuran aurrerapausoak ematea, arazoak dituzten pertsonen (hizkuntza, orientazioa, adina, defizit kognitiboak...) irisgarritasuna hobetzeko, eta lan-mundura bideratzea lan-arloan eta arlo sozialean zailtasunak dituzten pertsonak.

## **3. LEHEN MAILAKO ARRETA ETA ARRETA KOMUNITARIOA**

- 2019an egindako Lehen Mailako Arretako Estrategia ezarriko da, osasun-arretan irisgarritasuna, zuzentasuna eta kalitatea bermatuz herritar guztiei, kontuan harturik urrutien edo isolatuen dauden landa-eremuen espezifikotasuna .
- Osasun-barrutiak antolatzea, zerbitzu soziosanitarioak Oinarrizko Osasun Eremuetara hurbiltzeko, osasun soziosanitarioa eta komunitarioa indartuz, eta Oinarrizko Osasun-eremuetan oinarritutako Esku-hartze Komunitarioko Plan Integratu deszentralizatu bat sustatuz, berariazko egitura eta aurrekontua izango dituen.

- Lehen Mailako Arretan eredu-aldaketa sustatuko da; Oinarrizko Osasun Eremu bakoitzaren benetako beharretara egokituko da, hainbat alderdi kontuan hartuta –hala nola biztanleriaren sakabanaketa, zahartzea eta beste ezaugarri soziosanitario batzuk–, eta estamentu guztien gaitasun profesionalak gara daitezen ahalbidetuko du..
- Lehen mailako arretako lantaldeek oinarrizko eremu bakoitzean eskaintzen duten zerbitzu-zorroa indartzea.
- Osasun-zentroek kudeatzeko autonomia izan dezaten sustatuko da.
- Arreta Jarraitu eta Premiazkoa Erreformatzeko Plana, larrialdietako eskualde-zerbitzuak garatuta
- Lurralde-ekitatea hobetzea, zerbitzuak deszentralizatuz, landa-ingurunean bizi den biztanleria finkatzeko.
- Oinarrizko Zerbitzu Eremuan haur guztiek pediatriako arreta izan dezaten bermatzea.
- Lehen Mailako Pediatria eta Ospitaleko Pediatria koordinatzea.
- Lehen mailako arretako profesionalen eta bigarren mailakoen arteko koordinazioa erraztea.
- Finantziario egokia, aurrekontua nabarmen handituta.
- Profesionalak indartzea eta optimizatzea.
- Osasun Txartel Indibidual (OTI) kopurua birdoitzea, kontuan hartuz zahartzea, sakabanaketa geografikoa, kronikotasuna, alderdi sozioekonomikoak eta beste irizpide batzuk.
- Profil profesionalak definitzea, lehen mailako arretako erizainen eskumenak eta erantzukizunak bultzatuz.
- Lan soziosanitarioa indartzea, Oinarrizko Osasun Eremuetan gizarte-langileak jarritz.
- Hauskortasuna goiz detektatzeko programak eta gaitasun funtzionala hobetzeko Plana hedatzea. Errehabilitazioko Unitate Periferiko berriak martxan jartzea.
- Etxeko arreta soziosanitarioko programa hedatzea.
- Lehen Mailako Arretako azpiegitura-plan bat bultzatzea, Osasun-zentroak eta Kontsultategiak barne, beharren analisiaren arabera.
- Lehen Mailako Arretako arlo guztietako ikerketa sustatuko da.

#### **4. OSPITALEKO ARRETA**

- Itxarote-zerrendak  
Itxarote-zerrenden aurrean, Plan Integral bat ezarriko da, epe labur, ertain eta luzerako neurri eraginkorrek, paziente-kopurua edo itxarote-denbora murrizteko, zerbitzu-eskaintza handituz, eskaria murriztuz eta itxarote-zerrendetako eskaintza-eskariaren auto-erregulazioa hobetuz.
- Zerbitzuburuak arduratuko dira Lehen Mailako Arretatik egiten diren deribazio- eta errebisio-prozesu subsidiarioak analizatzeaz, eta Gida Praktiko Klinikoan eta ebidentzia zientifikoetan oinarritutako denborak eta maiztasunak markatuko dituzte.
- Eraginkortasun eza nabarmeneko poltsak detektatzea eta analizatzea, irtenbideak bilatzeko
- Gerentzia bakarrean bateratuko dira Osasunbidekoa eta Nafarroako Ospitale Unibertsitariokoa
- Diziplina eta Estamentu Anitzeko Unitateak sortzea eta garatzea.
- Itxarote-zerrendetarako "Kudeaketa-teknikariak" jarriko dira.
- Arreta berezia eta baliabide egokiak jarriko dira paziente kronikoa eta patologia anitzekoa kontrolatzeko, Lehen Mailako Arretarekin lankidetzan estuan.
- Nafarroako Ospitale Unibertsitarioko Zainketa Intentsiboetarako Unitate Pediatrikoa bultzatzea bere kokapen berrian
- Kirurgia Robotikoko Unitatea Nafarroako Ospitale Unibertsitarioan.
- Indartu egingo da Osasunbideko Iktusari buruzko egungo kodea.

#### **5. OSASUN MENTALA**

- Osasun Mentalaren III. Plan Estrategikoa (2019-2023) eguneratzea.
- Osasun mentaleko arreta-mailak koordinatzea, lehen mailako arretatik arreta espezializaturainoko laguntza bermatuz.
- Lehen mailako arretan, psikoterapian eta talde-terapietan oinarritutako arreta-programak garatzea.
- Berriazko prestakuntza ematea profesionalen estres-eragile diren egoeren

ondoriozko arazoak konpontzen laguntzeko

- Osasun mentalekin lotutako desgaitasunaren behatoki bat sortzea.
- Jokabide Suiziden Arretarako Nafarroako Plan Integrala, arreta berezia eskainiz haurren eta gazteen jokabide suizidei.
- Osasun mentaleko zerbitzu soziosanitarioen sarea indartzea.
- Lehenengo Gertakari Psikotikoen Interbentzio Goiztiarrerako Programa.
- Gaitz Kronikoen Arretarako Estrategia, hasierako programa birdefinituz, hainbat alderdi kontuan hartuta, hala nola lan-merkatuan sartzeko aukerak, prestakuntza- eta aisialdi-espazioak, bizileku-autonomia eta autonomia ekonomikoa, etab.
- Area guztietan haur eta gazteenganako arreta bereiztea.
- Osasunaren etorkizuneko Foru Legean, arreta berezia eskaintzea Osasun Mentalekin zerikusia duten alderdiei
- Argi ezarriko da Osasun Mentaleko Arreta Zerbitzuek eskainiko duten zerbitzu-zorria.
- Osasun Mentaleko "laguntza-agentearen" figura sortuko da, pazienteari ahalduz eta gaixotasun mentalen inguruko estigmak desagerrarazten laguntzeko.
- Beste neurri terapeutiko batzuk dituzten –psikoterapia kasu– prozesuen pixkanakako desmedikalizazioa bultzatuko da.
- Humanizazioa eta osasun mentaleko pazientearen autonomiarekiko errespetua bultzatzeko neurriak, laguntza-maila desberdinetan.
- Elikadura-portaeraren nahasmenduak tratatzeko berriazko Unitate bat sortuko da.

## 6. OSASUN PUBLIKOA

- Departamentu arteko Osasun Kontseiluaren bitartez, zenbait departamenturi eragiten dioten programak ezartzeko planak ezartzea, hala nola kutsadura akustikoa eta ingurumenarena.
- Klima-aldaketarekin (berotze globala) zerikusia duten prebentziozko jarduketak garatzea eta egokitzea.
- Nafarroako Osasun Komunitarioaren Behatokia indartzea.



## OSASUNA

- Obesitatearen aurkako programak, haurren obesitatearen aurkakoak bereziki. Ikastetxeetan hitzaldiak eman daitezzen sustatuko da, eta ikastetxe inguruetan obesitatea eragin dezaketen produktuen salmenta kontrolatuko da.
- Osasun-eskolak indartzea; tartean, herritarrak bizi-larrialdiko egoeren aurrean jarduteko Gaitasun Programa bat jarriko da martxan.
- Laneko Osasuneko politikak indartzea, laneko ezbeharrak murrizteko eta gaixotasun profesionalak prebenitzeko, betiere osasun publikoko ikuspegiari jarraikiz.
- Substantzien eta bestelako adikzioen Nafarroako III. Plana garatzea, ahalik eta arreta handiena eskainiz gazteei eta nerabeei.
- Ludopatiaren aurka borrokatzeko berariazko Foru Plan bat ezartzea.
- Tabakoa uzteko neurriak bultzatzen jarraitzea.
- Sexu-transmisioko gaixotasunak Prebenitzeko Programak eguneratzea eta indartzea.
- SKOLAE Programa garatzea (sexu- eta ugalketa-osasuna)
- Zahartze aktibo eta osasungarrirako departamentu arteko Estrategiaren II. ekintza-plana prestatzea eta ezartzea (I. Plana, 2018-2019)
- Amiantoa kentzeko ekintza-plana planifikatzea eta ezartzea.
- Metabolopatiak goiz detektatzeko Jaioberrien Baheketa Programa garatzea (orpoaren proba), Nafarroako Osasun Publikoaren eta Osasun Ministerioaren Baheketari buruzko Txostenari jarraituz.
- Umetoki-lepoko minbizia goiz detektatzeko antolatutako programa garatzea.
- Biriketako minbizia goiz detektatzeko programa batek eraginkortasunari dagokionez osasun publikoan nolako inpaktua duen aztertuko da.
- Osasun-barrutietan Osasun Publikoko eta Komunitarioko alderdiak indartzea.
- Zonako Osasun-zentroekin lankidetzan, hertsiki osasunarekin lotuta ez dauden arloetan preskripzio soziala deritzona baliatzea bultzatuko da (adibidez, ariketak gomendatzea kiroldegi eta gimnasioetan, sukaldaritzatailerrak...).

## 7. SEXU- ETA UGALKETA-OSASUNA

- Ahalik eta gehien garatu eta ahalik eta mailarik handienean ezarriko da 103/2016 Foru Dekretua, arau horretan jasotzen diren alderdi guztiak bermatuz.
- Haurdunaldia Borondatez Eteteko aukera bermatuko da Osasunbidean.
- Lehen Mailako Arretak sexu- eta ugalketa-osasunean duen funtzioa indartuko da.
- Sexu- eta ugalketa-osasunaren Arretarako Zentroen zerbitzu-zorroa garatzea.
- Nafarroako zonetan sexu-heziketaren bitartez erantzuteko dauden beharrei buruzko azterketa bat egitea, programa horietara jotzeko, ekitatea bermatuz.
- Genero-indarkeria detektatzeko eta kasu horietan esku hartzeko protokoloak indartzea eta bultzatzea.
- Sexu-transmisiozko infekzioak goiz detektatzeko protokoloak bultzatzea.
- Sexu- eta ugalketa-osasunari dagokionez, gazteek prebentzio- eta tratamendu-neurriak eskuragarri izaten lagunduko duten berariazko zerbitzu berriak sortzea eta garatzea, sexu-heziketaren bitartez.
- Osasunaren eta hezkuntzaren arloko departamentuen arteko lankidetzak indartzea, hezkuntza-maila guztietan sexu-heziketaren gaia jorratzen dela bermatzeko.
- Biztanleriako sektore desberdinek (beste kultura batzuetako pertsonak, desgaitasunak dituztenak eta adineko pertsonak) sexu-heziketarako aukera izaten lagunduko duten programak garatzea.
- LGTBI kolektiboko pertsonen arreta berezia eskaintzea, eta transexualitatearen diziplina anitzeko unitatea (Transbide) indartzea.
- 103/2016 Foru Dekretuan jasotzen den Osasun Sexualaren Batzordearen eginkizunak garatu eta indartuko dira.

## 8. BIZITZA-AMAIERAKO ARRETA

- Profesional guztiak trebatzea bizitza-amaieran –eta bizitza amaierarako– erabakiak hartzeko bioetikaren eta komunikazioaren arloetan.
- Pertsona guztiei bermatzea bizitza-amaierako zainketa aringarriak eta arreta


## OSASUNA

integrala sistema publikoan, patologia guztietan, ospitalean zein etxean, eta Nafarroa osoan koordinatuta.

- Osasun arloko egungo langileak zein oraindik arreta aringarriko lantaldeetan sartuta ez dauden profesionalak zainketa aringarriari buruzko prestakuntza jaso dezaten bultzatzea (psikologoak, osasun-langileak, etab.).
- Nafarroako Ospitale Unibertsitarioan zainketa aringarrietako ospitale barruko unitate bat sortzea.
- Etxeko zainketa aringarrietarako lantalde-sarea indartzea.
- Heriotza Duinerako Behatokia bultzatzen jarraitzea, Aurretiazko Borondateen Agiria ezagutaraz eta erabil dadin bultzatzea, eta agiri horren inguruko esperientzia eta kalitatea aztertzea.
- Osasun arloko langileak dolu-prozesuan laguntzeko treba daitezen bultzatzea.
- Gure erkidegoan eutanasia eskatu duten kasuen jarraipena egitea
- Beharrezkoak diren aldaketak sustatzea behar bezala ezar dadin eutanasia despenalizatzen duen legea.

## 9. IKERKKETA, IRAKASKUNTZA ETA JAKINTZAREN KUDEAKETA

- IDISNAren garapena sustatzea, institutuaren zuzendaritzari eta kudeaketaren kontrol publikoari eustearen alde eginez, prestakuntzan eta ikerketan aliantzak eta sinergiak sortzen dituen Ikerketa eta Berrikuntzako Institutu gisa finkatuz.
- Gaur egungo aurrekontuarekiko, urtero % 5 igotzea ikerketara bideratzen den zuzkidura ekonomikoa.
- Nafarroako Unibertsitate Publikoarekiko lankidetzaren esparruan, osasun-ikerketa publikoa bultzatzea.
- Medikuntza pertsonalizatuaren eta doitasunezkoaren estrategia ezartzea eta garatzea.
- Osasunbidean ikerketa biosanitarioko plan zientifiko bat garatzea, ikerketa sustatzeko Osasun Publikoaren arloan, Nafarroako Lehen Mailako Arretaren, minbiziaren, gaixotasun arraroen eta zahartzearen arloak lehenetsiz.
- Osasunerako baldintzatzaile sozialen ikerketa bultzatzea.
- Osasunaren arloko desberdinkerien Behatokia hobetzea, adierazleak txertatuta eta Lehen Mailako Arretako osasun-erregistrotik monitorizatuta.
- Medikuntza Fakultatea arlo publikoan guztiz garatzearen aldeko apustua egitea.









8.

# HEZKUNTZA

## HEZKUNTZA

Nafarroa erkidegoaren trantsizio ekologiko, energetiko eta digitalean murgilduta dago, eta hezkuntza-sistemak bat egin behar du trantsizio horrekin, bere burua aldatuz, benetan eraldatzaile izateko. Aldi berean, gizarte garaikidearen hezkuntza-eskariei erantzuteko gai izan behar du hezkuntza-sistemak; gizarte horretan, kultura-aniztasunak, big datak, adimen artifizialak, informazioaren eta komunikazioaren teknologiek, eta automatizazio gero eta handiagoak zaharkituta utziko dituzte gaur egungo lanbide asko, eta horrek, guk saihesten ez badugu, desberdinkeria soziala areagotzea ekar dezake.

Eskola publikoak aukera-berdintasuna bermatu behar du, gure ikasle guztiek aukera izan dezaten beren bizi-proiektua garatzeko berdintasunean eta klaseko, generoko, arrazako eta bestelako baldintzatzaile gabe.

XXI. mendeko beharretara egokitzeko helburuz, Geroa Baik irmo eusten dio autogobernuak eskola publikoa hobetzeko ematen dizkigun tresna guztiak erabiltzeko konpromisoari. Autogobernua indartzea eta transferitu gabe dauden eskumenak eskuratzea dira eta izango dira aurrerantzean ere gure konpromisoa, arlo guztietan, eta Hezkuntzan, bereziki, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoak berak jasotzen duenari jarraikiz (eguneratzen ez den bitartean), Estatuak beken eta I+Gren eskumena transferi dezan lan egingo dugu, funtsezkoak baitira biak gure errealitateari, hots, Nafarroako hezkuntza- eta produkzio-sistemaren beharrei egokituko zaizkien hezkuntza-politikak diseinatzeko, betiere Nafarroako herritarrentzat bideratuz gure baliabide guztiak.

Egia da Hezkuntzari dagokionez arrakastarik izan ez duen legealdia izan dela amaitzera doan hau. Covid19aren pandemiaren gain, Ukrainaren aurkako errusiarren inbasioaren ondoriozko beste zenbait inguruabar sortu da, eta guztiek eragin diote Nafarroako hezkuntza-sistemari. Hala ere, legealdian zehar askotan salatu dugu ez dela arduraz jokatu, ez dela bete oinarritzko hainbat gai, hala nola itunak eta plan estrategikoak bete zitezen bermatzea, hala nola Aniztasunaren Arretarako Plana edo Lanbide Heziketarena.

Apenas egin den aurrerapenik irakasleak egonkortzeko; ez da gauzatu aurreikusitako ratio-jaitziera, eta ez da orokortu Skolae; horrenbestez, hezkidetzari dagokionez, galdutako lau urte izan direla esan dezakegu. PSNk izan du departamentu horren ardura, eta hezkuntza-eragileekin erakutsi duen alde-bakartasun, elkarrizketa falta eta ikuspegi partekatu falta bera erakutsi ditu koalizio gobernuan bere bazkide izan garenok.

Hezkuntza ekitatean, inklusioan eta aukera-berdintasunean oinarrituta egon behar duen eskubide unibertsala da. Beraz, Geroa Bairen ustez, sare publikoak izan behar du Nafarroako hezkuntza-sistemaren ardatza.

Nafarroak Estatuko eskola-uzte tasarik txikienetakoa izaten jarrai dezan nahi dugu. Ikusitakoak ikusita, jarraitu beharko dugu aurreko gobernuek egin dituzten murrizketak eteten, plantillak egonkortzen, bitartekotasun-tasak jaitzen eta sare publikoa modernizatzen, horretarako, azpiegituretan, teknologia berrietan eta irakasleen etengabeko prestakuntzan gehiago inbertituz.

Eskola eleanitzaren aldeko apustua egiten dugu, non geure hizkuntzek eta atzerrikoek merezi eta behar duten tratamendua izango duten; hizkuntza-eskolen sarea handitu batekin osatuko da hori, eskaintza herritar gehiagorengana hurbiltzeko.

Halaber, 0 eta 3 urte bitarteko haur-zikloaren unibertsalizazioan eta doakotasunean aurrerapenak egiten jarraitu nahi dugu, bai eta S4 espezializazio adimentsuko estrategiarekin lotutako Lanbide Heziketako prestakuntza-eskaintza handitzeko bidean, unibertsitate publikoaren eskaintzaren kalitatean, goi-mailako kontserbatorioaren eta profesionalaren zuzkiduran eta helduentzako ikaskuntzen koordinazioan ere.

## **ITUNAREN KULTURA**

Uxue Barkos buru izan zuen Aldaketaren Gobernuak jakin izan zuen aldaketa gure erkidegoko eskoletara ere eramaten, eta ezberdinen arteko elkarrizketaren eta adostasunaren bidetik egin zuen hori. Adostasunerako bokazio horren adibide dira sare publikorako hezkuntza-ituna, hitzartutako sarerako akordioa hiruko mahaiarekin, eta Nafarroako Unibertsitate Publikoa finantzatzeko zenbait urtetarako hitzarmena, zeina unibertsitate-komunitateak urte luzez lortu nahi izan baitzuen. Datozen urteetan ere, hezkuntza-komunitatearekiko elkarrizketari eta akordioari eutsiz, lan egiten jarraitzeko konpromisoa hartzen dugu, berriz ere aldaketaren bideari ekinez, eta Nafarroarako eskola eraldatzailearen diseinuan sakonduz.

Ikastetxe publikoetako irakasleen iritziz, premiazkoa da ratioak linealki jaitea (hori jasota zegoen dagoeneko agortuta dagoen itunean). Itun hori berritzen denean, horrek izan beharko du ardatzetako bat. Eskola publikoan ratioak modu linealean, etapa guztietan eta maila guztietan jaisteko konpromisoa hartzen dugu.

### HEZKIDETZA

- Skolae programak hasitako lana finkatzea eta orokortzea, Nafarroako ikasle guztiek berengana dezaten beren bizitza-proiektua berdintasunean eraikitzeko gaitasuna, Skolae programaren edukiak hezkuntza-errealitate ezberdinetara egokituz (aniztasunak, Lanbide Heziketako familiak, landa-eremuko eskolak...).
- Ikastetxe osoa inplikatzan duten intereseko proiektuetan sakontzea, hala nola jolastokien diseinua, hezkidetzan oinarritutako liburutegiak edo emakumeei eta zientziari buruzko proiektuak diseinatzean.
- Aurrerapausoak ematea familientzako eta gainerako hezkuntza-komunitatearentzako berdintasunean hezteko prestakuntzan, eta koordinazioa sustatzea tokiko erakundeekin, Nafarroako Gobernuako beste departamentu batzuetako organismoekin (NABI, NOPLOI, NAKI...) eta hezkuntza ez-formaleko beste eragile batzuekin.
- Ikastetxe guztiek Hezkidetzan Nortasun Plana izan dezaten bermatzea, hala baitago aurreikusia Ikastetxeko Proiektuan.
- Nafarroan ikasleak sexuaren arabera bereiziko duen ikastetxerik egon ez dadin lan egitea. Hezkidetzak edo elkarrekin hezteak ezinbestean eskatzen du sexuaren arabera ez bereiztea; eta jabetuta gauden arren eskola mistoek misto izate hutsagatik ez dutela hezten hezkidetzan, uste dugu ikasgela mistoak ezinbesteko baldintza direla hezkidetzan lantzeko.

### LANDA-EREMUKO ESKOLA

- Landa-eremuko Eskolaren Funtzionamendurako arau bat garatzea, gai horri eragiten dioten arau guztiak bateratuz, kontuan hartuz landa-eremuko eskolak duen berriazko izaera, departamentuen arteko koordinazioa bermatuz (Hezkuntza, Garapen Ekonomikoa, Landa Garapena, Etxebizitza, Tokiko Administrazioa); izan ere, funtsezkoak dira etxebizitzaren, lanaren, lana eta familia uztartzearen eta beste hainbat arlotako zeharkako politikak, eta hezkuntzarekin batera hartu behar dira aintzat landa-ingurunea zaintzeko.
- Lurraldean zehar arrakasta izan duten ereduak errepikatzea, hala nola Abartzuzako Zumadia eskola unitarioarena, ingurunean ondo egokitutako eta kalitate-estandar gorenak dituzten eskola txikien eredu gisa.
- Halaber, hainbat foro eta proiektu eredu gisa hartzea; esate baterako,, PiriBizi diru-laguntzen baitan PiriEskolekin sinergia garrantzitsuak lortu dituztenak.

- Despopulazio-arrisku handiko udalerritzat katalogatuta daudenetan, jantokiak eta zerbitzurako diru-laguntzak ematea biztanle guztiei.
- Ahal den udalerrri guztietan eta biztanleek hala nahi badute, DBHko lehenengo ziklorako ikastetxeak gaitzea.
- Etorkizuneko irakasleek landa-inguruneko eskolen berezko ezaugarriei buruzko prestakuntza jaso dezaten ahalegintzea; gradu anitzeko ikasgelei buruzkoa, esaterako.

### **BIZIKIDETZA**

- Laguntza programa ikastetxe bakoitzaren behar eta erritmoetara egokitzeko prozesuan sakontzea, bizikidetza hobetzeko tresna erabilgarria izaten jarrai dezan. Ekologia emozionalean sakontzea, gure ikasleei beren sentimenduak adierazten, balioen inguruan hausnartzen edo beren gogo-aldateak identifikatzen eta kudeatzen laguntzeko.
- Bizikidetzako Aholkularitza Zerbitzua Ikuskaritza Zerbitzuan integratzea, bizikidetzaren kudeaketan erantzukizunak dituzten Hezkuntza departamentuko egitura guztien arteko koordinazioa hobetzeko eta eskola-jazarpena prebenitzen eta hari aurre egiten eraginkorragoak izateko. Zero tolerantzia eskola-jazarpenaren aurrean.
- Memoria duten Eskolak programa ezartzen sakontzea.
- Hezigarri proiektuari eusteko berariazko konpromisoa, eta hala eskatzen duten ikastetxeak programa horretan mantentzeko konpromisoa, baliabideak eta jarraitutasuna bermatuta. Uste dugu esperientziak erakusten duela ikasle guztiei merezi duten arreta emateko tresna eraginkorra dela ikastetxe konplexu eta behar jakin batzuk dituztenentzat.

### **HEZKUNTZA-BERRIKUNTZA**

- IkasNova estrategiaren bitartez, Nafarroako hezkuntza publikoaren eraldaketa digitala zuzentzen jarraitzea, ikasleei haien gaikuntza digitalaren garapenean lagunduz eta ikaskuntza-prozesuan teknologiaren erabilera burutsua, kritikoa eta segurua sustatuz.
- Udalei IkasNova ikasgelak edo etorkizuneko ikasgelak sortzeko beharrezko azpiegiturak ematea, era horretako zerbitzuak jartzeko baliabiderik ez duten landa-eremuetan.



## HEZKUNTZA

- Sare publikoko ikastetxeei beharrezko baliabide teknologikoak eta konektibitatekoak emateko konpromisoari eustea, ikastetxeen ekipamendua eta sare publikoaren azpiegitura digitala hornitzeko, berritzeko eta mantentzeko planaren bitartez, zeinak konexio segurua eta abiadura handia emango baititu.
- Kalitatezko hezkuntza-eduki digital eleanitz eta inklusiboak garatzea, ikaskuntza-prozesuan ikasleen parte-hartze eta beren garapen kognitibo eta emozionala sustatzeko.
- Ikasleen gaitasun digitalaren garapenean laguntzea, teknologiak modu seguru, kritiko eta etikoan erabiltzeko baliabide eta tresnak emanez, eta komunikabide digitaletan Nafarroako berezko hizkuntzak erabil daitezen sustatuz, euskara barne.
- Ikasleen pentsamendu konputazionalaren garapena sustatzea, herritar kritikoak eta sortzaileak trebatzeko funtsezko gaitasuna baita aro digitalean.
- Hezkuntzaren arloan Adimen Artifiziala gara dadin sustatzea, irakaskuntza-eta ikaskuntza-prozesuen kalitatea eta eraginkortasuna hobetzeko eta ikasle bakoitzaren beharretara egokitzeko.
- Ikasleak gizarte digitalean erabat integra daitezen ziurtatzea, eta komunikabideak modu seguru eta arduratsuan erabil ditzaten sustatzea, kultura digitala eta trebetasun teknologiko aurreratuak garatzeko hezkuntza-jarduera eta -programa berritzaileak bultzatuz.
- Hezkuntza-komunitate osoaren gaikuntza digitala sustatzea, irakasleei, ikasleei eta haien familiei bideratutako berariazko planak eta ekintzak barne, hezkuntza berritzailea eta kalitatezkoa bermatzeko.
- EDUCA plataforma gara dadin bultzatzen jarraitzea, hezkuntza-kudeaketa eraginkorra eta hezkuntza berritzailea eta pertsonalizatua ahalbidetuko dituzten funtzionalitate eta tresna berriak txertatuz.
- Aurrez aipatutako guztia egiteko, Geroa Baik Hezkuntzaren berrikuntzarako eta eraldaketa digitalerako baliabide-zentro bat sortzea proposatzen du, egitura autonomoa izango duena, eta erkidego osoko hezkuntza-berrikuntzako beharrei erantzungo diena.

## ELEANIZTASUNA

- Nafarroako Foru Erkidegoko Administrazioko unibertsitatez kanpoko irakasle

funtzionarioak hautatzeko eta lanpostuak betetzeko neurriak ezartzen dituen maiatzaren 4ko 11/2022 Foru Legea indargabetzearen alde lan egitea.

- Gure erkidegoan eleaniztasuna arautzen duen Dekretu bat idaztea, Nafarroako bi hizkuntza propioak ardatz gisa hartuta, gaur egungo Departamentua prestatzen ari den Hizkuntza Ikasteko Programari buruzko Dekretua de facto indargabetuko duena, eta ahalbidetuko duena Ikastetxeko Hizkuntza Proiektua sustatzea, hizkuntzen arloko adostasun-, autonomia- eta koordinazio-tresna gisa. Urratsak egitea Nafarroako hizkuntza propioen eta gutxienez atzerriko bi hizkuntzaren presentzia bermatuko duen Hezkuntza-sistema eleanitz baterantz ikasle guztientzat.
- Hizkuntzak Ikasteko Programaren ebaluazio-diagnostiko bat egitea etapa guztietan (Lehen Hezkuntza eta DBH) eta dagozkion arlo guztietan (matematikak, gizarte-zientziak, natura-zientziak, plastika) ikasleek irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuan helburuak zenbateraino betetzen dituzten ikusteko, gainerako ikasleekin egiten den bezala.
- Uste dugu zeharkakoak izan behar dutela euskararen politika publikoek; horregatik, Euskarabideak Hezkuntza departamentuarekin batera lan egin behar du kasu honetan, hezkuntza-politikak bateratu daitezten euskara bultzatzearen, erabiltzearen eta tratatzearen inguruko politikekin.
- Filosofia berarekin, D ereduko ikasgelak irekiko dira eskaria dagoen leku guztietan, hau da, familiek hala eskatzen duten ikastetxeetan.
- Beharrezkoa da A eredia birplanteatzea, etapa guztietan indartzeko eta egitura handiagoa eta baliabide gehiago emateko, batez ere Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan eta Batxilergoan; bete-bete sinesten dugu eredu horrek nafarrak gure hizkuntzara— lingua navarrorumera, euskarara— hurbiltzeko duen ontasunean, eta uste dugu beharrezkoa dela eredu hori indartzea eta bermez hedatzea. Gure ustez, horrek izan beharko luke oinarrizko eredia, gutxienekoa, bi hizkuntza propio dituen erkidego batean, eta gurean oraindik lortu ez izanak argi erakusten du nolako defizit demokratikoa duen oraindik hizkuntzak gure erkidegoan, euskararekin zerikusirik ez duten arrazoen ondorioz.
- Hizkuntzen tratamendu integratu errealista eta garantista batek bakarrik amaituko du, adibidez, Batxilergoko G eta D ereduen artean dagoen ordutegi-desberdintasunarekin; horrek D ereduko ikasleei eragiten dien diskriminazioarekin amaituko luke (garraioarekin zerikusia duten kontuetan, esaterako).

## HEZKUNTZA

- Ikasle etorkinak A eta D ereduetara erakartzea; horretarako, beste erkidegoekin eta guraso-elkarteekin batera lan egingo dugu, baita gizarte osoari zuzendutako kanpainen bitartez ere.
- Euskara sustatzeko eta euskaran murgiltzeko hezkuntza-programak zabaltzeko konpromisoa hartzen dugu, batez ere hizkuntzak presentzia txikia duen eremuetan.
- Beste herrialde batzuekin lankidetzan, eskolen arteko truke-programak eta elkarrizketa bultzatzeko programa osagarriak ezartzea, atzerriko hizkuntzen ikaskuntza eta erabilera sustatzeko.
- Frantsesa ikas dadin sustatzea, hurbileko hizkuntza izanik lanerako aukera ugari eskaintzen baititu.
- EA Erekin dauden hitzarmenak eguneratzea eta indartzea; hitzarmen horien funtsa da Nafarroako ikasle guztiek hezkuntza euskaraz jasotzeko duten eskubidea ziurtatzea, ahalik eta modurik eraginkor eta errazenean, ikasleak nahi duen eredia eskaintzen duen hurbileneko ikastetxea ondoko erkidegoan dagoen kasuetan.
- Hizkuntza Eskola Ofizialak: Hizkuntza-eskolen berri ematea eta, garai batean izandako garrantzia berreskuratze aldera, posizionamendu-estrategia bat garatzea. Esperientziak erakusten du eskola erdipresentzialak sustatu behar direla; Lizarran, esaterako, ingeles- eta euskara-mailak ziurtatzeko. Dauden beharrei erantzuteko, eskaintza, ikastaro-motak eta ordutegiak nola dibertsifikatu aztertzea.
- Nafarroako Adimen Artifizialeko Ikerketa Zentroak (NAIR Center) adimen artifizialarekin eta hizkuntzaren teknologiei aplikatutako ikerketarekin lotutako proiektuak gara ditzan bultzatzea, eta proiektu horietan euskara ere txertatzea.
- Nafarroako CNAI kentzea. Ez dago justifikatuta, Departamentuak eman beharko bailituzke gaur egun enpresa horrek ematen dituen zerbitzuak; enpresak, gainera, beste enpresa batzuei azpikontratatzan dizkie zerbitzu batzuk.

## ANIZTASUNARI ERANTZUTEA

- 2020an amaitu zen Aniztasunaren Arretarako Plan Estrategikoa berrikustea eta ebaluatzea, eta plan berria diseinatzea, zeinak oinarrizko araudi berrira eta haurtzaroaren gaur egungo errealitatera egokituta egon beharko baitu,

gero eta gehiago diagnostikatzen eta detektatzen baitira hezkuntza-behar bereziak. Elkarrekin eta ikasle horien ordezkariekin lan egingo dugu, urratsak egiteko ikasle guztientzako ekitate- eta kalitate-printzipioetan oinarritutako hezkuntza inklusibo baterantz.

- Ikasle etorkinei harrera egiteko planak bultzatzea.
- Hezkuntza Laguntzako Espezialisten kolektiboarekin batera lan egitea haien aldarrikapenei irtenbidea emateko, uste baitugu, oro har, bidezkoak direla eta ematen duten zerbitzua eta ikasleen ongizatea hobetuko dituztela.
- DUA Ikaskuntzarako Diseinu Unibertsala indartzea, benetako hezkuntza inklusiboa helburutzat duen irakaskuntza-eredu gisa, ikaskuntzarako bidean aurki ditzakegun oztopoak minimizatuz –fisikoak, sentsorialak, kognitiboak zein kulturalak– eta, era horretan, aukera-berdintasuna eta ikasgela barruko ikaskuntzarako irisgarritasuna hobetuz. Metodologiak eta materialak modu malguan erabiltzean oinarritzen da DUA, eta parte-hartzea eta interakzioa bultzatzen ditu. Beharrezkoa da aurretiazko prestakuntza teorikoa eta praktikoa izatea.
- Irisgarritasun Plana aplikatu dadin bermatzea.
- Orientatzaileei esleitzen zaien ikastetxe-kopurua murriztea, kontuan hartuta handia dela behar bereziak dituzten eta ikasten berandu hasi diren ikasleen indizea eta handitu egin dela orobat behar bereziko diagnostikoak egiteko beharra.

### **0-3 HEZKUNTZA-ETAPA**

- Urratsak egiten jarraitzea 0-3 urteko hezkuntzaren doakotasuna eta unibertsalizazioa lortzeko bidean, bai eta inplikaturako eragileen arteko koordinazioan ere, foro benetan eraginkorrak sortuz inplikaturako alde guztiak bilduz: Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua; tokiko erakundeak, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak ordezkaturak; eta langileen zein familien ordezkariak.
- Epe laburrean, Departamentuarekin lortutako akordioa betetzen dela bermatzea –2023ko Aurrekontuetan jasota dago–, eta etapa honetan ere ratioa murrizteko urratsak egitea. Denboran zehar ratioak murriztuko dituen egutegi bat hitzartu behar da –ildo batzuei jarraituko dien proposamen bat–, hurrengo legealdian Europako mailara heltzeko.
- Euskarazko plaza-kopuru handiagoa bermatzea, dagoen eskari guztiari erantzuteko.

- Geroa Bairen 2019ko konpromisoa izan zen Nafarroako Adimen Artifizialeko Ikerketa Zentroa sortzea, eta egia bihurtu da orain. Hala ere, Navarra Artificial Intelligence Research Center Europako eta munduko erreferentziazko zentro bat bilakatzea lortu nahi badugu, baliabide gehiago bideratu behar dizkiogu, zientzialarien lantaldeak kaudimenez eta bermez lan egiteko aukera izan dezan.
- *IkerNA* Zientziarako Nafarroako Fundazioa sortzea, Nafarroako ikerketa zientifikoa garatzen laguntzeko, ikertzaile bikainak erakarriz eta talentua berreskuratuz, bai eta ikerketa dinamizatzeko ekintzak abian jarritz ere. Gaur egun, Nafarroan ez dago ikerketa eraginkortasunez bultzatzen duen mekanismorik. Hain zuzen ere, SINAI bezalako erakundeek, baliotsuak eta erabilgarriak diren arren, elementu teknologikoak eta zientifikoak konbinatzen dituzte, baina ez daude berriaz ikerketa zientifikora bideratuta. Epe ertainean, lehiakortasun-galera larria ekartzen du horrek, Nafarroa kanpoko ezagutzaren mende egongo bailitzateke. Eta, beraz, Nafarroak ez luke izango bere garapenaren gaineko kontrola.

Hori saihesteko, gaur egun berriaz ikerketara bideratuta dauden Nafarroako zentroen jarduera batu eta indartuko duen Fundazio bat bultzatu behar dugu (hor sartuko litzateke, adibidez, NAIR Center), intereseko arloetako ikerketa-zentro berriak sortzea bultzatuko duena, Nafarroa zientziaren munduko mapan koka dezaketen ikertzaileak erakartzeko programak bultzatuko dituen eta talentua berreskuratzeke berriazko programak sortuko dituen.

- *Nafarroako Unibertsitate Sistema Ebaluatzeke eta Kalitatea bermatzeko Agentzia* sortzea, irakaskuntzaren eta ikerketaren bikaintasuna bultzatzeko (unibertsitatea finantzatzeko inbertsioa handitzearekin lotua).
- Gaur egungo eskaintza sendotzea eta euskarazko eta ingelesezko unibertsitateko hezkuntza-eskaintza publikoa indartzea, unibertsitatea Finantzatzeko Zenbait Urtetarako Hitzarmenean jasotzen den berriazko finantziarioaren bitartez, hizkuntza-eskola ofizialekin sinergiak lortuz eta hizkuntza horiek gehiago hedatuz unibertsitate publikoan eta pribatuan.
- UNITA europar partzuergoaren aldeko apustua egitea, eskualdegarapenerako tresna gisa (Nafarroako Unibertsitate Publikoa partzuergoko kidea da).
- Ikerketa gizartera hurbiltzeko bidean sakontzea, jakintza zientifikoa ahalik eta jende gehienarengana heltzeko, ingurune akademikoetatik kanpo ere



transmititzen lagunduko duten hitzarmen eta deialdien bitartez.

- Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakasleen plantilla egonkortzearen aldeko apustua egitea.
- Hiru unibertsitateetan udako ikastaroak euskaraz eskain daitezen exijitzea.
- Derrigorrezkoen ondorengo ikasketetarako beken eskumenaren transferentzia osoa bideratzea.
- I+G+Bri dagokion eskumena transferitzeko exijitzea.

### HELDUEN HEZKUNTZA

- Helduentzako hezkuntza formal zein ez-formala (gaikuntza profesionalak, alfabetatzea, espainiera bigarren hizkuntza gisa, euskara, beste hizkuntza batzuk, informatika...) egituratu eta koordinatuko duen departamentu arteko organo bat sortzea.

### INBERTSIOAK HEZKUNTZA-AZPIEGITURETAN ETA GARRAIOAN

- Energia-kontsumoa murrizteko *Passivhausen* estandarrak beteko dituzten ikastetxe berriak eraikitze eta lehendik daudenak modernizatzeko inbertsioa handitzea.
- Hezkuntza-komunitateak espazioak ikastetxearen hezkuntza-proiektura egokitu daitezen ahalbidetuko duten pleguak prestatzen parte har dezan bultzatzea.
- Eskola-garraioaren arazoa konpontzea hainbat udalerritan, hala nola Zizur Nagusian, Berriozarren, Uharten eta Tafallan.

### LANBIDE-HEZIKETA

- Lehenengo Plan Estrategikoa ebaluatzea, eta bigarrena egiten hastea, Nafarroako biztanleria aktiboari aukera emateko Nafarroako Espezializazio Adimentsuko S4 Estrategiarekin lotutako kalitatezko enplegetarako trebatzeko, erkidegoko bi hizkuntzak baliatuz eta Foru Erkidegoko eremu ezberdinen garapen ekonomikoarekin hertsiki lotuta egongo den hezkuntza-eskaintzaren bitartez.
- Hautatzeko informazioa eta orientazioa etapa goiztiarretan indartzea, ikasketa

## HEZKUNTZA

eta heziketa-ziklo jakin batzuetan dagoen genero-alborapena saihesteko.

- Giza Baliabideetan, inbertitzen jarraitzea ikastetxeetako ekipamendua modernizatzeko eta, irakasleen prestakuntza —Lanbide Heziketakoena ere barne—areagotzeko, metodologia aktiboan bidez.
- 2020. urteaz geroztik, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak diseinatu eta proposatu du Enplegurako Prestakuntzarako eskaintza. Gaur egun, ez dago batere prestakuntza-ekintzarik euskaraz. Euskarazko eskaintza ere egon dadin lan egingo dugu.
- Lanbide Heziketako Campus bat diseinatzea eta ezartzea Lizarraldean, eremuko eragileekin batera.
- Euskarazko eskaintza handitzea, titulazioei zein plaza-kopuruari dagokienez.
- Unibertsitatearen eta Lanbide Heziketaren arteko harremana sakontzea.

## GIZA BALIABIDEAK

- Deialdiak errazago kudeatzeko behar diren bitarteko informatikoak osatzea, hautagaiak ez aurkeztu behar izateko deialdi bakoitzean beren merezimenduak egiaztatzen dituzten dokumentuak.
- 47/2010 Foru Dekretua aldatzeko prozesua osatzea, Nafarroako ikastetxe publikoetako langileek -irakasleek zein gainerakoek- jasaten dituzten kanpoko erasoei erantzun azkarragoa eta eraginkorragoa emango dieten neurriak hartzeko.
- Enplegu Eskaintza Publiko berriak onartzea, hainbat lanpostu motatarako, hala nola hauetarako: Irakasleen Kidegoa (batez ere Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako espezialitateetan), Hezkuntzako Ikuskarrien Kidegoa, Musikako eta Arte Eszenikoetako Irakasleen Kidegoa (Kontserbatorio Profesionalerako) eta Musikako eta Arte Eszenikoetako Katedratikoen Kidegoa (Goi-mailako Kontserbatoriorako); era horretan, irakasleen-lanpostuen bitartekotasuna % 8tik beherakoa izatera helduko litzateke.
- Irakaskuntzako funtzio publikoan sartzeko arautzen duen abenduaren 27ko 17/2017 Foru Legea indargabetzea proposatuko dugu, unibertsitatekoak ez diren irakasleak sartzeko eta aldi baterako kontratatuzko zerrenda bakarreko sistema bat ezartzea ahalbideratuz, Nafarroako Foru Erkidegoko Administrazioaren beste arlo batzuetan dagoenaren antzerakoa.
- Foru Dekretua prestatzeko prozesua osatzea, zeinak, IX. legegaldiaren

amaieran abiarazi zelarik, unibertsitatekoak ez diren irakasleek izenpetutako kontratuak ikasturtez ikasturte automatikoki berritu daitezzen ahalbideratuko baitu –betiere horretarako beharra baldin badago–; hala, kontratua ez litzateke urtero etengo abuztuaren 31n (hori da egun gertatzen dena)..

- Zuzendaritza-eginkizunerako pizgarriak ezartzea, irakasleek borondatez har ditzaten kargu horiek.
- Erizaintzaren figura txertatzea ikastetxeetan.
- Bitarteko irakasleak: Aldizka, zerrendak berriro barematzea.
- Irakasleentzako prestakuntza-plan berritzaile bat diseinatzea eta martxan jartzea, XXI. mendeko hezkuntzarako beharrezko irakaskuntza-gaitasunak eguneratzea jasoko duena, eta teknologiaren integrazioa eta irakaskuntzako berrikuntza oinarritzat izango dituen.
- Baliabide ekonomiko gehiago bideratzea Irakasleen Laguntzarako Zentroetara, irakasleek aukera izan etengabe prestatu eta eguneratzeko hezkuntza-berrikuntzaren inguruan.



9.

# **ETXEBIZITZA ETA HIRIGINTZA**



Geroa Baik bultzatutako gobernu-ekimenak eta -jardunak –batez ere 2015eko aldaketa politikoaz geroztik– zuzeneko eragin nabarmena izan dute etxebizitzako, eraikuntzako, hirigintzako eta lurralde-antolamenduko politiketan, baita azkeneko urte hauetan abiarazitako lurralde-garapen jasangarrirako estrategien gobernantza-ereduan ere. Arlo horiei dagokienez, esan dezakegu **benetako paradigma-aldaketa gertatu dela azkeneko hamarkadetan ezagutu genituen politikekiko**; gehienbat interes pribatuek baldintzatzen zituzten politika haiek, etxebizitzaren zein lurzorua eta lurraldearen kudeaketan.

Etxebizitzaren erabileraren balioa, inbertsiorako ondasuntzat jotzen dutenen aurrean; etxebizitzaren eginkizun soziala lehenestea; pertsona guztiok etxebizitza duin eta kalitatezko bat izateko dugun eskubidea gauzatzea; etxebizitza publikoen parkea eta arrazoizko alokairu-prezioak dituzten etxebizitza-kopurua handitzearen aldeko apustua egitea; eta hirigintza trinkoago, sozialago, inklusiboago eta jasangarriago bat garatzea dira **Geroa Bairen azken urteotako jarduna markatu duten printzipioetako batzuk— betiere inspirazio progresista sakon batetik abiatu, kudeaketa eraldatzaile bat baliatuz eta politika horiek gizarte-kohesiorako eta berdintasunerako tresna bihurtuta—**, dela parlamentuko jardunean, dela Gobernuan eskumen-arlo horren arduradun izan garenean, dela kudeaketa eraldatzailearen bitartez, sozietate publikoen bidez.

Etxebizitzaren Foru Legea, 2016ko abenduan onartua, Etxebizitzarako Eskubide Subjektiboari buruzko Foru Legea, 2018ko abendukoa, eta, iaz onartu ondoren, 2022ko uztailaz geroztik indarrean dagoen Etxebizitzaren Foru Legearen azken aldaketa dira gure ibilbide arautzailea markatu duten arauetako batzuk. Aldi berean, maila operatiboan, hainbat tresna jarri dira martxan; esaterako, alokairuko etxebizitza publikoaren Navarra Social Housing plana; hiri-birgaikuntzarako eta -berroneratzerako Biziberri Plana; Nafarroako Lurralde Estrategiaren aldaketa; Pirinioetako Ekintza Plana; eta Bai-Building & Architecture Institute sortzeko proiektua, eraikuntzaren mundua eraldatzeko. Horiexek dira **printzipio horiek gauzatzea ahalbidetu duten jarduketa, tresna eta ekintzetako batzuk**.

Geroa Bai izan da orain arte Nafarroako etxebizitzaren eta hirigintzaren arloko norabide-aldaketa ahalbidetu duen funtsezko indar politikoa, bai 2015-2019 legealdiko Gobernuan, bai amaitu berri den legealdian; eta, orain, programa hau inspiratzen duten printzipioei eusteko eta horietan sakontzeko erantzukizun nagusia dugu; horretarako, printzipio horietan oinarriturik, **prozesu horre-**

**tan sakontzea eta urratsak egitea ahalbidetuko duten neurri berriak plan-teatuko ditugu datozen lau urteetan.**

## **PROPOSAMENAK:**

### **1. Etxebizitza-politikari duen balio estrategikoa aitortzea, eta egiturazko aldaketak bultzatzen jarraitzeko beharra dagoela onartzea.**

- Nafarroako Aurrekontu Orokorretan etxebizitza-politikatara bideratutako partidak handitzen joateko helburua izatea Gobernuak, BPGren % 1,5era heldu arte gutxienez.
- Programa berri bat ezartzea, finantza-esparru egonkorrekoa eta 10 urteko epera begira gutxienez, alokairuko etxebizitzaren promozio publikoari egiturazko babesa emango diona, salerosketaren aurretik.
- Berariazko funts bat sortzea, Gobernuak aukera izan dezan alokairuko etxebizitzaren sustapenak erosteko — betirako kalifikazioa indarrean sartu baino lehenagokoak—, etxebizitza horiek merkatu librerara pasatu aurretik, hala etxebizitza-sistema publikorako berreskuratzeko.
- 'Etxebizitzaren inguruko jarduketak egiteko diru-laguntzak' aurrekontu-partidan, bi funts hauek bereiztea: etxebizitzak birgaitzera bideratutakoak eta alokairuko etxebizitza babestuak sustatzera bideratutakoak, erosketa-lehiaketa bidez erosi ahal izateko sustapenak.
- Tokiko erakundeekin lankidetzan, berariazko programak ezartzea, hutsik dauden etxebizitzak alokairurako eskaintzara bideratzeko edo hiri finkatuaren barruan erabilerarik ez duten eraikinak berreskuratzeko, periferietako bizitegi-garapen berrien alternatiba gisa.
- Etxebizitza babestuen modulu haztatuak berrikustea —salerosketan eta alokairuan—, prezioak Nafarroako eremu ezberdinen artean dauden merkatuko alde arabera graduatzeko, eta despopulazioaren mehatxupean dauden eremuen alde egiteko.
- Erabilerarik gabeko beheko solairu komertzialak eta industria-eraikinak eraldatu edo gehiegizko azalerak dituzten etxebizitzak banandu daitezten sustatzea, etxebizitza babestu gehiago sor dadin hiri-bilbearen barruan, lurzoru gehiago kontsumitu beharrik gabe.
- Bizitegi- edo zuzkidura-lurzoruko erreserbak ezartzea, lurzoru finkatuan edo garapen berrietan, hainbat kolektiboren etxebizitza kolaboratiboko edo

cohousingeko ekimenen esku jartzeko; kolektibo horiek adineko pertsonen edo gazte osatutakoak izan daitezke, edo bestelako talde kooperatiboak.

- Sektore publikoaren aldetik, prestakuntzako, gaikuntzako, garapen teknologikoko edo ikerketako ekimen gehiago martxan jartzea, eraikuntza-eredua eraldatzeko, haren industrializazioa azeleratzeko edo zur ziurtatua egitura-elementu gisa sartzeko.
- Tokiko erakundeekin lankidetzan, etxebizitza publikoen parkea handitzea, bizitegi-arazo larriko egoera jakin batzuei aldi baterako erantzuna emango lieketen egoera txarreko bizitegi-zuzkidurak birgaitzeko.
- Hiri finkatuan zerbitzuak eta espazio komunak izango dituzten alokairuko apartamentuen sustapenaren aldeko apustua egitea, adineko pertsonentzako edo gazteentzako bizitegi-alternatiba gisa eta, aldi berean, haien aurreko etxebizitzak Alokairurako Poltsari laga diezazkioten sustatzea.

## **2. Geroa Baik bultzatutako Etxebizitzaren Foru Lege berria erabat garatzea eta beste arau-aldaketa batzuk**

- Alokairuko etxebizitzaren errenten prezioak arautzen dituen esparrua garatzea, araudiari, fiskalitateari eta operatibotasunari dagokienez, hainbat tresnaren bitartez, hala nola Errentamendu Kontratuen Erregistroa eta Alokairuen Jasangarritasun Indizea.
- Etxebizitza alokatzeagatiko etekinak sustatzeko edo zigortzeko neurri progresiboaren esparru fiskal bat ezartzea, kontuan izanik ea alokairuko errenten prezioak Alokairuen Jasangarritasun Indizea errespetatzen duten edo hura gainditzen duten.
- Etxebizitza babestua indartzea, bizitegi-eremu berrietako erreserbetan zein lehendik dauden eraikinetan, lehentasuna emanez, kasu bietan, erreserbak hiri-bilbean egiteari eta etxebizitza libreen garapen edo sustapen berberetan egiteari.
- Etxebizitzaren Zuzendaritza Nagusiko Ikuskapen eta Programen Hedapen Zerbitzuari aukera ematea urtebete baino gehiagoz hutsik dauden edukitzaile handien eta pertsona juridikoen etxebizitzak detektatzeko, eta, hala badagokio, erabilera-desjabetzearen figura aplikatzeko.
- Bizigarritasunari buruzko Foru Dekretuan etxebizitza eskuratzeko bestelako formulei lekua egitea, hala nola kooperatiba-araubideko edo jabetza kolektiboko etxebizitza kolaboratiboak, eta alokairurako laguntzen sistema

modalitate berri horietara zabaltzea.

- Alokairuko etxebizitza babestuen sustapenean edo birgaitze-proiektuetan BEZ murriztua aplikatu ahal izateko beharrezkoak diren arau fiskalen, oinarritzkoen edo foralen aldaketak bultzatzea, fiskalitateak jarduketa-mota biak estimula ditzan.
- Etxebizitzarako Eskubide Subjektiboari buruzko 28/2018 Foru Legea aldatzea, etxebizitza babestu baten desegokitasuna zehazten duten irizpideak zabaltzeko eta familia ugarien edo bizikidetzta-unitatean adineko pertsonak dituzten familien errealitatera hobeto egokitzen den erantzuna emateko.
- Lurzoruaren Foru Bankuari dagokion hirigintza-araudia aldatzea, Nafarroako Gobernuak, lurzoria Nasuvinsa sozietate publikoari atxikita, salerosketa-araubideko etxebizitza babestua sustatzeko aukera izan dezan.

### **3. Alokairuko etxebizitzen sistema publikoa handitzearen eta bultzatzearen aldeko apustu estrategikoa**

- Sustapen publikoko Navarra Social Housing plana garatzen jarraitzea eta hura indartzea, hainbat fasetan eta Foru Erkidegoko eskualde-mapa osoan zehar banatuta, alokairuko etxebizitzen parke publikoa nabarmen handitzeko.
- Etxebizitzak alokairu eskuragarriko sistema publikora atxikitze formulak aktibatzea, hutsik dauden etxebizitzak lagatzeko Alokairuko Poltsaren programaren, arlo publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzta-bideen edo ekimen kooperatiboen bitartez.
- Enpresa sustatzaile pribatuei zuzendutako sustapen-programa publiko-pribatuak ezartzea, prezio eskuragarriko errentamendu-etxebizitzak egin ditzaten, gero haien kudeaketa eta erabilera alokairurako etxebizitzen sistema publikora sartu ahal izateko.
- Etxebizitza-ikuskapeneko zerbitzuaren bitartez, mekanismo egokiak ezartzea handiagoa izan dadin errentamendu babestuko sustapen pribatuen eta haien kontratuak berritzeko baldintzen gaineko kontrola.
- Etxebizitza kolaboratiboko ekimen kooperatiboak edo azalera-eskubidearen lagapeneko araubideko cohousing proiektuak bultzatzea, alokairuko sustapen eta errentetarako diru-laguntzetarako errentamendu babestuko gainerako etxebizitzetarako baldintza beretan.
- Gazteentzako EmanZipa programaren alokairurako laguntzak 35 urte arteko gazteentzako zabaltzea, eta gutxieneko adina 21 urtera murriztea, errenta-

muga 700 € arte igotzea Iruñerrian, eta errentaren % 50eko laguntza mantentzea, baina gehieneko muga kenduta.

- Etxebizitzarako Eskubide Subjektiboari dagozkion programen diru-laguntzak beste kolektibo batzuei hedatzea –gazteez eta adingabekoak dituzten familia behartsuez gain–, hala nola adineko pertsonei, banandutakoei, familia gurasobakarrei, langabeei eta bestelako bizikidetza-unitateei.
- Etxebizitza babestuen eskatzaileen errolda bakarraren sistemaren eta esleipen-baremoen erreformari ekitea, benetako eskariari, kolektibo eskatzaileen aniztasunari edo udalerrri bakoitzaren errealitate sozialari hobeto egokitzen zaizkien erantzunak eman ahal izateko.

#### **4. Birgaitze- eta berroneratze-estrategia, eta hiri finkatuaren aldeko apustua**

- Etxebizitza-parkearen birgaitze energetikorako laguntza publikoak emateko ez-ohiko programak aktibatzea, laguntzen esparru iraunkorra osatzeko eta, Next Generation funtsak amaituko direla aurreikusita, horiek ordeztzeko, gaur egun dagoen goranzko dinamikari eutsi ahal izateko.
- Maila handiagoko jarduketak bultzatzea, narriadura-prozesuan dauden auzoak edo herriak berroneratzen lagunduko dutenak, eraikinak birgaitzeko laguntza publikoa egokituz, baina baita ingurune sozioekonomikoari laguntzeko ere, tokiko erakundeekin lankidetzan.
- Finantza-tresna berriak ezartzea edo lehendik daudenak hobetzea, etxebizitza-eraikinak birgaitzeko eta hiri-sarea berroneratzeko asmoz bizilagun-komunitateek edo tokiko erakundeek sustatutako proiektuak finantzatzen laguntzeko eta proiektuok abalatzeko.
- Birgaitze-proiektuetarako laguntzen baremoak berrikustea, eremu edo auzo jakin batzuek dituzten zaurgarritasun sozialeko egoerak eta eraikin-zaurgarritasuneko edo hiri-inguruneen degradazioko egoerak lehenesteko, Etxebizitza departamentuak berriki egin duen bisoreari jarraikiz.
- Etxebizitzak eta Eraikinak Birgaitzeko Bulegoen (EEBB) rola eta eginkizuna berrantolatzea edo birdefinitzea, rol aktiboagoa izan dezaten komunitateei laguntzeko eraikinen birgaitze energetikoko proiektuetan, bai eta komunitateok dinamizatzeko eta beren parte hartzea bultzatzeko.
- Etxaldean administratzaileen rola sustatzea, eragile aktibo edo bitartekari izan daitezkeen etxebizitza-eraikin kolektiboen birgaitze energetikoko proiektuetan



administrazioen, eragile profesionalen eta bizilagun-komunitateen artean.

- EEBBetan edo birgaitze-proiektuetan laguntzeko, auzo-bulegoetan aholkularitza energetikoko lantaldeak eta zerbitzuak jartzea, etxebizitza-erakin kolektiboetan autokontsumo komunitarioko instalazioak jartzen laguntzeko.
- Eraikinen birgaitze energetikoarekin batera, instalazio termikoak hobetzeko eta, are, modu koordinatuan energia berriztagarriak ezartzeko programa bat aktibatzea, laguntza publikoen gradazioa ahalbidetuko duena.
- Berogailu komunitarioen instalazioak eta auzoko sareak babesteko esparru bat ezartzea, laguntza publikoak hobetzen eta eredu hori hedatzen lagunduko duena, trantsizio energetikoko testuinguru batean.
- Nafarroako bizitegi-parkeak duen irisgarritasun-egoerari eta -mailari buruzko mapa bat egitea, eta Foru Erkidegoko eraikin guztiek irisgarritasun unibertsalaren printzipioari erantzuteko helburua betetzeko epe bat ezartzea.
- Eraikuntzako, bizigarritasuneko eta ondarearen kontserbazioko araudiak edo horien interpretazioa berrikustea, babestutako birgaitze-lanen baldintzak landa-ingurunearen errealitateak erakusten dituen etxebizitza-tipologiara edo inguruabarretara egokitzeko.
- Alokairuko etxebizitzaren parke publikoan eraikinen birgaitze energetikorako eta energia berriztagarriak sartzeko Nasuvinsa sozietate publikoak aktibatutako programari jarraipena ematea eta indartzea.
- Landa-eremuko udal-titularitateko eraikin erabilgabeetan alokairuko etxebizitzak sustatzeko indarrean dagoen birgaitze-plana Nafarroako eskualde guztietara hedatzea, eremu bakoitzeko gazteen eskariari erantzuteko eta biztanleak eremu horietan gera daitezen laguntzeko.
- Hiriguneetako eraikin historikoak birgaitzeko tresna teknikoak eta finantzarioak aktibatzea, interbentzioa ekonomikoki bideraezina denean, baina baita beharrezkoa ere, ikuspegi sozialetik edo hiria berroneratzearen ikuspegitik.
- Babestutako birgaikuntzarako Biziberri planaren laguntza-esparruan etxebizitza-erakinetan amiantoaren kentzeko berariazko laguntza-ildo bat gehitzea, amiantoaren departamentu arteko jarduketaren arabera.

## **5. Antolamendu-planetan eta hirigintza-planetan hiri- eta lurralde-jasangarritasuneko printzipio berriak ezartzea**

- Nafarroako Lurralde Estrategiari arau maila loteslea ematea, bai eta haren garapenean inplikaturik dauden Nafarroako Gobernuko departamentuen eta tokiko erakundeen parte-hartzea eta konpromiso loteslea ahalbidetuko duen esparru bat ere.
- Lurralde-antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Lege berri bat idaztea eta onestea, prozedura administratiboak bizkortuko dituen hirigintzako espedienteetan edo plangintzen aldaketetan, 1.000 biztanle baino gutxiago udalerrietarako eredu sinplifikatu bat baliatuz.
- Eskualde-proiektuen hirigintza- edo lurralde-garapenetan konpentsazioko mekanismoak txertatzea, haien ezarpenak eragin ditzakeen inpaktu positiboek zein negatiboek eremuko udalerrri guztietan izan ditzaten ondoreak.
- Foru Erkidegoak, mankomunitateek edo tokiko erakundeek energia berriztagarriak sortzeko parkeak ezartzetik eratorritako energia-aprobetxamenduetan parte hartzeko mekanismoak ezartzea.
- Espazio publikoak, zuzkidurak edo zerbitzuak ikuspegi inklusibo baten arabera egokitzeko parte-hartze prozesuak eta hirigintza taktikoko interbentzioak sustatzeko jarduketa-ildo egonkor bat irekitzea, tokiko erakundeekin lankidetzan.

## **6. Tokiko dinamizazioko lurralde-garapen jasangarriko estrategiak garatzea eta landa-eremu bizi bat sortzea**

- Lurralde-kohesioko funts bat sortzea, Nafarroako eskualde zaugarrietan bizi diren herritarren bizi-kalitatea eta garapen jasangarria bultzatuko dituzten programak eta proiektuak gauzatuko dituen, gaur egun dauden lurralde-desberdinkeriak murrizteko.
- Lursarea lurralde- eta jasangarritasun-agentziaren eskutik, Pirinioetako

Ekintza Planaren gobernantza-eredu berria despopulazioaren mehatxupear dauden beste lurralde batzuetan ere baliatzea, hala nola Lizarraldean/Urbanan, Zangozan eta Pirinioaurrian eta Nafarroako Erdialdean.

- Udalek eta natura-espazioen kudeatzaile diren eragileek osatzen duten Nafarroa Ezagutu Sarea indartzea eta handitzea, eremu bakoitzean tokiko garapenari lagunduko dioten azpiegitura, zerbitzu eta ekimenetan inbertitzeko gaitasuna hobetzeko.



10.

**EMAKUMEEN  
ETA GIZONEN  
ARTEKO  
BERDINTASUNA**



Emakumeen eta gizonen arteko eskubide- eta aukera-berdintasun eraginkorra eta benetakoa lortzeko, beharrezkoa da eragile sozial, ekonomiko eta politiko guztiak, mugimendu feminista eta, azken batean, gizarte osoa inplikatzeko. Erakundeok bultzatzen ditugun politika publikoek, beraz, ahalik eta babesik handiena jaso behar dute, denboran zehar iraun dezaten eta behar adinako zuzkidura ekonomikoa izan dezaten ziurtatzeko.

Nafarroan, talde feministen esperientzia eta bultzada eta 2015. urteaz geroztik dugun lege-esparrua oinarri ona dira berdintasun-politikek bultzatzeko, nahitaezkoak baitira, baina beharrezkoa da orobat onetsita dauden planetan aurreikusitako programak eta tresnak ezartzeko prozesua azkartzea. Arreta berezia eskaini behar zaie landa-eremuko emakumeei, berariazko erronkak, zailtasunak eta beharrak baitituzte.

Espainiako Gobernua ematen ari den irudi tamalgarriaren aurrean, protagonista direlarik kausa feministaren buru agertzeko borroka irekia apenas disimulatzen duten bi alderdiak (eta horrek desberdinkeria ukatzen dutenen alde bakarrik egiten du), Nafarroan gai izan gara azken zortzi urteotan zeharkako adostasun bateratzaile zabalak sortzeko. Horixe da bermerik onena, berriki onartutako lege garrantzitsuek jarraitutasuna izan dezaten. Hor ditugu, esaterako, 14/2015 Foru Legea, emakumeen aurkako indarkeriari aurre egitekoa; 8/2017 Foru Legea, LGTBI+ pertsonen berdintasun sozialari buruzkoa; 17/2019 Foru Legea, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzkoa; edo funtsezko arau bidezko erregulazioak, hala nola Sexu eta Ugalketa Osasunari buruzko 2016ko Dekretua (dekretu horri esker, Nafarroako emakumeek sare publikoan eten dezakete haurdunaldia, eta lehen aldiz ematen zaie osasun publikoan ugalkortasun-tratamendua jasotzeko aukera emakume lesbianeiei edo bikotekiderik ez dutenei).

Lanean jarraitu behar dugu araudi hori benetan bete dadin, baita adostasunak bilatzen ere, berdintasunaren aldeko lanak etenik izan ez dezan.

## **PROPOSAMENAK:**

### **1. Berdintasunean hezteak**

- 2017/2018 ikasturtean Skolae hezkidetza-programa onartu eta ezartzeak sortu zituen itxaropenaren eta ilusioaren ondoren, nolabaiteko etsipena eragin du legealdi honetako anbizio faltak. Beharrezkoa da programa

hori Nafarroako ikastetxeetan ezartzeko prozesua azkartzea, Nafarroako ikasle guztiek izan dezaten haien ikastetxeetan hezkuntza berdintasunean jasotzeko aukera.

- Nafarroako Unibertsitate Publikoak gradu guztietan eskainiko du genero-berdintasunaren inguruko trebakuntza, gradu bakoitzaren beharrak eta zehaztasunak kontuan hartuta.
- Udaletako teknikariek eta politikariek ere jasoko dute berdintasunaren inguruko prestakuntza, haien eguneroko jardunean berdintasun-politiken zeharkakotasuna ziurtatze aldera.

## **2. Genero-indarkeriaren aurkako borroka**

- Istanbuleko Protokoloan ezarritakoarekin bat etorriz, emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko 14/2015 Foru Legetik eratorritako Ekintza Plana erabat garatzea, antolaketa-aldaketak eginda eta behar adinako finantziazio egonkor batekin.
- Genero-indarkeriaren biktimak hartzeko baliabide-eredua hobetzea. Azkeneko urtetan indartu egin dira baliabideak, baina oraindik hobekuntza kualitatibo eta kuantitatibo garrantzitsuak egin behar dira.
- "Arreta integralerako 24 orduko zentroari" eta sexu-indarkeriaren biktimei laguntzeko izango duen funtzioari babes politikoa eta aurrekontu bidezko babesa ematea; datozen hilabeteotan irekiko da Iruñean, europar funtsen bitartez finantzatuta.
- Aisialdiko eta jaietako guneeetan sexu-erasoak prebenitzeko protokolo bat onartzea eta martxan jartzea, Nafarroaren gizarte- eta lurralde-aniztasunari egokituko zaiona.
- Klitoriaren ablazioaren aurkako protokoloa berrikustea; hamar urteko ibilbidearen ondoren, beharrezkoa da protokolo hori berritzea eta eguneratzea.

## **3. Zainketen Sistema Publikoa**

- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko apirilaren 4ko 17/2019 Foru Legearen gidalerroei jarraituz, sistemaren erdigunean jarri behar dugu bizitzaren jasangarritasuna, eta pertsona guztiek zainketa duinak izango dituztela bermatu behar dugu. Batez ere, behar gehien dituzten talde

sozialetan, zaugarritasun- edo mendekotasun-egoera berezian daudelako, bai eta adineko pertsonen eta 0-3 urteko adingabeen kasuan ere. Hori guztia, "zaintzaileak zaintzeko" beharraz ahaztu gabe: onartezina da sektore horretako langile askok eta askok bizi duen prekarietate-egoera muturrekoa.

- Nafarroa osoan benetan ezartzea Nafarroako Berdintasunerako Institutuak bultzatutako Zainketen Aldeko Tokiko Itunak.
- Administrazio publiko guztietan, berdintasunaren aldeko politikak zeharka gauzatzeko behar adinako egitura sortzea edo finkatzea. Zehazki, berdintasun-zinegotzigoak eta berdintasuneko teknikarien eta agenteen lanpostuak. Nafarroako Berdintasun Teknikarien Sareak berriki Parlamentuan utzi zizkigun aldarrikapenei erantzutea.
- Diskriminazio positiboko neurriak hartzea familia gurasobakarrentzat; dagoeneko % 10 dira era horretako familiak, eta emakumeak dira familiaburu gehienetan (hamarretik zortzi). Zainketekin lotutako hezkuntza-, osasun- eta gizarte-zerbitzu publikoetara eta bestelakoetara irispidea izateko aukeraz ari gara, baita beste eskubide batzuez ere (lan-arlokoak, amatasun-baimenak, etab.)

#### **4. Berdintasuna lan-arloan**

- Emakumeen lan-arloko diskriminazioekin amaitzeko neurri eraginkorrak ezartzea. Egiturazkoak diren desberdinkeria-egoeren aurrean -hala nola emakumeen enplegu-tasa txikiagoa, langabezia-portzentaje handiagoa, soldaten eta pentsioen arrakala, kristalezko sabaiak, "zoru itsaskorra" edo soldata txikiagoak emakume gehien dagoen sektoreetan-, kontzientziatzeko (enpresen eta administrazioen berdintasun-planak, esaterako), salatzeko eta ikuskatzeko mekanismoak behar ditugu.
- Enpresetan Berdintasun Planak egin eta ezar daitezten sustatzea. Ez legez behartuta daudenetan soilik (50 langile baino gehiagoko enpresak; eta halakoen % 50ek ez du planik oraindik), baizik eta Nafarroako enpresa txiki eta ertain guztietan, pizgarriak eskainita.
- Nafarroako Gobernuaren I. Berdintasun Plana garatzea.

## 5. Askotariko diskriminazioak

- Aurrez aipatutako diskriminazio-egoera guztiak larriagotu egiten dira diskriminatzailea edo desberdinkeria-iturri izan daitekeen egoera bat baino gehiago aldi berean gertatzen denean; egoera horiek izan daitezke klase sozialari, arrazari, etniari, orientazio sexualari, sexu- edo genero-identitateari, desgaitasunari, bizilekuari edo sozialki kaltegarriak diren beste alderdi batzuk barne hartzen dituzten bestelako inguruabarrei dagozkienak. Erakunde publikoek arreta berezia eskaini behar diote inguruabar horiek prebenitzeari eta kontuan izateari, bai eta diskriminazio positiboko politikak aplikatzeari ere, egiturazko desberdinkeriak konpentsatzeko.
- Ikuspegi horrekin bat eginik, landa-eremuetan bizi diren emakumeentzako ekintza positiboko neurrietan sakonduko dugu.
- Pertsonen salerosketa eta sexu-esplotazioa gaitzestea, desberdinkeria muturreko fenomenoak baitira, eta horiek eragiten dituzten kausak desagerrarazteko neurri integralak bultzatzea. Ez da zentzuzkoa emakumeen sexu-esplotazioaren aurka protesta egitea, esplotazio horri bide ematen dioten egiturazko egoerei jaramonik egin gabe, hala nola muturreko desberdinkeria sozioekonomikoei eta Atzeritartasun Lege zorrotz bezain eraginkortasunik gabeari. Are gutxiago, Nafarroako Errenta Bermatua onartzen ez den bitartean, kontuan izanda neurri hori dela gure erkidegoko neurri garrantzitsuena desberdinkeriak ez areagotzeko. Beharrezkoa da prostituzioa utzi nahi dutenei benetako lan-aukerak ekarriko dizkieten neurri eragingarriak hartzea, eta berdintasunezko harremanetan oinarritutako hezkuntza sexuala eta emozionala bultzatzea gizartean, gizonen artean bereziki.

## 6. Sexu- eta genero-aniztasunari arreta

- Nafarroako LGTBI+ pertsoneri eta kolektiboari arreta ematera bideratutako egitura publikoa finkatzea, zeina pertsonen berdintasun sozialerako 8/2017 Foru Legea betetzeko sortu baitzen, eta egitura horri baliabide gehiago eta autonomia handiagoa ematea.
- Kattalingune LGTBI+ Pertsonen Arreta Integralerako Zerbitzuaren aurrekontua eta langile-kopurua leheneratzea, Presidentzia Departamentuak

eta Nafarroako Berdintasunerako Institutuak legealdi amaieran ezarritako murrizketak baztertuz. Finkatu egin behar dugu Kattalingunek bereziki gure erkidegoko landa-eremuetan azken urteetan herritarrei eskaini dien arreta.

- Beharrezko mekanismoak gaitzea Nafarroako Gobernuak aukera izan dezan pertsona transexualek egin beharreko erregistro-aldaketa guztiak modu global eta zentralizatuan egiteko.
- Geroa Baik eskatuta Nafarroako Parlamentuak onetsi bezala, hitzarmen bat sinatzea Nafarroako Gobernuaren eta Eusko Jaurlaritzaren artean, genitalak aldatzeko ebakuntza behar duten pertsonen aukera emango diena Bizkaiko Gurutzetako Ospitalean egiteko ebakuntza eta ez Malagan, hori baita gaur egun erkidegoak esleituta duen erreferentziako zentroa.

## **7. Berdintasunezko maskulinitateak garatzea**

- NABI ("Nosotros – Noski" programaren bitartez) eta Nafarroako zenbait udal balio eta jardunbide feministak kontuan hartzen dituzten berdintasunezko maskulinitateak garatzeko eta ikusarazteko azken urteetan egiten ari diren lanean sakontzea eta lan hori zabaltzea.







B

6

A





11.

# **HIZKUNTZA-POLITIKA**

## 1. ANALISIA

Hizkuntza-politika da Geroa Baik Nafarroa progresista indartzeko duen konpromisoaren euskarrietako bat. Azken bi legealdietan, Gobernuan izan duen erantzukizunetik abiatu, ezberdinen arteko kontsentsuak lortzeko eta herritar guztien eskubideak errespetatuko dituen gobernu-jarduna garatzeko ahalegina egin du.

Geroa Bairen ekarpenari esker –2015ean Gobernu progresistaren buru, eta 2019an Gobernu osatzeko aukera emanez–, hizkuntza-politika partizipatibo eta zeharkako bat bultzatu da, euskara gizarte osoan sustatzea eta normalizatzea bilatzen duena eta pertsonen borondatea errespetatzeko printzipioarekin bat egiten duena.

2019an abiarazitako zikloan, zehazki, funtsezkoa izan da bizikidetzaren alde lan egitea, Nafarroak, betiere nortasun askotarikoak errespetaturik, aurrera egin dezan gizarte gero eta ireki eta askotariko bat lortzeko prozesuan. Eta benetako bizikidetzaren lortzeko bidean aurrera egiteko, beharrezkoa da herritar guztien hizkuntza-eskubideak errespetatu daitezkeen bermatzea eta, beraz, Nafarroako bi hizkuntzetako edozeinetan hitz egiteko askatasuna bermatzea.

2019tik 2023rako legealdian kontsentsuak lortzeko egindako ahalegina *bizikidetzako eta berdintasunezko legealdi berritzaile eta progresista baterako programan* gauzatu zen; honako konpromiso hauetan zehazten da programa hori:

- Euskararen inguruko akordio sozial eta politiko zabal bat bultzatzea, gure erkidegoaren errealitate soziolinguistikoa kontuan hartuta, euskara alderdikieratik eta konfrontaziotik aldentuz
- Komunikabideetan euskara sustatzea, helduei euskara irakastea, arlo sozioekonomikoan, bizitza sozialean eta kulturean ere euskara sustatzea, batez ere gazteenei zuzendutako programen bidez.
- Gizartean euskara eta haren erabilera sustatzeko, lankidetzan jardutea erakunde publikoekin eta erakunde eta eragile sozialekin .
- Kontuan hartzea Espainiako estatuak Eskualde Hizkuntzen edo Hizkuntza Gutxituen Europako Kartari dagokionez hartutako konpromisoak eta Europako Kontseiluko Ministroen Batzordeak ematen dituen gomendioak.
- Nafarroako Gobernuari behar adinako aurrekontua eta behar adina baliabide ematea hizkuntza-politika behar bezala aplikatzeko.

## 2. LEGEALDIAREN BALANTZEA

2019-2023 legean egindako lanaren balantzea positiboa da, oro har, Geroa Baik gobernu-programan jasotzen ziren konpromisoak betetzeko izan duen konpromisoari esker. Ondorengo ekintza hauetan gauzatu dira lorpenok:

- Nafarroako Gobernuaren irudi korporatiboa elebiduna izatea lortu da
- Handitu egin da euskararen presentzia gizartean:
- Handitu egin da euskarazko komunikabideen finantziazioa, eta hobetu egin dira informazioa euskaraz ere editatzen duten gaztelaniazko komunikabideentzako laguntzak.
- Lankidetzeta herritarrei zuzendutako euskarazko jarduerak antolatzen dituzten irabazi asmorik gabeko erakundeekin. Handitu egin da laguntza-deialdien zuzkidura, eta euskararen erabilera soziala (Euskaraldia, adibidez), eta eskolatzeko adinean dauden haurren eta gazteen aisialdian eta denbora librean eta kultura-arloan euskara sustatzeko hitzarmenak sinatu dira.
- Handitu egin dira tokiko erakundeentzako baliabide ekonomikoak, Euskararen Udal Planak egin ditzaten, bai eta euskara sustatzeko jarduerak egiten dituztenentzat ere.
- Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologietan eta ingurune digitalean euskararen erabilera sustatzeko programak garatu dira, gazteei zuzenduta:
  - » Sarean Euskaraz.
  - » Euskarazko ondare immaterialaren zabalkundea egin da haurren artean, bideo didaktikoak erabilita.
- Handitu egin da eskolatzeko adina dutenei zuzendutako euskarazko kultura-jardueren eskaintza, eta arreta berezia eskaini zaie udalerrri txikiei eta Nafarroako Erdialdean eta Erriberan daudenei, Gora Gora Fest programaren bitartez.
- 2020-2022 aldirako Departamentuen Hizkuntza Planak onetsi eta martxan jarri ziren, administrazio publikoetan euskararen erabilera arautzen duen 103/2017 Foru Dekretua aplikatuz.
- Euskararen Bigarren Plan Estrategikoa egin da, herritarrei irekitako prozesu partizipatibo baten bitartez, eta Euskararen Nafarroako Kontseiluan ordezkaturik dauden erakunde sozialek parte hartu dute.
- 2020-2023ko Nafarroa Suspertu Planean, berriazko neurriak txertatu ziren aurrerapausoak eman zitezten helduei euskara irakasteko, haurrei eta



## HIZKUNTZA-POLITIKA

gazteei zuzendutako edukiak sustatzeko eta administrazio publikoan arreta euskaraz eskaintzeko bidean. Plan horrek kohesio- eta aniztasun-faktoretzat jotzen du euskara eta, kontsentsu soziopolitikoan sakontzen den neurrian, bizikidetzan aurrerapausoak ematea ahalbidetuko duela planteatzen du.

- Euskara arlo sozioekonomikoan bultzatzeko, Euskara Langai programa jarri zen martxan.
- Urratsak egin dira helduei zuzendutako euskararen irakaskuntza doakoa izateko konpromisoan, aurrekontua nabarmen indartuta.
- Euskararen eta euskara sustatzearen aldeko kontsentsu soziala indartu da, eta hobetu egin da euskararen balorazio soziala. Horretarako, euskara positibo eta aberasgarritzat aurkezten duten sustapen- eta sentsibilizazio-jarduerak egin dira, hala nola *Regálales el euskera y llegarán muy alto / Euskararekin gora eta gora beti* kanpaina.
- Nafarroara etortzen diren herritarrak informatzeko kanalak jarri dira martxan. Gero eta jatorri eta hizkuntza ezberdin gehiagoko jendea bizi da gure artean.
- Euskara eta euskararen erabilera sustatzeko aurrekontu-zuzkidura hobetzeko ahalegin handia egin da. 2015ean, 2,1 milioi eurokoa zen Euskarabidearen aurrekontua (Nafarroako Aurrekontu Orokorren % 0,06). 2019an, 7,3 milioiokoa izatera iritsi zen (Nafarroako Aurrekontu Orokorren % 0,17). Eta 2023an, 11,3 milioiokoa da (Nafarroako Aurrekontu Orokorren % 0,19).
- Euroeskualdearen alorrean, Hiruko ituna sinatu zen, hizkuntza-politikaren arloan Eusko Jurlaritzaren, Euskararen Erakunde Publikoaren –Office Public de la Langue Basque– eta Nafarroako Gobernuaren arteko lankidetzarako oinarria.
- Nafarroako Gobernuaren eta Eusko Jurlaritzaren arteko lankidetzarako Protokolo Orokorra sinatu zen 2021eko abenduan eta, besteak beste, euskara normalizatzearen eta sustatzearen alde batera lan egiteko ekintzak jasotzen ditu.
- Hizkuntza propioa duten autonomia erkidegoekin eta europar organismoekin ere areagotu da lankidetzak, Hizkuntza Aniztasuna Sustatzeko Europako Sarearekin (NPLD), esaterako.

Hala ere, balantze honetan ezin da ahaztu Nafarroako Alderdi Sozialistak, legealdiaren amaieran, Nafarroako eskuinari dion beldurrak gidatuta jokatu duela, eta, hala, aldatu egin duela Programa Akordioan jasotako neurriekiko hartu zuen konpromisoa, eta euskara Nafarroa osoan sustatzearen konpro-

misotik aldentzea erabaki duela. Aldaketa horrek neurri oso garrantzitsuak **geldiaraztea** ekarri du:

- PSNk Euskararen Bigarren Plan Estrategikoa onets zedin galarazi du. Plana prestatzeko prozesua partizipatiboa izan zen, Gobernuko Departamentuekin kontrastatu zen, eta Euskararen Nafar Kontseiluari aurkeztu zitzaion kontsultarako, zeinak aldeko irizpena eman baitzuen 2022ko abenduan. Hutsegite horrek, baina, ez du eragin Geroa Baik hizkuntza-politikan hartutako konpromisoen garapena etetea; izan ere, Gobernuaren jardunean aurrera doaz Programa Akordioan ezarrita dauden ardatz estrategikoak.
- PSNk uko egin dio euskara Nafarroa osoan Funtzio Publikora sartzeko merezimendu gisa baloratzeko aukerari, nahiz Nafarroako Kontseiluak adierazi duen ez dela legez kontrakoa Eremu ez-euskaldunean euskara baloratu ahal izatea. Geroa Baik PSN presatu du, Eremu Mistoan euskara merezimendu gisa baloratuko duen arau bat onartzeko prozesua tramita dezan. Neurri erdibidekoa baino ez den arren, egungo egoerarekiko aurrerapauso bat izango litzateke.
- Herritarrentzako zuzeneko arretako lanpostuetan euskara baldintza gisa ezartzeko tramitazioa ere geldiarazi egin du PSNk; neurri hori Departamentuek proposatua da beren hizkuntza-planetan.
- Azkenik, zenbait udalek —Mañerukoak esaterako— Eremu Mistoan sar ditzatela eskatzeko egin duten eskaera blokeatu du Parlamentuan. Erabaki hori oso garrantzitsua da; izan ere, PSNk ez du kontuan hartu Programa Akordioan hartutako konpromisoa, ez baitu errespetatzen Udalak aho batez hartutako erabakia, ez eta udalerrri horren errealitate soziolinguistikoa ere.

### 3. PROPOSAMENAK

Aniztasunean oinarritutako bizikidetza-esparru batean, euskararen prestigioa, ezagutza eta erabilera sustatzea izan da azken bi legegaldi hauetan garatutako hizkuntza-politikaren ardatz nagusia. Hurrengo legegaldian ere beharrezkoa izango da horretan sakonduko duten adostasun politiko eta sozial progresistak eraikitzen jarraitzea.

Geroa Bairen konpromisoa da politika horiek bultzatzen jarraitzea eta euskararen eta euskararen promozioaren aldeko adostasun soziala indartzea, gizartean duen balorazioa hobetzeko. Hori guztia, Nafarroaren aniztasuna eta errealitate soziolinguistikoa kontuan hartuta.

Jarraian, garatu beharreko ardatz estrategikoak eta neurriak xehatzen dira:

- Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoa berritzeko eta eguneratzeko prozesuan, 9. artikulua aldaketa onestea, zonakatze murriztailea bertan behera uzteko eta Foru Erkidegoan hizkuntza-arrazoiengatik inor diskriminatu ez dadin bermatzeko.
- Foru Lege berri bat onartzea, herritar guztien hizkuntza-eskubideak bermatzeko, eta gaur egungo zonakatzean dauden irizpide murriztaileak gainditzeko. Neurriak hartuko dira herritarrek nahi duten hizkuntza erabiltzeko aukera izan dezaten Administrazio publikoarekiko harremanetan, eta herritarren borondatea errespetatuko du aukera horretan.
- Foru Araua garatzea eta garapen hori onestea; garapen horrek aplikatu beharreko irizpideak objektibatu beharko ditu eta, era horretan, beharrezko segurtasun juridikoa emango du.
- Nafarroako Gobernuak Hizkuntza Gutxituen edo Eskualde Hizkuntzen Europar Kartari atxiki zitzaionean hartu zituen konpromisoak Nafarroan indarrean dagoen araudian eta plangintzan txertatzea, eta, hala, hizkuntza propioak sustatzeko gomendio orokorra ere txertatzea.
- Helduei zuzendutako euskararen irakaskuntza eta haren finantziarioa arautuko duen berriazko araudi bat onartzea, ikasi nahi duenari doakotasuna bermatzeko.
- Tokiko erakundeekin eta gizarte-eragileekin lankidetzan, ikasleen ahozko komunikazio-gaitasuna hobetzera bideratutako programak garatzea eta baliabideak gehitzea.
- Euskararen Bigarren Plan Estrategikoa onartzea, Euskararen Nafarroako Kontseiluak 2022ko abenduaren 21ean onetsitakoari jarraituz.
- Nafarroara etorri diren jatorri, hizkuntza eta kultura ezberdinetako pertsonekin elkartzeko eta elkar trukerako foroak sortzea. Elkarrenganako ezagutza horretatik abiatuta, hala erabakitzen dutenek euskara ikasteko edo euskaraz ikasteko trebakuntza-programak prestatuko dira.
- Foru Erkidegoko Administrazioak arreta euskaraz emateko eta euskaraz zerbitzu gehiago emateko neurriak ezartzen jarraitzea hori eskatzen duten herritarrentzat, Departamentuen 2023-2027 aldirako Hizkuntza Planak martxan jarrita. Garatu beharreko neurriak lehentasuna izango dute euskal hiztunen portzentaje handiko lekuetako biztanleei arreta ematen dieten zerbitzu publikoetan.

- Euskarazko eta gaztelaniazko arreta unibertsala eskaintzeko bidean, pediatriako arreta bi hizkuntzetan eskainiko duten osasun-zentroen sare bat ezartzea, gurasoek aukera izan dezaten arreta zentro horietan jaso nahi dutela eskatzeko.
- Euskarazko trebakuntza-eskaintza handitzea administrazio publikoen zerbitzura lan egiten duten langileentzat eta herritarrei aurrez aurreko arreta edo arreta telematikoa eskaintzen dieten Nafarroako sozietate publikoetako langileentzat.
- Foru Erkidegoko Administrazioari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legea garatzea; 69. artikuluan ezartzen du [www.navarra.es](http://www.navarra.es) atariak euskaraz zein gaztelaniaz egon behar duela. Nafarroako Parlamentuan 2022ko otsailean aho batez hartutako erabakia betetzea; erabaki hartan, Nafarroako Gobernuari eskatzen zaio berma dezala tramite elektronikoak euskaraz egiteko aukera
- Eraldaketa digitalarekin, adimen artifizialarekin eta hizketaren sintesiarekin zerikusia duten garapen guztietan euskara txertatzea; izan ere, ingurune digitaletan, administrazio elektronikoan eta Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologietan Nafarroako hizkuntza bietan berdintasun-baldintzetan aritzea da aukera-askatasuna errespetatzeko bermerik onena.
- Departamentuen Hizkuntza Planak aplikatze aldera, administrazio publikoetako behar adina lanposturentzat eskatzea euskara, herritarrei arreta euskaraz ere emango zaiela bermatzeko.
- Nafarroako administrazio publikoetako lanpostuetara aurkeztean eta lanpostuok betetzean, euskara merezimendu gisa baloratzea arautuko duen Foru Dekretu bat onestea. Foru Erkidego osoan egingo da euskararen balorazioa, tokian tokiko errealitate soziolinguistikora egokituta. Nafarroako administrazio publikoetako lanpostuak betetzeari buruzko Erregelamenduan txertatuko da balorazio hori.
- Estatuko Administrazio Orokorrarekin kolaboratzea, Nafarroako herritarrek agiri ofizialak –hala nola NANA eta gida-baimena– euskaraz ere eskuratzeko beharrezko neurriak aztertzeke.
- Europako Kontseiluko Ministroen Batzordearen gomendioak betetzeko beharrezko neurriak hartzea, gomendiook Nafarroan eragina baldin badute, dela Justizia Administrazioan, dela zerbitzu publikoetan. Nafarroan herritarrei arreta ematen dien Estatuko Administrazioa inplikatzeko, gomendioen aplikazioan aurrerapausoak eman ditzan.

## HIZKUNTZA-POLITIKA

- Nafarroako hizkuntza-errealitate ezberdinen arteko bizikidetzarekin zerikusia duten alderdiei eta euskara bizikidetzarako balio gisa sustatzeari buruzko aldizkako foroak eta jardunaldiak antolatzea, herritarren, adituen, instituzioen eta erakunde sozialen parte-hartzearekin.
- Euskararen Foru Legeak ezarritakoari jarraikiz Nafarroako herritar guztiek euskara jakiteko duten eskubidea bermatzeko, eskolatzeko adinean dauden ikasle guztiek euskararen gutxieneko ezagutza izateko aukera aztertzea, eragile sozialekin eta politikoekin batera.
- Eragile sozialekin kolaboratzea, batez ere Nafarroa Erdialdekoekin eta Erriberakoekin, haien proposamenak ezagutzeko, eta eremu horietarako kultura- eta dibulgazio-proiektuak bultzatzeko.
- Helduentzako euskararen irakaskuntzan inplikaturik dauden eragile guztiekin lan egitea (ikastetxe publikoak eta ekimen sozialekoak), eta irakaskuntza hori, horretarako finantziarioa eta Nafarroan bizi diren pertsona guztien euskara ikasteko berdintasuna erregulatuko duen araudi bat prestatzea.
- Euskarazko komunikabideentzako finantziario-formulak onartzea, haien egonkortasuna bermatzeko, kalitatea sustatzeko eta haien eraldaketa digitala eta komunikabideok formatu eta euskarri berrietan eskuratzeko aukera bultzatzeko.
- Gaztelaniazko komunikabideek euskarazko informazio-dukien presentzia handitu dezaten laguntzea herritarrengana iristeko erabiltzen dituzten euskarrietan.
- ETB1 eta hurrei eta gazteei zuzendutako ETB3 kate tematikoa Foru Erkidego osoan ikus dadin bermatzea
- RTVE taldearen CLAN kate tematikoak Foru Erkidego osoan euskarazko edukiak eskain ditzan bultzatzea
- Nafarroako sektore ekonomikoetan euskara sustatzeko laguntzak indartzea; merkataritzaren eta zerbitzuen sektorean bereziki. Euskara Langai programa bultzatzea, Nafarroako enpresen jardunbide egokiak ezagutzeko eta interesdun enpresetan euskararen sustapena bultzatzeko foro gisa.
- Euskaraz egiten diren kultura- eta kirol-programen eta -jardueren eta bestelako informazioa emango duen agenda bat martxan jartzea. Euskarri-mota guztietan egon beharko du eskuragarri, familiek, hezkuntza-eragileek, gazteek eta interesa duten pertsonak jardura horiei buruzko informazio osoa eta eguneratua jaso dezaten.



- Euskarazko baliabide eta eduki digital gehiago sortzea, batez ere haurrei eta gazteei zuzenduak.
- Euskara eta euskararen erabilera sustatzeko lan egiten duten eragile sozialekiko lankidetzan aurrerapausoak ematea, Nafarroako Euskararen Kontseiluaren esparruan.
- Euskararen sustapenean eta plangintzaren arloan aurrerapenak egiten jarraitzea udalerrietan, herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzeko tokiko erakundeetan. Horretarako, beharrezkoa da euskara-planak onesten dituzten eta euskara eta euskararen erabilera sustatzeko jarduerak egiten dituzten tokiko erakundeen finantziazioa hobetzea.
- Osoko bilkurak hala erabakita, hizkuntza-eremuz aldatzeko proposamena egiten duten tokiko erakundeei laguntzea, udalerriko biztanleen hizkuntza-eskubideak areagotze aldera.
- Akitania Berriak, Euskadik eta Nafarroak osatutako Euroeskualdearen babes ekonomikoa duten euskara sustatzeko proiektuak garatzea guztien artean.
- Eraginkortasun- eta proportzionaltasun-irizpideak izango dituen hizkuntza-politika bat garatu ahal izateko beharrezko baliabideak ematea administrazio publikoei.



12.

**BAKEA  
ETA BIZIKIDETZA**

## **BAKEAREN, BIZIKIDETZAREN ETA GIZA ESKUBIDEEN ALDEKO GEROA BAIREN APUSTUA**

Bizikidetzaren aldeko lana izan zen Nafarroako Gobernuaren jardunaren oinarrietako bat 2015etik 2019rako legealdian. Lehen aldiz, Memoriarekin, Bizikidetzarekin, Giza Eskubideekin eta Biktimekin lotutako politika publikoak garatzeko gobernu-egitura bat sortu zuen Nafarroako Gobernuak: Bake, Bizikidetzeta eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusia. Gizarte garaikideek historiaren ispiluaren aurrean jarri behar dute, eta iraganean egin diren Giza Eskubideen urraketei ikuspegi kritikoz begiratu, indarkeria gaitzesteko, biktimei arreta emateko eta memoria berreskuratzeke eta sustatzeko, gertaera haiek berriro jazo ez daitezzen. Hura izan zen eta hura da GEROA BAIren jarrera gai horren aurrean, eta hori izan da GEROA BAIk Gobernuan egon den zortzi urteotan bizikidetzaren aldeko lanari eman dion orientazioa.

2015. urtean, lehen aldiz, memoria historikoaren biktimek haien eskubide zen erantzuna jaso zuten Gobernuaren aldetik, hamarkadetan zehar itxarondako erantzuna eta aurreko Gobernuek beti ukatua. Bake, Bizikidetzeta eta Giza Eskubideen sailaren barruan, Biktimen Arretarako Bulegoa sortu zen, terrorismoaren biktimak eta motibazio politikoko indarkeriaren biktimak artatzeko Nafarroako Gobernuaren lehenengo egitura. 2015. urtera arte, Delituen Biktimen Arretarako Bulegora jo behar izaten zuten terrorismoaren biktimek. Eta, lehen aldiz, eskuin muturreko taldeen eta poliziaren abusuen biktimak artatzeko eta haiei entzuteko politikak garatu zituen Nafarroako Gobernuak, zailtasunak gorabehera. Sinetsirik benetako demokrazia batean, hots, Giza Eskubideekiko eta biktimen eskubideekiko errespetua erakusten duen benetako demokrazia batean, ezin dela biktima bakar bat ere utzi arretarik gabe, hori izan da memoria historikoaren alorrean azken urteotan egin den lanaren ardatza.

Biktimei aitortza egitea eta gertatutakoagatik ordaina ematea, Uxue Barkos Gobernuko presidentea buru zuten ekitaldi instituzionalen bitartez; biktimen eta haien familien memoria berreskuratzea; heziketa-programekin, etorkizuneko belaunaldiei bakearekin eta indarkeria ezarekin loturiko balioak transmititzeko lana; biktimentzako arreta integrala; iraganaren analisi kritiko eta etikoa; pluraltasuna eta kultura arteko aniztasuna sustatzea; azken batean, bizikidetzeta baketsu, justu eta demokratiko baten alde lan egitea izan zen aurreko legealdiko bake- eta bizikidetzeta-politiken etengabeko xedea. Estatuan erreferente bihurtu da Nafarroa, politika horietako askori dagokienez. Bakea-

ren, bizikidetzaren, errespetuaren, memoriaren eta demokraziaren aldeko lan horrek Geroa Bairen eskuetan jarraitu du legealdi honetan, Gobernuaren jardunean txertaturik, eta, gure helburuak lortu nahi baditugu, bultzada berria eman behar diogu etorkizuneko gobernuetan.

## HELBURUAK

- Nafarroa askotariko eta plural batean, bakearen eta Giza Eskubideekiko errespetuaren kultura sustatzea.
- Memoria Integral baten betebeharrean sakontzea.
- Indarkeriaren deslegitimazioan aurrerapausoak emateak, indarkeria inoiz ezin baita izan ezeri erantzuteko modua.
- Bizikidetzak baketsu, bidezko eta etikoan sakontzea.
- Nafarroa gizarte demokratikoa den aldetik, memoria gordetzeko eginkizunari eta biktimen egia, justizia eta ordaina jasotzeko duten eskubideari erantzuna emango dioten politikak bultzatzea Nafarroan.

## PROPOSAMENAK

### 1. ARAU BIDEZKO GARAPENA ETA INSTITUZIONALA

- Bizikidetzak, Memoria eta Giza Eskubideen II. Plan Estrategikoa garatzea, gizarteak bakean eraikitzeari dagozkion Garapen Jasangarriko Helburuak betetze aldera.
- Nafarroako Parlamentuan zoru etiko komun eta partekatua finkatuko duen agiri bat onar dadin bultzatzea, zeinak oinarri gisa balioko baitu Nafarroako Foru Erkidegoko Institutioek memoriaren eta biktimen arloan egin beharreko lanerako.
- Marques de Rozalejo Jauregia martxan jartzea Memoriaren Nafarroako Institutuaren eta Bakearen eta Bizikidetzaren Zuzendaritza Nagusiaren egoitza gisa.
- Memoriaren Nafarroako Institutua organismo autonomo gisa finkatzea, Gobernuaren barruan memoria historikoarekin eta oraintsuko memoriarekin zerikusia duten politika publikoak bultzatzeko.
- "Memoria duten Eskolak, Bakearen eta Bizikidetzaren alde" proiektua



ikastetxe guztietara eta unibertsitateetara hedatzea, Titulu propioak garatuta.

- Aurrerapausoak ematea biktima guztiek egia jakiteko, biktimarioak ezagutzeko, justiziarako, erreparaziorako eta horrelakorik berriz ez gertatzeko bermea izateko duten eskubidea benetan gauzatzeko.
- Nafarroako Gobernuaren eta tokiko erakundeen eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren arteko itun bat sustatzea, bizikidetzako eta giza eskubideekiko errespetuzko espazioak indartzeko.
- Erkidegoen arteko, Estatuko eta Europako lankidetzako sareak sortzea, memoria demokratikoa garatzeko eta transmititzeko.

## **2. MEMORIA HISTORIKOA**

- Nafarroako Gobernuaren Exhumazio Plana bultzatzen jarraitzea, 1936ko kolpe militarren ondorioz erail eta desagerrarazi zituzten eta oraindik haien familien esku utzi ezin izan diren pertsonak aurkitzeko, berreskuratzeko eta identifikatzeko.
- Gobernuak 2016an sortu zuen DNA Bankua bultzatzen jarraitzea.
- Memoriaren Tokiak eta Memoria Guneak finkatzea, memoria demokratikoari ikusgaitasuna emateko erreferente gisa.
- Espazio publikoa demokratizatzea, sinbologia frankistaren beste errolda bat onartuta.
- Ezkabako gotorlekuaren espazioaren barruan, memoria-proiektu bat garatzearen aldeko apustua egitea.
- Iruñeko Eroritakoen Oroimenezko monumentua dela eta, 2015-2019 legealdian hasitako eztabaidari heltzea, espazio hori bakea eta egia sustatu eta indarkeria deslegitimatuko duen Memoriaren Toki bihurtu dadin.

## **3. TERRORISMOAREN BIKTIMAK**

- Terrorismoaren Biktimen Foru Lege berria bultzatzea, hiru helburu nagusirekin:
  - » Terrorismoaren biktimen memoriaren aldeko lana Foru Lege berri horretan txertatzea.
  - » Hezkuntzaren arloan belaunaldi berriekin egin beharreko lana eranstea, indarkeria oro deslegitimatzeko elementu gisa.

- » Terrorismoaren Nafarroako biktima guztiei kalte-ordaina ematea. 9/2010 Foru Legeak 2012ko abenduaren 31 finkatu zuen kalte-ordainak eskatzeko gehieneko epe gisa. Biktima askok horren berri izan ez zuten, ez zuten eskaerarik egin.
- Laguntzeko Bulegoarekin lankidetzak- eta koordinazio-hitzarmen bat formalizatzea.
- Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin akordio bat lor dadin sustatzea, espazio publikoak gorrotozko mezurik edo indarkeria justifikatzen duten mezurik gabeko bizikidetzako gune izan daitezen bermatzeko.

#### **4. ESKUIN MUTURREKO INDARKERIAREN ETA INDARKERIA INSTITUZIONALAREN BIKTIMAK**

- Eskuin muturreko taldeek edo funtzionario publikoek eragindako motibazio politikoko ekintzen biktimen aitortpenari eta erreparazioari buruzko 16/2019 Foru Legea garatzea. Zehazki, Aitorpenerako eta Erreparaziorako Batzordea bultzatzea, erakunde publikoek historikoki baztertu diren urraketei erantzun diezaieten.
- 2017an ezarritako "Eskutik" programa indarkeria politikoaren biktima gisa onartu diren guztiei zabaltzea.
- Eskuin muturreko taldeen terrorismoaren eta funtzionario publikoen biktimak artatzeko Plan bat ezartzea.
- Torturen biktimak aitortzeko bidean aurrera egitea, tortura baita gizarte demokratiko orok onartu ezin duen Giza Eskubideen urraketarik handienetako bat.

#### **5. ORAINTSUKO MEMORIA**

- Iragana kritikoki berrikusteko prozesuak gara daitezen laguntzea. Biktimen funtsezko eskubideetako bat da bizi izandako injustiziaren eta eragindako minaren aitortzan oinarritutako erreparazio morala. Urraketen inguruko begirada kritiko eta alde askotarikoak dolua lantzen, biktimizazio-prozesua gainditzen eta oinazean ainguratuta ez gelditzen laguntzen die biktimei, eta, gainera, bizikidetzako irizpide etikoak finkatzen laguntzen dio gizarteari.
- Sekretu Ofizialen Legea alda dadin bultzatzea, biktimek egia jakiteko eta justiziarako duten eskubidean aurrera egiteko.
- Azken hamarkadetan Nafarroak jasan dituen indarkeria guztiei legitimitatea

kenduko dien diskurtso bat garatzea, zoru etikoan oinarrituta, indarkeria-motak parekatu gabe, eta diluziorik eta distantziakidetasunik gabe.

## **6. BIZIKIDETZA**

- Bizikidetzako eta giza eskubideekin lotutako politikak bultzatzea, aitortuz Nafarroa herrialde askotarikoa dela ideologiari, identitateari, hizkuntzari, kulturari, jatorriari, sexu- eta genero-identitateari eta aniztasun erlijioso eta laikoari dagokienez.
- Terrorismoaren eta indarkeria politikoaren biktimen eskubideak aitortzea eta aplikatzea.
- Nafarroan maila instituzionalean, politikoan, sozialean eta ekonomikoan egiten diren jarduketetan Giza Eskubideak aplikatzeko mekanismoak indartzea.
- Arrazakeriaren aurka Borrokatzeko Plan bat bultzatzea, barne hartuko dituen arrazakeriaren eta xenofobiaren prebentzioa eta biktimentzako arreta.
- Errespetua sustatzea, eta aniztasun identitarioaren eta ideologikoaren balio demokratikoak indartzea.
- Justizia Errestauratiboko Plan bat ezartzea, helburutzat biktimei erreparazioa ematea izango duten topaketak programatuko dituena.









13.

**GAZTERIA**

## GAZTERIA

Geroa Baik Nafarroako gazteentzako indar politiko erakargarria izaten jarraitu nahi du, haien eskariak, beharrak eta interesak entzuteko, jasotzeko eta integratzeko benetako prozesuetatik abiatuta. GAZTEOK BAIko gazteekin lankidetzan, lanean jarraituko dugu Nafarroako gazte guztientzako bizi-baldintza duinak bermatuko dituzten politikak garatzen jarraitzeko.

Horretarako, funtsezkoa da BELAUNALDI ARTEKO ITUN bat bultzatzea, kontsentsu politiko, sozial, sindikal eta enpresarial zabala izango duena. Enplegu prekarioaren aro honetan, nagusi direlarik aukeratu gabeko aldizkotasuna, behin-behinekotasuna, lanaldi partzialak, soldata txikiak, etxebizitzak erosteko eta alokatzeko prezio altuak..., gazteek badute etsiak jota egoteko arrazoirik, bai eta etorkizuneko prestazio sozialen (langabezia-saria, pentsioak...) kalitateaz ziur ez egoteko motibo seriorik ere. Horren aurrean, Nafarroako eta Estatuko erakundeetan behin eta berriz eskatu ditugun errenten eta irabazien inguruko itunez eta onurez gain, beharrezkoa da autogobernua areagotzea. Nafarroak bere gain hartzen baditu Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoan aitortzen diren eskumenak (hala nola bekak, I+G+B, Gizarte Segurantzaren kudeaketa ekonomikoa...) nabarmen lagunduko du gaur egungo gazteek etorkizunean jasoko dituzten prestazio sozialak behar adinakoak, duinak eta bidezkoak izan daitezen ziurtatzeko.

## PROPOSAMENAK

- Gazteriari buruzko 11/2011 Foru Legea eguneratzea. Onetsi zenetik igarodan denbora eta errealitate sozial aldakorra kontuan hartuta, beharrezkoa eta premiazkoa da erreforma hori.
- Nafarroako Gazteriaren Kontseiluaren antolamendua eta funtzionamendua arautuko dituen Foru Dekretu berria garatzea. Arau-esparru berri horrekin batera, beharrezkoa izango da Nafarroako Gazteriaren Kontseiluaren beharrezanekin bat datorren aurrekontu duin bat izatea.
- Gazteriarekin zerikusia duten politika publikoen zeharkakotasuna, Foru Gobernuako departamentu guztiekin, tokiko erakundeekin eta gazte-elkarteekin lankidetzan. Gazteria-politiketara bideratutako aurrekontuak politika horiek bermatzeko behar adinako kopurua jaso beharko du.
- Gazteen informaziorako bulegoen eta guneen sarea handitzea, gazteriaren arloko politika publikoak Nafarroa osora arrakastaz hurbiltzeko eta gazteek esateko dutena entzuteko. "Gazteriaren eskutik, gazteriarentzako" izan behar

du gazteria-politika ororen oinarriak, parte hartzeko eta elkarrizketarako espazioetatik abiatuta, non gazteei beren beharrak eta eskariak entzungo zaizkien.

- Tokiko Erakundeentzako laguntzak indartzea, gazteria-planak eta gazteek parte hartzeko espazioak susta ditzaten, eta udaletako gazteria-teknikariaren figura sustatzen jarraitzea, udal bakoitzak bere aldetik edo modu mankomunatuan.
- Tokiko erakundeetako arduradun politikoak gazteriarekin lotutako gaietan trebatu eta gaitu daitezen bultzatzea, gazteen beharretara egokitutako politika eraginkorragoak diseina eta ezar ditzaten.
- Udalen arteko lankidetzaren areagotzea, kulturaren, kirolaren eta aisialdiaren arloetako jarduerak susta ditzaten gazteentzat.
- Gazteak lan-mundura sar daitezen laguntzea, ikastetxeetatik lan-mundurako trantsizio-politika aktiboetatik abiatuta, eragileen arteko konexio handiago bultzatuz (ikasleak, ikastetxeak eta enpresak).
- Gazteentzako kalitatezko enplegua sortzera bideratutako politikak ezartzea, kontratazio egonkorra eta baldintza duinekoa sustatuz (neurri fiskalekin eta/edo diru-laguntzen bitartez).
- Gazteen artean ekintzailatza sustatzea, batez ere soziala eta kooperatiboa, laguntza ekonomikoak, aholkularitza eta enpresa arloko trebetasunerako prestakuntza eskainiko duten laguntza-programen bitartez.
- Green Jobs funts bat sortzea, enpresekin eta erakundeekin batera gazteentzako lan-aukera berriak zabaltzeko inbertituz, Nafarroa osoan enplegu berdeak sortuta.
- EmanZipa programaren alokairurako laguntzak 35 urte arteko gazteentzako zabaltzea, eta gutxienean adina 21 urte arte murriztea, 700 € arte handitzea errenta-muga lruñerrian, eta errentaren % 50ari eustea, baina gehienekoa kenduta. Landa-eremuan etxebizitza babestuen sustapenean sakontzen jarraitzea.
- Gaur egungo eskaintza sendotzea eta euskarazko eta ingelesezko unibertsitateko hezkuntza-eskaintza publikoa indartzea, Zenbait Urtetarako Finantzazio-Hitzarmenean jasotzen den berariazko finantziarioaren bitartez, sinergiak bilatuz hizkuntza-eskola ofizialekin eta hizkuntza horiek zabalduz unibertsitate publikoan eta pribatuan.
- Udako ikastaroak euskaraz eskainiko dira hiru unibertsitateetan.

## GAZTERIA

- Unibertsitateko eskaintza handitzea, gradu eta titulu berriak gehituta Adimen Artifizialaren, Digitalizazioaren, Ingurumenaren eta Ekonomia Zirkular eta Sozialaren alorretan, besteak beste.
- Derrigorrezko Hezkuntzaren ondorengo ikasketetarako beken eskumena osorik transferitzeko izapideak egitea ikasketetarako laguntza publikoen gure sistema hobetzeko, Nafarroako familien errealitatera eta beharretara egokituta.
- Lanbide Heziketari prestigioa ematen jarraitzea enplegu bat lortzeko eta bizitza-proiektu erakargarriak osatzeko kalitatezko tresna duin eta behar adinako gisa.
- Hezkuntza ez-formaleko, arlo komunitarioko aisialdi hezitzaileko eta aisialdi orokorreko jardueretarako programak eta proiektuak indartzea, eremu aproposa baita aisialdi osasungarria bultzatzeko eta giza eskubideak errespetatzen dituzten balioak lantzeko.
- Haurren eta gazteen Osasun Mentalari arreta berezia eskaintzea, adikzioak tratatzeko programak eta egiturak, esku-hartze goiztiarrekoak eta portaera suizidak prebenitzekoak indartuz. Berriki eratu den ongizate emozionaleko aholkularitza garatzen jarraitzea.
- Sexu-transmisioko gaixotasunak areagotu direla ikusita, prebentzio- eta kontzientziazio-kanpaina gehiago egitea.
- Gazteen kultura-ekoizpena bultzatzea, haien lanak sortzeko, sustatzeko eta erakusteko espazio izango diren gazteentzako arte-fabrikak abian jarrita. Titulartasun publikoko espazioak erabil ditzaten erraztea, ahal dela, udal-sare baten barruan integratutakoak.
- Liburutegien ordutegiak zabaltzea.
- Gazteentzako kultura-bonuak, arnasa luzeagokoak.
- Gazteen artean Nafarroako kultura- eta arte-ondarea hedatzeko neurriak hartzea, ikastetxeekin eta kultura-elkarteeekin lankidetzan.
- Tokiko erakundeekin hitzarmenak egin daitezzen bultzatzea, leku publikoetan –hala nola parke eta plazatan– liburuak eta bestelako materialak mailegatzeko espazioak ezartzea sustatzeko.
- Gazteek euskaraz modu informalean jarduteko aukera izango duten jolas-espazioak sortzen laguntzea –aisialdiarekin, kirolarekin, kulturarekin... lotutakoak–. Espazio horiek aurrez aurrekoak edo fisikoak izan daitezke, edo sare sozialen edo plataforma digitalen bidez bideratutakoak; kasurako,

Sarean Euskaraz.

- Hizkuntza-politika askotarikoa eta Nafarroako errealitate soziopolitikoarekin bat datorrena garatzen jarraitzea, Gazteriaren III. Foru Planean gazteen kolektibo ezberdinen artean euskararen erabilera sustatzeko jasotzen diren ekintzen bitartez. Horretarako, beharrezkoa da kontuan hartzea euskararen ezagutza handitu egin dela gazteen artean (18 eta 25 urte bitarteko gazteen % 40k daki euskaraz).
- Arlo sozialari, ekonomikoari eta ingurumenari dagokionez, jasangarria, osasungarria eta segurua den mugikortasuna bultzatzea. Aurrerapausoak ematea doako mugikortasunerantz, bizikletak, garraio publikoa, eskola-zirkuitu seguruak eta bestelako aukerak baliatuz.
- Balio demokratikoetan oinarritutako hezkuntza sustatzen jarraitzea. Belaunaldi berriek Nafarroan azken hamarkadetan gertatutako eskubide-urraketak ezagutu behar dituzte, eta gertaera horiek modu kritikoan epaitzeko gai izan behar dute, giza eskubideekiko errespetuan oinarriturik.
- Politika sozialetan gazteen parte-hartzea bultzatzen jarraitzea, boluntariotzaren bitartez elkartasun-balioak eta herritarren parte-hartzea sustatzeko . Auzolandegietan plaza gehiago eskaintzea gazte boluntarioentzat.
- Konektibitate digital handiagoa Nafarroa osoan, landa-eremuei arreta berezia eskainiz, Nafarroako gazteen kohesio soziala sustatzeko bitarteko gisa.
- Goi-mailako hezkuntzan, gazteen parte-hartzea areagotzea, bereziki STEAM arloetan (Zientzia, Teknologia, Ingeniaritza, Arteak eta Matematika).
- Gazteek Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak (IKT) modu arduratsuan eta seguruan erabil ditzaten sustatzea, IKTek dituzten arriskuei eta onurei buruzko heziketa- eta kontzientziazio-programak eskainiz, bai eta pertsonak dituzten eskubide digitalei buruzkoak ere.





14.

# **KULTURA**

Pandemia-garaiak agerian utzi du kulturaren balioa eta indarra; besteak beste, pertsonen ongizatea hobetzeko eta talde erresilienteagoak eraikitzeko une egokia ere izan zen garai hura.

Denboran eta espazioan definitzen gaitu kulturak, iraganeko eta gaurko gure aingura da, baina baita etorkizunean dugun jomuga eta gizarte berdinzaleagoak sortzeko gai den aldaketarako eragile indartsua ere. Hemen aurkezten dugu gure programa kulturala, zeina definitzen ditugun eta kokatzen gaituzten printzipioetatik abiatzen baita.

**Kultura-eskubideak:** gizakiaren funtsezko eskubide diren aldetik, eskubideok eraginkortasunez, ekitatez eta irisgarritasunez bermatzeko konpromisora eramaten gaituzte.

Kultura-aniztasunaren aldeko apustua eginez, baina geure kulturari eta hura osatzen duten euskal kulturako elementuei eutsiz.

### **Gure kultura-politikaren konpromisoak:**

- **Gardentasuna, ebaluazioa eta etengabeko plangintza.**
- Gizartea kohesionatzen duten eta etorkizuneko erronkei aurre egiteko funtsezko bizikidetza-esparruak osatzen dituzten balioak eta bizitzeko eta pentsatzeko moduak **sustatzea. Lurraldeari** lotutakoak.
- Kulturaren dimentsio sortzailea eta berritzailea ahalik eta gehien **hedatzea**, lurraldearekiko elkarriketa etengabea, digitalizazio globaleko esparru batean.

## **PROPOSAMENAK**

### **1. KULTURAKO LANBIDEEN FORU LEGEA**

Kulturako lanbideak aitortuko dituen lege bat, haien tipologia, kualifikazioa, gaitasunak, bitartekoak eta babesa ezarriko dituen, eta arreta berezia eskainiko diena arte-sorkuntzako eta -interpretazioko lanbideei gutxien araututakoak baitira; jardunbide egokiak eta kode deontologikoak ere sortu behar dira, behar bezala gara daitezen.

### **2. KULTURA-ESKUBIDEAK EZARTZEKO PLANA**

Kultura-eskubideen ezarpenean oinarritutako kultura-politika bat emateko Kultura Departamentuari.

### **3. PLAN PUBLIKO HAUEK GARATZEA: KULTURAREN II. PLAN ESTRATEGIKOA; PUBLIKO BERRIAK SUSTATZEKO PLANA; IRAKURZALETASUNA SUSTATZEKO PLANA**

Kultura-politikan errealitate berrien exijentziak txertatzea –II. Plan Estrategikoa garatuta–, publiko politikaren erdigunean kokatzea, eta irakurtzeko ohitura sendotzea.

### **4. KULTURAREN FINANTZIAZIOA: % 2 2030EAN**

Kulturaren aldeko apustua egiteak esan nahi du Nafarroaren antzeko europar eskualdeen batez bestekoaren inguruko aurrekontua izatea.

### **5. GOBERNANTZA INSTITUZIONAL ONA**

Gardentasunean, parte-hartzean eta lankidetzan oinarritutako gobernantza-eredu berriarekin hasi genuen aurreko legegaldia. Premiazkoa da eredu hori berreskuratzea eta politika, plan, programa eta proiektu guztietan gobernantza instituzional on bat bermatzea, baita baliabide ekonomikoak esleitzerakoan ere. Benetako parte-hartzerik gabe ezinezkoa da Kultura-eskubideen Foru Legea eta Kulturaren Plan Estrategikoa ezartzea eta, ondorioz, kultura politika publikoen erdigunean jartzea.

### **6. LURRALDE SORTZAILE BATEN ALDEKO APUSTUA ETA ERRONKA**

Kultura-jarduera deszentralizatzearen eta lurraldean ekipamenduek sortzen dituzten zentralitate berriak aitortzearen aldeko apustua egiten dugu, Nafarroako udalerrien mosaikoa josteko eta kohesionatzeko asmoz, kultura-irrigarritasuna ahalbidetuz eta Nafarroa osoan aukera-berdintasunaren alde lan eginez.

Horretarako, beharrezkoa da: Lurralde eta Sormen Atal bat sustatzea; kultura-mankomunitateak sortzea; Liburutegi Publikoen Sarea indartzea; Nafarroako Antzokien Sarerako eta beste kultura-proposamen batzuetarako aurrekontua eta zenbait urtetarako idazpena handitzea; arte-egonaldiarentako programa integratzea; kultura-etxeak eraikitze laguntzen deialdia berreskuratzea; 5.000 biztanle baino gehiagoko udalerrietarako Kulturako Plan Estrategikoak egitea; espazio ez konbentzionaletan kultura-ekintzak programatzea; Euroeskualdearen eskutik, neurri berrietan sakontzea.

### **7. GENEROARI DAGOZKION JARDUNBIDE EGOKIAK**

Kultura-erakundeetan generoari dagozkion jardunbide egokiak bultzatzea

defendatzen dugu: epaimahaiak, diru-laguntzak baloratzeko batzordeak, patronatuak eta Kultura Zuzendaritza Nagusiaren mendeko beste organo batzuk modu paritarioan osatzea. Emakumeek artearen eta kulturaren arloan bizi duten egoerari buruzko txostenak egiten eta emakume artista eta sortzaileen memoriak berreskuratzen lagunduko dugu.

## **8. KULTURA-INKLUSIORAKO LAGUNTZAK**

Desgaitasuna duten pertsonen inklusiorako proiektuetarako laguntzen deialdiak; migratzaileen sustapen sozio-kulturaleko proiektuak; espazio ez-konbentzionaletan eta ordutegi zabaletan; publiko gaztearekin eta nerabeekin edo hirugarren adineko pertsonekin edo bakarrik daudenekin kultura-ekintzako proiektuak sortzea eta indartzea. Ahaztu gabe zaugarritasun-testuinguruetan eta/edo gizarte-bazterkeriako egoeran dauden pertsonekin egiten diren arte komunitarioko eta kultura-bitartekotasuneko proiektuak.

## **9. ONDARE HISTORIKOARI ETA DOKUMENTALARI BALIOA EMATEA.**

Ondare historikoa kontserbatzea, eta monumentu eta eraikin historiko-artistikoak berreskuratzea ezinbestekoa eta estrategikoa da gure kultura-politikan, eta hori **bultzatuko** da hurrengo legealdian, erabilera turistikoko ondare historikoaren dinamizazioarekin batera, lurralde-garapenerako eragile gisa.

Hurrengo legealdirako, azterketa diagnostiko bat egitea proposatuko dugu, Ondare Zerbitzuak eta Artxibategi eta Ondare Dokumentalaren Zerbitzuak dituzten baliabide-beharrak ezagutzeko.

## **10. MUSEOAK BULTZATZEA**

Pertsona guztiek arteaz gozatzeko, ezagutza intelektualerako eta ikerketarako duten eskubidea bermatu behar duten zerbitzu publikoko zentroak dira museoak. Gainera, kulturaren parte hartzeko espazioak dira, eta erreferentziazko lekuak lurraldean. Museoetako bilduma publikoen garrantzia nabarmentzearen alde egiten dugu, eta bildumok eguneratzea eta behar adina handitzea proposatzen dugu. Erakusketa-programak eta hezkuntza- eta bitartekaritza-lantaldeak babestuko ditugu, batez ere belaunaldi berrien artean, publiko berriak erakarri nahi duen arnasa luzeagoko politika bat garatzeko. Azterketa diagnostiko bat egitea proposatuko dugu aurrez Zerbitzuaren mende dauden museoek dituzten baliabide-beharrak ezagutzeko.



## **11. EUSKARAZ BIZITZEA: HITZ EGITEA, SORTZEA, EKOIZTEA, KULTURA-EDUKIAK GARATZEA**

Baskoien lurraldea, Nafarroa historikoa, erreinu independentea izan zen mila urtez baino gehiagoz eta, beste altxor batzuen artean, euskara (*lingua navarrorum*), euskal kultura eta foruak utzi zizkigun oinordetzan. Nafarroako berezko hizkuntza da euskara; hizkuntza-gutxitua da, suspertze-prozesuan dago, eta babesa eta sustapena behar ditu. Arte-sorkuntza berritzailea euskaraz egin dadin, euskaraz hitz egiteko eta sortzeko askatasuna, kultura-jardunak euskaraz egiteko eta ezagutza eta sorkuntza euskaraz partekatzeak aukera bultzatuko dugu: euskaraz bizitzeko aukera.

## **12. KULTURA-POLITIKAK EBALUATU ETA KULTURA-POLITIKETAN ERABAKIAK HARTZEKO BEHARREZKO AZTERKETAK EGINGO DITUEN BEHATOKI BATEN ALDE**

Nafarroako Kulturaren Behatokiari beharrezko giza baliabideak eta baliabide ekonomikoak ematea gure erkidegoan kultura-politika publikoak ebaluatzeaz arduratuko den Atal izan dadin. Honako hauek izango ditu eginkizun nagusi, besteak beste:

- Informazio baliagarria eskuratzea, eta ezagutza sortzea, kultura-politiken arduradunak orientatzeko.
- Kulturaren II. Plan Estrategikoaren eta Kultura Zuzendaritza Nagusiaren planen jarraipena eta ebaluazioa egitea.

## **13. DIGITALIZAZIOA, TEKNOLOGIA BERRIAK ETA KULTURA-BITARTEKARITZA**

**Digitalizazioak agertoki berria ekarri dio kulturari; arte-formatu eta hedapen-espazio berriak eta negozio-eredu berriak garatzeko aukera ematen dio, baita publiko berriak erakartzeko aukera ere.** Herritarrek kultura-edukiak eskura ditzaten sustatzen dugu Nafarroako Kulturaren Atari Digitalaren bitartez, gure museo, artxibategi, liburutegi eta ondare historikoko erregistroen funtsak digitaliza daitezten. Kultura-bitartekaritzako prozesuak ere sustatuko ditugu.





15.

**KIROLA**



## KIROLA

Kirola ez da jarduera fisiko hutsa. Bistakoak dira osasun fisikoan zein mentalean dituen eragin positiboak. Kirola egiteak pertsonen arteko harremanak estutzen, balioetan oinarritutako heziketa indartzen, eta gure tradizioen eta kulturaren alderdi garrantzitsuak ezagutarazten ere laguntzen du, ahaztu gabe, gainera, kirol-ekitaldi jakin batzuk erakargarriak izan daitezkeela gure Foru Erkidegoa promozionatzeko.

Geroa Baiko kideok beti uste izan dugu garrantzitsua dela kirola egitea eta, beraz, kirola sustatzera bideratuta egon dira beti gure politikak. Baita kirolarekin zerikusia duten beste alderdi batzuk nabarmentzera ere, hala nola osasuna, kultura, berdintasuna eta hezkuntza.

Aurrez irekitako ildoari jarraituz, lau urteotan kirolaren eta osasunaren arteko erlazioa islatzen duten ekimenak babestu ditugu, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzera bideratutako proiektuak, emakumeen kirola sustatu dugu, eta martxan jarri ditugu zenbait ekimen parlamentario Nafarroako Aurrekontuetan beharrezkoak ziren inbertsioak sartzeko kirol-instalazioak hobetzea edo egungo araudira egokitzea behar zuten udalerrietarako. Gaur egun, Nafarroako kirol-jardueraren % 90 inguru instalazio publikoetan egiten da.

Foru Erkidegoko kirol-instalazio publikoak eta haietan herritarrei ematen zaizkien zerbitzuak hobetzen jarraitzeko balio behar dute datozen lau urteek, instalazioak eraberrituz mantentze-lanen kostuak murrizteko, benetako beharretara egokituz eta haien kudeaketa hobetuz, herritarrek kirola egin dezaten sustatuko duten ekintzak eta programak martxan jarri ahal izateko. Eta, orobat, kirolaren eskutik, berdintasuna, irisgarritasuna, turismoa eta kultura bultzatzen jarraitzeko ere.

Kirolarekin zerikusia duen gai bat ere oso aintzat hartu dugu lau urte hauetan: apustuen gaia, hain zuzen ere. Jokoaren Legearen aldaketa lideratu genuen; lege horrek hainbat alderdi arautzen ditu, guztiak ere kirol-apustuekin edo klubekin, ekitaldien eta era horretako enpresen jardueren babesletzarekin zerikusia dutenak.

## PROPOSAMENAK

### ARAUDIAK

- Nafarroako Kirolari buruzko 15/2011 Foru Legea aldatzea. Beharrezkoa da lege hori eguneratzea, gaur egungo beharretara eta errealitatera egokitu dadin.
- Kiroleko Lanbideen Dekretua arau bidez garatzea.
- Kirolaren digitalizazioa bultzatzea eta federazio-txartel bakarra sortzen saiatzea.

### KIROL-INSTALAZIOAK

- Kirol-instalazioak kudeatzeko eta birmoldatzeko Plan Zuzentzaile bat idaztea. Horrekin batera, beharrezkoak dira mantentze-lanen kostuak murrizteko inbertsio-programa bat, kudeaketaren arloan trebatzeko planak eta kudeaketa-eredu mankomunatuaren sustapena. Helburu nagusia da Nafarroako tokiko erakundeei laguntzea, instalazioak erabil daitezkeen eta sozialki errentagarriak izan daitezkeen, eta hainbat araudi betetzeko eta udalerrietako kirol-instalazioak berritzeko nahitaezkoak diren obrak egin daitezkeen.
- Mendiko Bidezidorrak eta Ibilbideak, BTT ibilbideak, bidegorriak eta/edo burdinbide berdeak mantentzen eta sortzen laguntzen jarraitzea.
- Aurrerapausoak ematea kirol-instalazioen kudeaketa udalen esku uzteko eta kudeaketa hobetzeko, zerbitzu-eredu eraginkorragoa bermatuz alderdi ekonomikotik eta sozialetik.
- Diru-laguntzen deialdirako aurrekontu-lerrobatezartzea, kirol-erakundeetako eta tokiko erakundeetako instalazioak hobetzeko eta eraikitzeko.
- Deialdi bat sortzea, aukera emango duena lankidetzaren hitzarmenak sinatzeko eta kirol-instalazio publiko eta pribatuak Nafarroako gizarteari irekitzeko.
- Foru erkidego osorako instalazio bereziak eraikitzea, hala nola:
  - » atletismoko pista estali bat Iruñerrian.
  - » Nafarroako Unibertsitate Publikoan kirol-gune berezi bat sustatzea, beisbol- eta errugbi-zelaiak ere izango dituena. Aurrez, akordio bat sinatzea Nafarroako Unibertsitate Publikoaren instalazioak erabiltzeko.
- Kirol-plus txartelaren programa garatzen jarraitzea (kirol-txartela), kirol-instalazioen kudeaketa hobetzen laguntzeko tresna gisa.



## JARDUERA FISIKOA-KIROLA

- Nafarroako Kirolaren Institutuak ez dezala diruz lagundu apustu-enpresek finantzatutako edo babestutako kirol-ekitaldirik.
- Tokiko edo eskualdeko kirol-jarduerak eta horretarako administrazio-azpiegiturak bultzatzea.
- Miguel Indurain Fundazioaren rola bultzatzea, kirolarientzako programa eta laguntza gehiago gehituta.
- Hezkuntza Departamentuarekin lankidetzan, Iruñerrian Gorputz- eta Kirol-jardueren Lanbide Heziketako eskaintza publikoa ezartzea.
- Osasun Departamentuarekin koordinatuta, kirolarien eta teknikarien osasun mentalerako programa integralak lantzea.
- Kirol-kudeaketako enpresetako langileen lan-baldintzak duintzea.
- Osasun Departamentuarekin batera, osasun-laguntzako larrialdien erregulazioa hobetzea.
- Biztanleek kirola egin dezaten sustatzea eta horretarako programak indartzea, arreta berezia eskainiz zenbait kolektibori: haurrak, hirugarren adineko pertsonak, gaitasun-maila askotariko pertsonak...
- Emakumeen kirola bultzatzea, horretan diharduten klubei eta ekimenei lagunduta.
- Kirola euskaraz egiteko aukera bermatzea.
- Kirola gure kulturako zenbait elementu sustatzeko tresna gisa planteatzea: pilota, herri-kirolak...
- Kirolaren balio positiboak Nafarroako Gobernuak diruz laguntzen dituen kirol-jardun guztietan txertatzea.





16.

**FUNTZIO PUBLIKOA,  
BARNE DEPARTAMENTUA  
ETA JUSTIZIA**

## FUNTZIO PUBLIKOA

- Estatuak **transferitu ez dituen eskumenak negoziatzea**, eta beharrezko eskualdaketak egiten bukatzea, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoan jasotakoari jarraikiz. Honako eskumen hauek, hain zuzen ere: I+G+B, bekak, espetxeetako zuzendaritza, gizarte-segurantzako araubide ekonomikoa, ingurumena, zerbitzu meteorologikoa, interes orokorrekoak ez diren aireportuak eta heliportuak.
- **Nafarroako Parte-hartze Demokratikoari buruzko martxoaren 22ko 12/2019 Foru Legea erabat garatzea**, Nafarroako Foru Erkidegoko gai publikoen zuzendaritzan herritarrek parte hartzeko duten eskubidea bermatzeko, eta Nafarroako Tokiko Erakundeetan parte-hartzea sustatzeko, dela herritarrek zuzenean parte hartuta, dela kide gisa osatzen dituzten partaidetza-erakundeen bitartez. Herritarren Partaidetzarako Nafarroako Kontseilua sortzen amaitzea; herritarren parte-hartzeari lotutako gaietan kontsulta- eta partaidetza-organo gorena da Nafarroako Foru Erkidegoan.
- **Gobernu Irekiari buruzko Foru Legean** jasotzen diren mekanismoak garatzea, jarduera publikoaren gardentasunean sakontzeko, eta **Nafarroako Gardentasunaren Kontseilua** eguneratzea, eginkizunei eta antolamenduari dagokionez jardunean detektatu diren egungo beharretara egokitzeke.
- **Nafarroako ikus-entzunezko eduki-gehitzaile bat bultzatzea eta garatzea**, Foru Administrazioak eta sektoreko errealizadore edo ekoizle nafarrek sortutako hurbileko eta intereseko ikus-entzunezko eduki guztiak gordetzeko onlineko plataforma gisa, kudeaketa publikokoa, eta urtero eduki berriekin elikatua, plataformaren eguneraketa bermatzeko. Nafarroako ikus-entzunezkoen Plataforma.
- Egindako hausnarketatik abiatuta, lehenbailehen egitea **Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzurako Langileen Estatutuaren Erreforma**: haren egitura erreformatzea; funtzio publikora sartzeko sistemak berrikustea; merezimenduan, gaitasunean, esperientzian eta jardunean oinarritutako ibilbide profesionala; mailak berregituratzea, Boloniara egokituz; egungo errealitatera egokitzea; profesionaltasun- eta eraginkortasun-irizpideak; herritarrei irekitzea; etab.

Halaber, Foru Administrazioiko lanpostuen benetako eginkizunen definizio progresibo bat txertatzea erreforma horretan, eta lanpostuen eta lanpostu-eskatzaileen egokitzapena baloratzea.

- **Administrazio publikoaren Nafarroako Institutua moderniza dadin**



**bultzatzea**, administrazio publikoen zerbitzurako Langileen Estatutu berriaren arabera.

- Enplegu publiko egonkorraren aldeko apustua egiten jarraitzea, Enplegu Publikoko Eskaintzen bitartez baimendutako lanpostuetarako deialdiak eginez. Lanpostuen profil profesionalak eta hizkuntza-eskakizunak egokitzen jarraitzea, bai eta profil horiek egiaztatzen dituztenen barne-mugikortasuna bultzatzen jarraitzea ere, eta administrazioko behin-behineko langileak egonkortzeko prozesuak burutzea.
- **Bateraezintasunei buruzko Foru Legea** berrikustea, hura eguneratzeko eta betetzeko. Funtzionarioen bateraezintasun-erregimenaren jarraipen zorrotza egiten jarraitzea, batez ere Administrazioan eta enpresa publikoetan zuzendaritzako edo ardura handiko karguak dituztenen kasuan.
- **Nafarroako Jokoari buruzko ekainaren 14ko 16/2006 Foru Legearen arauzko garapenak eta haren aldaketak —indarrean daudenak— eguneratzea, bai eta Nafarroako apustuei buruzko araubidea eguneratzea ere.**

## BARNE DEPARTAMENTUA

- Foruzaingoaren 2020-2023 aldirako Plan Estrategikoaren erabateko ebaluazioa egin ondoren, **Foruzaingoaren 2024-2027 aldirako Plan Zuzentzailea** onets eta gara dadin bultzatzea, **Foruzaingo integral bat** lortzeko, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoan aitortzen diren gaietan erabateko eskumenak izango dituenak, hala nola Trafikoan, Herritarren Segurtasunean, Ingurumenean (arlo honetan, zehazki, naturaren babeserako eskumen osoa), ikuskizun publikoetan, sailkatutako jardueretan eta ordena publikoan.
- Foruzaingoaren hedapena bultzatuko dugu, Nafarroako foru-polizia den aldetik, haren ardurapekoak diren eginkizunak eta, Enplegu Publikoko Eskaintzen bitartez, pixkanaka hartzen joango diren eginkizunak betetzeko beharrezkoak izango direnekin.
- **Manifestazioetako eta kirol-ekitaldi guztietako segurtasunaz eta ordena publikoaz –EL SADAR estadioko ekitaldiak barne– Foruzaingoa** ardura dadin lan egingo dugu, eta beharrezko bitarteko guztiak izan beharko ditu horretarako. Horrek esan nahi du kirol-instalazioetara sartuko direla poliziak, eta brigada mugikor baten laguntza izango dutela.

- Foruzaingoko Polizia Judizialaren eginkizunak garatzeko, Iruñeko Justizia Jauregian Foruzaingoaren bulegoa sor dadin bultzatuko dugu.
- Halaber, hurbileko polizia benetako bat sustatuko dugu, laguntzarako polizia bat, edozein delitu motaren aurrean, prebentzioko jarduna sustatu eta indartuko duena.
- Periferiako komisariak indartuko ditugu beharrezko poliziak jarrita, segurtasun-maila bera izan dezaten erkidegoko herritar guztiek.
- **Nafarroako Poliziei buruzko 23/2018 Foru Legea erabat garatzea**, horretarako beharrezkoak diren arauzko tresnekin, eta kalitatearen kulturaren sakontzea polizia-erakundearen barruan.
- Aranguren Bailaran **Segurtasuna eta Larrialdiak Koordinatzeko Nafarroako Zentroa** egin dadin bultzatzea, Barne Departamentuaren hainbat egoitza har ditzan, hala nola 112-SOS Nafarroaren egoitza, Suhiltzaileen Parke Nagusia, Trafikoa kudeatzeko zentroa eta Foruzaingoaren Komisaria Nagusia. Horretarako, Foruzaingoaren eraikin berria eraikitzen amaitu beharko da, bai eta segurtasun- eta larrialdi-eskola, eta segurtasuneko eta babes zibileko politiken zerbitzuak, eta Barne departamentuaren zerbitzu administratibo eta juridikoak hartuko dituen eraikina ere.
- Foruzaingoaren eta Nafarroako udaltzaingoaren arteko koordinazio eraginkorra lortzeko lankidetzak-hitzarmenak eta kudeaketa-tresnak garatzen jarraitzea.
- Segurtasun eta larrialdietako eskola sustatzearen eta bultzatzearen aldeko apustua egiten jarraitzea.
- Suhiltzaileen Zerbitzuari buruzko Nafarroako 2020-2023 aldirako Plan Estrategikoaren ebaluazio osoa egin ondoren, **Suhiltzaileen Zerbitzuari buruzko Nafarroako 2024-2027 aldirako Plan Zuzentzaile** berria onartu eta garatzea, larrialdien egungo eta etorkizuneko errealitatera egokitutako suhiltzaile-zerbitzua lortzeko –langileei zein instalazioei dagokienez– eta Nafarroako suhiltzaile-zerbitzuan emakumeak sar daitezen sustatzeko.
- Foru erkidegoko eta udaleko mailako larrialdi-planak sortu, berrikusi eta eguneratu daitezen bultzatzea. Autobabesa sustatzea, larrialdien prebentzioa hobetzeko tresna gisa.

## JUSTIZIA

- **Justizia Errestauratiboaren, Bitartekaritzaren eta Jardunbide Errestauratiboan Legea erabat gara dadin bultzatzea**, eta lege hori bertan jasota ez dauden arloekin osatzea; adibidez lan-arloarekin.
- **Justizia Jauregiaren instalazioak eta baliabideak hobetzeko neurriak.**
- Nafarroako Justizia Administrazioako langile guztientzako **etengabeko prestakuntza** bultzatzea eta sustatzea, haien lana maila legislatibo-prozesalean eta teknologikoan sortzen diren berritasunetara egokitu ahal izateko.
- **Iruñeko espetxeko** zerbitzuak hobetzea: hezkuntza-zerbitzuak, zerbitzu sozialak (adibidez, Nafarroako Gobernuaren esku dauden prestazioak eskuratzeko, espetxeko gizarte-langileek egiten dituzten txosten sozialak onartzea); espetxerako garraio publikoa egia bihurtzea, eta zigorra Nafarroatik kanpo betetzen ari diren preso nafarrek edo Nafarroan errotuta dauden presoek zigorrak Nafarroako espetxean betetzeko aukera izatea.
- Arrazakeriaren eta xenofobiaren aurka borrokatzeko Foru Lege berria lantzea, gure erkidegoan herritar guztien arteko berdintasunezko bizikidetzarako landu beharreko neurri zehatzak ezartzeko, inork ez dezan arrazakeriarik edo xenofobiarik jasan bizitzako ezein arlotan.



17.

**NAFARROAK  
AHOTS PROPIOA  
IZAN BEHAR DU  
EUROPAN  
ETA MUNDUAN**



Nafarroa subjektu politiko gisa ulertzen dugu, eta Europan sendo integratutako Nafarroa bat defendatzen dugu, non ahots propioa izango duen. Funtsezkoa da gure erkidegoaren presentzia areagotzea ahalik eta erabaki-gune gehienetan, balio demokratikoak errespetatzen dituen Nafarroa berde eta berritzaile gisa agertzen jarraitzeko munduaren aurrean. Mugaren alde bietako euskal lurraldeekiko harreman politikoak normalizatzeko bidean aurrera jarraitzearen alde egiten dugu, horretarako hainbat tresna garatuta, hala nola Euskadi-Akitania Berria-Nafarroa Euroeskualdea; 2017an sartu zen Foru Erkidegoa eskualde horretan.

## PROPOSAMENAK:

- Nafarroak Bruselan duen ordezkaritza sendotzea; 2015ean berreskuratu zuen ordezkaritza hori Nafarroak.
- Europako erakundeetan parte hartzea, Europako Eskualdeen Batzordean (CDR), Europako Batzordean edo bestelako sareetan (adibidez, Automobilgintzako CoRAI sarean).
- Europar Proiektuen Bulegoa, 2021-2027 aldirako Esparru Finantzarioan jasotzen diren europar proiektuen katalizatzaile modura. Gehiago zabaltzea zentro teknologikoetara, unibertsitateetara eta ingurune ekonomiko eta sozialeko beste eragile batzuetara.
- Mugaz gaindiko espazioa, Nafarroarako aukera eta indargune gisa, zenbait erakunderen barruan (adibidez, Euroeskualdea, Pirinioetako Lan Komunitatea eta Arku Atlantikoko Makroeskualdea).
- Mugaz gaindiko eta eskualdeko esparruan, europar programetan lankidetzan jardutearen aldeko apustua; Poctefa programan, esaterako.
- Euroeskualdearen esparruan eta Nafarroako Unibertsitateak lideratuta, "Mugaz Gaindiko Lankidetzako Institutuaren" proiektua bultzatzea.
- Berriki onartu den "Atzerrian dauden nafarrekiko harremani buruzko Foru Legea" garatzeko, Atzerriko Nafar Komunitateen Kontseilua sortzea, gure mugetatik kanpo bizi diren nafarrekiko harremana bultzatzeko, etorkizuneko balio komun gisa Nafarroaren proiekturako.
- Next estrategia eta Next Retorna ekimena bultzatzea, gure erkidegora itzuli nahi duten nafarrei bide horretan laguntzeko.



**GEROABAI**

LA NAVARRA DE TODOS/AS  
GUZTION NAFARROA